

3

Donostia Kultura
Balantzea

8

Egitura eta balantze
ekonomikoa



10

Laguntza
sorkuntzari



13

Gizarte
Ekintzak



18

Komunikazioa
eta Irudia



21

Donostia Kultura
bazkideak



25

Antzerkiak

25 Antzoki Zaharra
28 Victoria Eugenia



33

San Telmo Museoa



40

Kultur Etxeak

40 Kultur Ekintza
47 Aiete
50 Casares-Tomasene /
Larratxo
56 Egia
61 Ernest Lluch
65 Intxaurrondo
69 Larrotxene
72 Loiola
76 Lugaritz
80 Okendo



83

Liburutegiak



96

Programazioa

96 Arte Eszenikoak
103 Musika
105 Zinea eta
ikus-entzunezkoak



107

Festak



135

Ekoizpen Unitatea



119

Jaialdia

119 Heineken Jazzaldia
124 Fantasiako eta
Beldurrezko Zinemaren
Astea
125 Giza Eskubideen
Zinemaldia
126 dFeria
130 Literaktum
131 Dkluba
132 Olatu Talka
133 Poltsiko Antzerkia
134 Korner





Urtean 7.900 jardueratik gora dituen agenda. Hona hemen 2019. urtearen balantzearen hasiera: Donostia Kulturak izan ohi dituen datu handien bide-erakusle, 30. urteurrenaren bezpera den honetan.

- **1.085.490 lagun pasatu ziren** Donostiako auzoetako **kultur etxeetatik. 886 ikastaro** eman dira haietan, **10.859 parte-hartzaileekin** (DK + KZ gunea), hots, % 16,12 eta % 5,98 gehiago, hurrenez hurren.
- 834.477 lagunek erabili zuten Donostiako Liburutegi Sarea. Eta **456.787 mailegu egin ziren liburutegietan**, hots, aurreko urtean baino % 5,26 gehiago. Horregatik, **irakurketa bultzatzen jarraituko dugu lanean; Liburukaren bitartez**, besteak beste.
- 140.585 bisitari izan ditu San Telmo Museoak, eta 172.000 bisitari, berriz, Urgullek (% 4,57 eta % 6,17 gehiago, hurrenez hurren), hots, **312.585, San Telmo Museoak kudeatzen dituen bi espazio horien artean**, urtean zehar. Gainera, **kultur etxeek** askotariko erakusketa sorta eskaini zuten; 91, zehazki, eta 145.206 lagunek bisitatu zituzten. Hartara, **457.791 bisitari izan zituzten guztira Donostia Kulturaren erakusketek**.
- **Jaiez** ari garelarik, bistakoa denez, kopuruak are handiagoak dira:
 - **Kalkuluen arabera, 1.278.275 lagun mugitu ziren Aste Nagusian**, 30 agertokitan izandako **490 jardueretan**.
 - Kalkulatu da **Su Festen Nazioarteko 56. Lehiaketan** 650.000 lagun izan zirela. Scarsella Fireworks enpresak irabazi zuen Urrezko Maskorra.
 - 49 ikastetxe eta konpainia (8.249 parte-hartzaile) eta helduen 143 **danborrada**

***21 kultur jarduera egunean**

***Gipuzkoan sarrera gehien saltzen duen kultur erakundea**

***Gipuzkoako kultur klubik handiena**

***DK, gero eta atxikiago bertako sortzaileei**

(18.399 parte-hartzaile) ibili ziren hirian durundotsean San Sebastian egunean. Alegia, 26.648 donostiarrek (biztanleen % 15ek) hartu zuten parte zuzenean, beren jaia sortuz.

- Emakumeen 20 traineruk eta gizonezkoen 23k hartu zuten parte **Kontxako Banderan**, eta kalkulatu da **35.000 lagunek** ikusi zutela zuzenean.
- **Santo Tomaseko Azokan**, berriz, **80.000 lagun** izan ziren, kalkuluen arabera, eta 195 postu.
- Sarreraren salmenta eta ikuskizunetan bildutako jendetza: **329.530 sarrera saldu ziren** gune eszenikoetan eta San Telmo Museoan; aurreko urtean, berriz, 280.181. Horrenbestez, **Donostia Kultura Gipuzkoako kultur eragilerik handiena da sarrera-salmentetan**. Gainera:
 - DK-ren ikuskizun eta proiektioetan izandako ikus-entzuleak 600.000tik gora izan ziren.
 - 317.446 lagun, berriz, DK-ren jaialdi nagusietan.

- **DK Bazkideak:** Gipuzkoako kultur klubik handiena Donostia Kulturaren txartelaren inguruan

antolatutakoa da. **107.840 lagunek dute Donostiako kulturarako "giltza" hori.** Deskontu, zozketa eta abarretan eskaintzen dituen abantailaz gainera, zenbait zerbitzutarako sarbidea ematen du: liburutegietako mailegua, ikastaroak edo kultur informazio pertsonalizatua jasotzeko aukera.

Klub horren joera goranzkoa da betiere, **2019an 4.272 bazkide berri** bildu baitzaizkio.

- **DK-k unibertso digitalean** duen jarduna eta presentzia **handiagoa izan zen 2019an. Donostia Kultura Irratia** hasi berriaren **Bestalde** magazin berriaz gainera, urte-amaieran **13 plataforma digitalek** eskaintzen zituzten Donostia Kulturaren edukiak. Guztira, **2.523.887 bisita** izan zituzten. Honako hauek izan ziren bisitatuenak:
 1. www.donostiakultura.eus **1.501.675**
 2. astenagusia.donostiakultura.eus **253.013**
 3. heinekenjazzaldia.eus **236.114**

Lehenak (Donostia Kulturaren web generiko edo nagusiak) eskaintzen dituen edukien artean, herritarrei agenda eta sarrerak erostea, Liburutegi Sareko liburuen katalogoa eta kultur etxeetan antolatzen diren ikastaroak interesatzen zaizkie batik bat.

Orobat, nabarmentzekoa da Donostia Kulturak **sare sozialetan** duen presentzia: **148.102 jarraitzaile** zenbatu dira Twitter, Facebook, Instagram eta LinkedIn-eko kontuetan.

- Azkenik, nabarmendu dezagun **diru-laguntzetan** erabilitako dirutza, **625.000 €**-koa izan baita **Donostia Kulturak** Donostiako elkarte, erakunde eta kultur eta jai-ekinbideei laguntzeko **erabilitako diru-kopurua**.



DK ZENBAKITAN

DK BAZKIDEAK

107.840



KULTUR ETXEAK

1.085.490



AGENDA

7.900
jarduera



BISITAK URGULLEN + SAN TELMO MUSEOAN

312.585

140.585
Bisitari San Telmoko
erakusketetan

172.000
Bisitari
Urgullen

LIBURUTEGIAK

834.477

456.787
mailegu

9

JAIALDI

315.896



SALMENTA- SARRERA

329.530

188.945
Ikuskizun eta
proiektzioetarako

140.585
San Telmo Museora
sartzeko



IKASTAROAK

10.859

886 ikastaro



DANBORRADA

26.648

49
Ikastetxe &
konpainia
(8.249)

143
Danborrada
helduenak
(18.399)

DIRU-LAGUNTZAK

625.000 €



ASTE NAGUSIA

1.278.275

490 jarduera

ESTROPADAK

Kontxako Bandera

35.000



20
Traineru
emakumeenak



23
Traineru
gizonezkoenak



Zenbaki pila horrek guztiak zera egiaztatzen du, donostiarrek Donostia Kulturaren kultur eta jaien eskaintzan duten parte-hartze eta kontsumo handia. Eta osasun onaren adierazle diren zenbaki horiek dituela beteko ditu **Donostia Kulturak 30 urte 2020an**. Eta hori guztia etorkizunerako eraberrituta egiten du, galdezka etengabe, eta aldaketa-prozesu batzuetan buru-belarri sarturik. Hona hemen oraingo lan-ildo batzuk:



LAGUNTZA SORKUNTZARI

Erakunde honetan oso-oso harro gaude, kultur erakusgarrietan egindako ahaleginaz ez ezik, baita **arte-sorkuntzari laguntzeko** egindakoa ere, batik bat bertakoari.

laz hasi ginen neurtzen sorkuntzari begirako baliabideak; 2019an, **5 milioi euro**ren ingurukoak izan dira. Hor sartzen ditugu sortzaileei emandako laguntza zuzena, eskaintza pedagogikoa eta kultur euskarrietan egindako inbertsioa.

Adibide on bat **Museo Bikoitza** da, artista gonbidatu batekin elkarlanean egiten den interbentzio-programa bat; Museoko bildumaren berrirakurketa bat egiten du hark. Eta 60tik gora produkzio, egoitzaldi edota koproduzio egin ziren 2019an, hori guztia bertako sortzaileen emanaldiak, kontzertuak erakusketak eta abar kontatu gabe. Donostia Kulturak sorkuntzari emandako laguntza ezari-ezarian handituz doala-eta, bereziki jaso nahi izan dugu oroitidazki honetan.

IRAKURKETA SUSTATZEA

Literaktumen, zenbait literatur sarituk parte hartu zuten 2019an (Bernardo Atxaga, Adam Zagajewski, Cristina Morales...), bai eta jakin-min handia sortu ere. Edizio honetan 4.200 lagunek hartu zuten parte. Hartara, bidea zabaldu zitzaion literatur jaialdi honi, etorkizunean haziz jarrai dezan. Irakurketaren arloan, gainera, nabarmentzekoa da **Liburukaren** inguruan irekitako lan-ildoak, txiki eta gazteen artean **irakurketa sustatzeko**. Erakundea oso tematuta dago eginkizun horretan.

LAGUNTZA BERTAKO TALDE ETA ARTISTEI

Heineken Jazzaldiak 168.000 ikus-entzule izan zituen edizio honetan, oso balantze ona, nahiz eta eguraldiak batere lagundu ez eta kalte egin gune irekiei. Jaialdi honek lanean jarraitzen du ikus-entzule berriak sortzeko (Txikijazz da adibiderik onena), euskal artista gazteak bultzatzeko, eta abar. **Musikaren arloan**, hiriak **goraldia** bizi du azken urteotan, eta **musika-jaialdi eta topaketa txikien sare** interesgarria ari da ehuntzen, non bertako taldeek, talde alternatibo eta amateurrek jende askoren aurrean jarduteko aukera baitute. Donostia Kulturako Kultur Ekintzaren kasuan, **Dkluba** programaren barruan sartzen dira, zeinak 20.878 ikus-entzule izan baitzuten, 30

kontzertutan, 2019an. **Musikagela Fest** eta **Glad is the day** dira bi topaketa gazteenak, eta fenomeno horren adibide argia; eta **Musikagela Weekend, Donostikluba Festibala, IX. Musika Eguna, Revolution Jamrock Regae Festival** eta abarri gehitzen zaizkie.

STM & ERAKUSKETEN HIRIA

Erakusketak izan ziren beste topagune handienetako bat hirian. San Telmo 11 programatu zituen guztira, eta bi nabarmendu ziren: *Heriotza. Ante la muerte* eta *Hello Robot*. Lehena, geure produkzioa, non erakunde eta elkarte ugarik hartu baitzuten parte; eta bestea, udan programatua, jakin-min handia piztu zuen gai baten inguruan. **Hello Robot izan da Museoa berriro ireki zenetik bisita gehien izan dituen erakusketa**. 2019an, 140.585 lagunek bisitatu zuten San Telmo.

Kultur etxeek askotariko erakusketa sorta eskaini zuten; **91**, zehazki, eta 145.206 lagunek bisitatu zituzten. Areto horiek beren espazioak era askotako gai eta plastiketara egokitu ahal izateko duten moldakortasunari esker, ezinbesteko lekuak bihurtu dira, ahots artistiko eta diskurtso berezien sustatzaile diren aldetik.

Eta, espazio guztien artean, **457.791 bisitari izan zituzten Donostia Kulturako erakusketek**.



DK Irrati berria



GIZARTE- EKINTZAK ETA NAZIOARTEKOTZEA

(Ikus dagokion atalean).

“MADE IN 2019” BERRIAK

Deskribatutako datuak eta lan-ildoak itogarri gerta daitezke, 2019an Donostia Kultura markatu zuten berritasunak ikusten ez uzteraino.

Ernest Lluch berria

Ernest Lluch Kultur Etxeak berriro ireki zituen ateak 2019ko urriaren 14an, urte bete luzez lanetan egon ondoren; Anoetako Estadioan berriz ere, bi solairuko gune batean, instalazioak erabat berrituta. Nabarmentzekoa liburutegia, modernoa eta erabiltzaileak hartaz errazago balia daitezen pentsatua, baliabide berriekin, hala nola Jarduera Aretoa, Isiltasun Gela edo berritasunen atala. Berrikuntzak laster izan zuen ondorioa Kultur Etxeak azkenerako eman dituen datuetan. Izan ere, Ernest Lluch-ek **60.884 bisitari** izan zituen 2019an, aurreko urtean -itxi zen urtean- baino **% 9,4 gehiago**.

Euskadiko irakurketa sare publikoaren liburutegi arteko mailegua:

Donostiako liburutegien sarea denbora darama Euskadiko irakurketa sare publikoaren liburutegi arteko mailegu-sistema ezartzeko lanetan. Zerbitzu horren bidez, liburutegietako erabiltzaileek



© J.A. Areta Goñi (JUXE)

Curtis Harding, Musika programazioa

Euskal Herriko sare publikoko edozein liburutegitan eska dezakete liburu bat maileguan, eta eskatutako zentro berean itzuli gero. Hurbileneko liburutegia arduratzen da kudeaketa guztiaz. Zerbitzu hori -EAE osoan irekia- 2019ko lehen hiruhilekoan jarri zen indarrean Donostian.

dFERIAren urteurrena

2019an, **dFERIA** arte eszenikoaren jaialdiak **mende laurdena** bete zuen bere ibilbidean. 25 urteak ospatzeko, **programazio berezia** izan zen: **38 ikuskizun** (horietatik, 48 emanaldi), zazpi agertokitan banaturik; gehi kalean. Edizioak **13.189 ikus-entzule** bildu zituen, aurreko urtean baino % 57 gehiago, **Kale artean** izeneko kale-jaialdi berria erantsi baitzitzaion programari, jaialdia hasi aurretiko programazioa. Eta **Topaketak nahieran** programa berria, Ferian akreditaturiko profesionalei errazbide gehiago eskaintzeko.

Heineken Jazzaldia Japoniara begira

Jaialdiak ildo berri bat ireki zuen 2019an, Japonian egiten den jazz entzungai jartzeko. Ustekabe handia izan zen ikus-entzuleentzat, eta segida izango du 2020ko edizioan.

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteak 30 urte

Urteurrenen bidetik, **Asteak 30**. edizioa egin zuen. Eta hori ospatzeko, jarduerak areagotu zituen: kaleko ikuskizun arrakastatsu batez, erakusketa gehiagoz (besteak beste, **30argazki30**, bere produkzioa); eta gertaera bitxi berezi bat: zinemaldiari bi euskal produkziok eman zioten hasiera eta amaiera. Horri erantzunez, **23.553 lagunek** hartu zuten gozatua zinemaldi baterano honekin.

Donostia kultura Irratia

2019an, Casares Irratia (FM 107.4) **Donostia Kultura Irratia** bihurtu zen. Horrekin batera, nabarmen hobetu zuen zerbitzua, batetik, eta, bestetik, kultur eta komunikazio-leiho berri bat eman zion Erakundeari. Hobetu egin ziren bitarteko teknikoak, eta indartu egin zen programazioa, nola eta **Bestalde** kultur magazin egunerokoaz, podcast-en eskaintza ere indartzeaz gainera.



On-line unibertsoan aurrera

San Sebastian egunean, Donostia Kulturak web berri bat jarri zuen martxan, **danborrada.donostiakultura.eus**, taldeen segimendua errazago egin ahal izateko Donostiako jai nagusian, eta gainera hartaz informazio historiko osatuena ere izateko. Prozesuen digitalizazioan sakonduz, 2019an barne-tresna bat sortu zen Kontxako Banderako estropadan parte hartzen zuten elkarrekin komunikazioa izateko..

Oparitu kultura: DK opari txartela

Urtearen hondarrean, Donostia Kulturak **DK Opari Txartela** atera zuen, eskuragarri noiznahi hala leihatiletan nola on-line. Bi eratakoa da, 50 eta 100 €-koa, eta kulturaren transmisioa bultzatzea du asmoa, ospakizunak eta dagozkien opariak kari.

Dėnak Ohana Surf Club

Hurbileko kultura da Donostia Kulturaren bereizgarrietako bat, eta hala ulertzen da 2019an proiektu berri bat martxan jarri izana Okendo K. E.n. **Dėnak Ohana Surf Club** du izena, eta, iraganeko surf klub baten itxuran, Donostia, Euskadi eta munduko surflarien belaunaldiak batzea du helburu. Proiektuak bi ardatz nagusi ditu: **surfaren inguruko funtsak dituen liburutegia** eta **hileroko jardueren programa**, Donostiaren inguruneaz ohartarazi eta gogoeta egiteko xedez biak ere, hasi espazio fisiko eta hurbilenetik (Zurriola, Sagues, Gros auzoa) eta espazio metaforikoagoetara: "bidaia", "itsasoa eta natura", "historia historikoa"...

Street Art

Auzoarekiko elkartasunaren ildo beretik, **Loiola K. E.k Loiola Apain Street-Art** proiektua estreinatu zuen 2019an. **Zazpi arte-interbentzio** egin ziren, Loiolaren irudia eraldatu duten

muraletan. Esperientzia egokia izan zen, hainbestearino non datorren urtean Altzan izango baitu segida.

Oihua!

2019an, sorkuntzari laguntzeko ekinbide berri bat jarri zen martxan; Oihua! **Euskarazko beldurrezko film laburrei laguntzeko** ildo bat da, Larrotxenek (Larrotxene Intxaurren K. E.ek), Film Comission Gipuzkoak eta Gazteak bultzatua, eta emaitzak 2020an ikusiko ditugu.

Gure Ahotsak

Izaro, Elena Setiėn, Olatz Salvador eta Sara Mansilla kantariek hartu zuten parte **Gure Ahotsak**-en lehen edizioan. Urteroko hitzordua izango da, Donostia Kulturak bultzatua euskal emakume egileak ikusgaiago jartzeko.

Agur, Olatu Talka


Olatu Talka herritarrek parte hartzeko proiektu bat izan da, eta 2010etik egin da Donostian, hiria 2008an 2016ko Europako Kultur Hiriburutzarako hautagaitzat proposatua izan ondoren. Hasieratik hautsi zituen mugak: edizio batzuetan, 25 nazionalitatek ere hartu zuten parte, ekitaldi jendetsuak izan ziren, hiri-paisaia eraldatu zen, eta pentsa litekeen gai sortarik askotarikoena eta zabalena joratu zen. Jaialdiak 2019an esan zuen agur, **200 jardueratik** gorako programa baten bidez, zeinetan 2.000 bat eragilek hartu baitzuten parte, eta beste **60.000 lagunek** gozatu baitzuten haietaz. Jaialdiak bere ondarea utzi du, parte hartzeko zenbait jarduera, zeinak Donostia Kulturak bultzatuko baititu 2020tik aurrera.



Una habitación propia, Clara Sanchis. Antzoki Zaharra



ADMINISTRAZIO KONTSEILUA



ZUZENDARITZA TALDEA

Zuzendari-gerentea: Jaime Otamendi

Zuzendariaren laguntzarako teknikaria: Imanol Galdos

Administrazioa eta baliabideak:
Rebeka Gallastegi

Zinema:
Josemi Beltrán

Musika:
Miguel Martín

Ekonomia eta finantzak:
David Feijoo

Komunikazioa eta Irudia:
Jaione Askasibar

Produkzioa:
José Ignacio Abanda

Liburutegiak:
Arantza Urkia

Festak:
María Jesús Torres

Antzerkia eta dantza:
Norka Chiapusso

Kultur Etxeak:
Jon Aizpurua

San Telmo Museoa:
Susana Soto

2019ko AURREKONTUA



Gastuak guztira:
29.237.234 €



Diru-sarrerak guztira:
5.859.591 €



Udalaren diru-ekarpena:
23.377.643 €



DONOSTIA KULTURAREN ZEHAR PLANAK

Euskararen Erabileraren Plan

Berezia: Dagoeneko martxan da 6. Plangintza aldirako (2018-2022) plan berria.

Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako

Plana: Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako I. Plana amaitu ondoren, 2019an plan berria lantzen jardun genuen, 2020an onartzeari begira.

NAZIOARTEKOTU, IRAKATSI ETA IKASI

Nazioartekotzea urtez urte mugarri berriak jarritz sendotzen ari den bide bat da. Mugarriok, berriz, Donostia Kultura azken urteotan bultzatzen ari den ildo estrategikoetako bat artikulatzen dute.

Horren adibide da duela lau urte Donostia Kulturak *Other Words* / *Beste hitzak* programaren lidergoa bere gain hartu izana: proiektu europar bat zeinari esker kontinenteko eskualde eta estatu batzuek modu koordinatuan jardun baitute lanean kultura eta hizkuntza gutxituak indartzeko xedez. 2019ko uztailan, antologia bat argitaratu zen, non biltzen baitira programak iraun duen lau urteetan garatutako 34 egonaldietako sorkuntza-lan guztiak. Programak hilabete horretan jo zuen erpina, Dublinen egindako ekitaldi batean, non agerian geratu baitzen lortutako arrakasta eta parte-

hartzaileen eta beste zenbait jenderen interesa, gisa horretako programa batean sartzeko nahia adierazi baitute, baldin eta etorkizun hurbilean martxan jarriko balitz. Nabarmentzekoa da proiektu horrek komunikabideetan sortu zuen oihartzuna.

Azkenik, azpimarratu behar da *OW* / *BHe*k agerian utzi duela Donostia Kulturaren fidagarritasuna eta gaitasuna nazioartekotzearen bidetikio desafioei etorkizunean aurre egiteko.

Donostia Kulturak nazioarteko foroetan azaldu du bere esperientzia eta eskarmentua. Besteak beste, Oulu-n (Finlandia), Buenos Airesen, Mulhouse-n (Frantzia) edo Durban-en (Hego Afrika) izan da gure erakundea. Urtez urte, nabarmen ari dira emendatzen eskariak kanpoko erakunde eta instituzioetatik, interesaturik baitaude lehen eskutik ezagutzeko Donostian garatu den kultur politikaren eredua.


LIKE sareak, zeinari duela hamarkada batzuk atxiki baitzitzaien Donostiako Udala, desegitea erabaki zuen, eta horrek areagotu egiten du lankidetzarako bide berriak ekarriko dituzten aliatuak eta sareak bilatzeko beharra. Testuinguru horretan, esan behar da bi bileratan parte hartu genuela kultur politiken arloan ari diren sare garrantzitsuenetako biren bileretan: ENCAT (Dijon) eta Culture Action Europe (Konstanz eta Kreuzlingen). Hiriok kongresuak izan zituzten, zenbait proposamen sortu ziren kongresuotan, eta Donostia Kulturak horietan modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezake.

2016ko Europar Hiriburutza amaituz geroztik, Donostia Kulturak Donostiako hiria ordezkatzeko du ECOC sarean, non sartzen baitira Europako kultur hiriburu izan ziren hiriak eta izan nahi luketenak. Dublinek eta Rijekak (Kroazia) hartuko dute 2020an Matera eta Plovic-en lekukoa. Biek ala biek egin zituzten ECOCen bilerak 2019an, eta haietan ere parte hartu zuen DK-k.

Azkenik, esan behar da gero eta ohikoagoak direla Donostia Kulturari arlo akademikotik egiten zaizkion eskariak. 2019an, Europa, Ipar Amerika eta Japoniako unibertsitateetako ikertzaileei erantzun zitzaie, gure hirian garatutako kultur politikak eta eraldatze-prozesuak aztertzen ari baitira. DK-ra iritsi den azken proposamenetako bat Utrecht-eko Unibertsitateetik etorri da, gure erakundeari eman baitio begia, hango ikasleek ikerkuntza-proiektuak hemen egin ditzaten, nola egiten baitituzte Washington, Bogota, Malaysia edo Shangain.



Sorkuntza bultzatzea eta babestea lan-ardatz bete eta emankorra izan zen 2019an. Zeharkakoa da helburu hori, eta ia etxe honetako sail eta jarduera guztietara zabaltzen da: dantza, antzerkia, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, komunikazioa... hainbat proiekturen forma hartuz (egoitzaldiak, diru-laguntzak, lantegiak, tutoretzak, ekipamendu tekniko espezializatuak dituzten guneak, geure komunikabideak -esate baterako, irrati berria-, esponsorizazioa, bitartekaritza, kultur produktu berriak sortzea...) Ondoren, hona hemen horietako batzuei buruzko xehetasunak:



Museo Bikoitza, Ibon Aranberri

KULTUR EKINTZA

ARTE ESZENIKOAK ETA MUSIKA

Dantza

- Egoitzaldi profesionalak (proba-saioak eta emanaldiak) 6 proiektu
- **Dantza inklusiboa: Lasala Danza konpainia / Maylis Arrabit, Kolore kolektiboarekin**
- **Cielo raso dantza-konpainia**
- **Denis Santacara dantza-konpainia**
- **Dantzategia: Dantzas konpainia / Claudia Lavista (Mexiko)**
- **Iceberg (dantza eta argazkia): Myriam Pérez Cazabon / Nagore Legarreta**
- **Luz: Lasala konpainia**
- Bertako talde amateurren dantza-erakustaldiak 2 erakustaldi
- **Dantza-konpainien erakustaldia Olatu Talkan (430 ikasle)**
- **Sevillanen jaialdia**

Antzerkia

- Egoitzaldi profesionalak (proba-saioak eta emanaldiak) Proiektu bat
- **Tak bat, ATX teatro**
- Sorkuntza-lehiaketa: 1
- Bertako sortzaile amateurren emanaldiak: 45 emanaldi
- **Ikastaroetako taldeek egindako lanen erakustaldiak**

Musika ¹

- Egoitzaldi profesionalak (proba-saioak eta emanaldiak) 2 proiektu
- **Willis Drummond**
- **Niña Coyote y Chica Tornado**
- Musikagela (saio-aretoen erabiltzaileak): 56 talde/bakarlari
- Bertako sortzaile amateurren kontzertuak 45 kontzertu
- ¹Eszenaratzeko puntuak: Bost jaialdi + kultur etxeetako aretoak + Donostiako ostatu-aretoak

IRUDIA, SOINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Irudia ²

- Produkzioak: 10
- **Film laburrak**
- Koprodukzioak 21
- **Film laburrak / Dokumentalak**
- Media-lab-ak: 3
- **Fagoaga dokumentala**
- **Olatu Talkarentzako pilulak**
- **"Higos" websaila**
- Lankidetzaren proiektuak 1
- **Musikene**

¹ Eszenaratzeko puntuak: Geure jaialdi bat + Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekiko lankidetzaren bat + zabalkunde-lanak beste zinemaldi batzuetara

Argazkiak

- Sorkuntza-lehiaketa: 1
- **Naturako argazkien rallya**



Irratia ³

- Irrati-programak ikastaroan zehar (lantegiak) 10 irrati-programa
- Irrati-antzerkiko lanak: 2 lan
- Sorkuntza-lehiaketa: 1
- ³ Lan-plataformak: DK irratia + webgunea (irratia digitala) + podcast-plataformak (irratia nahieran) + beste irrati batzuekiko sarea (Arrosa Sarea)

LITERATURA

Produkzioak: 3 Korner kontakizun:

- **Cogerse a las gashinas**, Martín Caparrós
- **Futbola iraganean gertatzen da**, Aritz Gorrotxategi
- **Etxeberria decide**, Galder Reguera

ARTE PLASTIKOAK

Muralak sortzeko proiektuak: 2

- **Loiola apain**
- **Harri berriko horman esku hartze kolektiboa**

KULTUR ETXEETAKO ERAKUSKETAK

bertako sortzaileekin elkarlanean egindakoak: 33

PRESTAKUNTZA KULTUR ETXEETAN

185 lantegi bereziki sorkuntzara zuzenduak (espezializazio-mailaren, lantegiak emateko tokiaren eta adinaren arabera banatuak)

ZINEA

1 Lehen deialdia gazteek fantasia-generoko ikus-entzunezkoak euskaraz sortzea sustatzeko. **Oihua!**, Larrotxenen.

SAN TELMO

- Arte-interbentzioko programa: 1
- **Museo Bikoitza**, egoitzaldi-programa, Ibon Aranberri, 2019.
- Museoarentzako edukiak eta ikus-entzunezko elementuak bertatik sortzeko eta ekoizteko apustua: erakusketa eta bideoak.
- **Heriotza. Ante la muerte**
- **Artzaintzarekin** lotutako lan-ildoak, Museoaren ekinbidea.

ANTZERKIA ETA DANTZA

- Sorkuntza bultzatzeko programak: 2
- **Dramaturgia Berriak programa**, antzerki-testuak sortzea bultzatzeko.
- **Kimu**, haurrentzako antzerki-autoheziketara
- Hemengo sorkuntza atzerrian bultzatzeko: 1, dFeria ABROAD
- 1. **MAPAS**, Hego Atlantikoko Arte Performatiboan Merkatua, Tenerifen, Kanariar Uharteetan. **Amour, Marie de Jongh Taldea (teatro)**.
- 2. **MID**, Brasiliako (Brasil) Nazioarteko Dantza Mugimendua. **Jardín de invierno, Cielo Raso Dantza**.
- 3. **DOM KULTURY 13 MUZ**, Kontrapunkt Festival, Szczecin-en (Polonia). **Oskara, Kukai Dantza**.
- Koprodukzioak: 4
- 1. **Marie Antoinette**, Malandain Ballet Biarritz.

2. **Harri orri ar / El patio de mi casa**, Pez Limbo

3. **Zaldi urdina**, Artedrama + Axut! + Dejabu Panpin Laborategia

4. **Utzi zure mezua seinalearen ondoren / Deje su mensaje después de la señal**, Tanttaka Teatroa

- Donostia Antzerki Saria:
- **Sherezade eta tipularen azalak**, Vaivén Teatroa, Donostia Antzerki Saria 2019

- Euskara Zerbitzuak eta Victoria Eugenia Antzokiak egindako proiektua. Euskarazko produkzio irabazleari 12.000 €-ko laguntza ematen zaio; beste bi emanaldi programatzen dira, eta produkzio- eta publizitate-kostuak ordaintzen.

- Haurrentzako antzerkia sortzeko laguntza, **KIMU** eta gisa horretako prestakuntza-proiektuen bidez.

- Laguntza euskal antzerkigintzari, **Antzerkigintza berriak** proiektuaren bidez.

- Zenbait emanaldi-programaziori eta bestelako proiektu batzuei eusten zaie hilabetez hilabete eta urtez urte, sorkuntzarekin lankidetzan jardunez guneak lagatzearen eta bestelako laguntzen bidez, eta abar.



ZINEA

SORKUNTZARI LAGUNTZEKO PROIEKTUAK

- Laguntza literatur sorkuntzari:
V. Fanzine Bataila
Literatur eta adierazpen-sorkuntza bultzatzea, beldurrezko generoa aitzakiatzat hartuta.
- **Nosferatuko liburuak** Nosferatu zine-ziklo bakoitzean, zikloaren osagarri diren liburuak sortzen dira, eta Euskadiko Filmategiarekin batera argitaratzen. Liburuok ziklorako bonoa erostean ematen dira, eta horrez gainera beren bidea egiten dute merkatuan.
- Geuk ekoiztitako erakusketak, fantasiako komikia lantzen duten marrazkilari gazteak bultzatzeko.
- **Euskadi Fantastikoa.**
- 20 urtez **hitzarmena Kunsthal-ekin** (Goi-mailako Diseinu Zentroa)
- **Antzoki Zahararen aurrealdearen diseinua sortzea, diseinu eta eskaparatismoko ikasle eta irakasleekin.**
- **Laguntza sorkuntzari: Oihua!**
- Beste erakunde batzuekin batera (Larrotxene, Film Comission Gipuzkoa eta Gaztea) sorkuntzari laguntzeko egindako ekinbidea, euskarazko beldurrezko film labur baten errodajea bultzatzeko.

SARIA IKUS-ENTZUNEZKOEN SORKUNTZARI

Giza Eskubideen Zinemaldia: 1

- Gazte Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari, 3.000 €
- Epaimahai Gaztearen Saria Film Labur Onenari

Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea: 5

1. **Ikusleen Saria Film Labur Onenari**, 1.000 €. Premio del Público al Mejor Cortometraje.
2. **Gazte Epaimahaiaren Saria Film Labur Onenari**, 1.000 € Premio del Jurado Internacional al Mejor Cortometraje.
3. **Ikusleen Saria Animaziozko Film Labur Onenari**, 1.000 €. Premio del Público al Mejor Cortometraje de Animación.
4. **Ikusleen Saria Espainiako Film Labur Onenari**, 1.000 €. Premio del Público al Mejor Cortometraje Español.
5. **Syfy Saria Espainiako Film Labur Onenari**, 3.000 €. Premio Syfy al Mejor Cortometraje Español.

MUSIKA

- Jazz musika haurren artean sustatzeko proiektua:
Txikijazz Big Band

- Txikijazz Big Band 2019: 45 kide, kontzertua: 2019ko ekainaren 28an.

- Big band-en kudeaketa eta antolaketa, musika-prestakuntza, Txikijazz jaialdian emanaldi bat programatzea. Donostiako Udal Musika Eskolarekin batera egindako programa.
- Laguntza bertako musikariei:
- **Bertako musikariak hautatzeko prozesua eta Heineken Jazzaldiaren programan sartzea.**
- **Gure ahotsak:** programa berezia, 2018an sortua Emakumearen Nazioarteko Egunaren (martxoaren 8aren) bezperan egiteko. Emakume sortzaileen talentua azpimarratzen du, eta leku egiten die haiek lanean darabiltzaten hizkuntzei (euskara, espainiera, ingelesa, eta abar).
- Proiektu bereziaren sorkuntza: ziklo japoniarra 54. Heineken Jazzaldian: Yamamoto Trio+ Easo Abesbatza.
- **Laguntza Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean edo Heineken Jazzaldian sortutako eta aurkeztutako disko edota musika-proiektuei.**
- Olatz Salvador, *Zintzilik* diskoa (2018), biraren amaiera Victoria Eugenia Antzokian.
- Sonakay, diskoaren aurkezpena Victoria Eugenia Antzokian.
- **Gure Ahotsak 2019an izan ziren:** Izaro + Elena Setién + Olatz Salvador + Sara Mansilla Azken hori, gainera, 54. Heineken Jazzaldiaren programan sartu zen.
- Urteurreneko kontzertua:
Alos Quartet, 20 urte.
- Disko berriaren aurkezpena: Eñaut Elorrieta, **Irteera argiak.**
- Laguntza bertako taldeei, berriki sortutako errepertorioa osatzeko:
- **Hot Potato Blues.**
- **Xahu.**
- **Nacho Soto: Experiment 64.**



Zaldi Urdina, Artedrama + Axut! + Dejabu Panpin teatroa



Donostia Kulturak bide luzea du egina askotariko ikus-entzuleak eta kolektiboak aintzat hartzen dituzten gizarte-ekintzak garatzen: Hasi ikuskizunetarako sarreren deskontuetatik, eta zerbitzu berezietaraino, hala nola liburutegietako mailegu doakoa... Lana erakundeko arlo guztietan garatzen da, horizontalki, eta honelako alderdietan: emakumea, gizarte-inklusioa, osasuna hirugarren adinean, kulturarako irispidea edo euskarari emandako laguntza.

KULTUR EKINTZA ETA GIZARTE- EKINTZA BATERA

Kultur etxeetan, ohiko **Plus 55ez**, **Gaztelekuaz** eta **Haurtxokoaz** gainera, denetan baitaude, konpromisoa / laguntza eskaintzen duten dinamikak egiten dira, zeinetan auzotarren sarea eta tokiko elkarte/kolektiboen ehuna indartzea bultzatzen baita.

EGIA K. E.

Kultur etxe hau erreferentea da auzoan era guztietako dinamikak eta jarduerak egiterakoan. Direla jaiak, zine-foruma, Euskararen eguna, zeinu-hizkuntzaren lantegiak, zurrumurru arrazisten aurkako lantegia... edo dela auzoko elkarterik enblematikoenetako bati, DANDAIri, agur esateko eta buru emateko bilera. Inguruko ehunean sortutako proiektuei emandako laguntza ezinbestekoa da.

Gazteentzako zerbitzuan, Gaztelekuan, besteak beste, **Gau Beltza** belaunaldi arteko jarduera nabarmendu zen, Plus 55 eta Liburutegiarekin batera antolatua.

CASARES – TOMASENE / LARRATXO KULTUR ETXEA

Kultur Etxe honetako gizarte-lan garrantzitsuenetako eta nabarmenetako bat **Altzako Tokiko Bildumaren** inguruko lana da, zeinak 17.690 dokumentu baititu katalogatuta. Horiei esker, auzoko oroimen historikoa berreskuratu eta eutsi egiten zaio.

Gainera, Kultur Etxeak elkarlanean jardun zuen auzoko zenbait elkarterekin, eta Emakumeen Astea edo XVIII. Bertso Aroa hartu zituen.

ERNEST LLUCH K. E.

Kultur Etxe honen kasuan, letrak baititu espezialitatea, nabarmentzekoa da 2019an **Aztarnaken** sartu zela, Plus 55eko pertsona nagusientzako kontakizun laburren lehiaketan, zeina Okendo K. E.an jarri baitzen martxan, 2017an. Orobat, **Aztarnak Kluba** ere jarri zen martxan. Lehiaketan parte hartu zutenak bildu zituen beren kontakizunak irakur zitzaten (maiatzean), arrakasta handiz bildu ere.

AIETE K. E.

Giza Eskubideak dira lan-ardatz nagusia Kultur Etxe honetan. 2019an. plastikoaren erabilerari buruz sentsibilizatzekeo proiektuari ekin zion, **Tantz tanta ozeanoaren** eskutik, Haurtxokoan. Parte-hartzaileak motibatzekeo gaitasunagatik, nabarmenetako bat izan zen



PUSH, cine documental. C.C. Atza



LUGARITZ K. E.

Kultur Etxe honen berezitasunetan bat, hain zuzen ere Merkatua kudeatzen egiten duen lana da, auzoko elkarten sareari eskainitako gunea. Lan horren balio soziala oso estimatua da.

2019an, gainera, jarduera batzuk nabarmendu ziren haurrentzako liburutegian, Agifes kolektiboaren eta *Igandeak Dantzanen* eskutik. Plus 55en eskutik, berriz, iganderoko dantzaldia 55 urtetik gorakoentzat, adin horietako auzotarren talde-sentimenduari eta osasunari eusteko.

LOIOLA K. E.

Loiola Kultur Etxeko berezitasunetako bat auzoa osatzen duten elkarte eta eragileen sarearekin duen hurbiltasuna da. Erakusketak, jaiak, proiektzioak solasaldiak, lantegiak, afariak eta abar egin ziren hainbat elkarteren eskutik; besteak beste: **AGIFES, AGISAS, IRESGI, Emaus Fundazioa, UBA-Ametzagaina Fundazioa, AGIAC, Bihotzez, Batera 2030, Bizi Bide, Secretariado Gitano elkarte, Esnearen Liga, Baketik, EHU-Arte Ederrak, GIELMAR, Passikudah Bizirik, Kalapie, Haritzalde... eta beste udal sail batzuekiko lankidetzaren bitartez.**

INTXAURRONGO / LARROTXENE K. E.

Intxaurrondori dagokionez, Aieten bezala, **Tantaz tanta Ozeanoa** proiektuak arrasto handia utzi zuen Gaztelekuko eta Haurtxokoko parte-hartzaileen artean. Ekologiari buruz sensibilizatzeko proiektua, Greta Thunberg ikur duen mundu osoko gazte-mugimenduariekin bat egiten duena.

OKENDO K. E.

Aipamen berezia merezi du Okendok urtean zehar auzoko elkarte eta eragileekin izan duen lankidetzak, batez ere auzoko festetan, non jarduera sorta zabala eskaintzen baitu (San Juan eta Santo Tomas eguneko kontzertuak, eta abar). Ahaztu gabe bertako artistekin zenbait aretotan egin ziren kontzertuak eta poltsiko-antzerkiak.

OLATU TALKA SOZIALA

Olatu Talkak, hamargarren eta azken edizioan, gaurkotasun biziko programei ekin zien:

- **Ingurumenaren zaintzaren, itsasoaren osasunaren eta gizarte-gaien** inguruko jarduerak: ***Itsas Zaborra out, Por la Salud de nuestros mares, Ondarreggae*** eta naturaren inguruko solasaldiak eta pasealdiak (besteak beste)
- **Kultur aniztasuna:** Ongi Etorri Eskolarak antolaturiko topaketak kulturen arteko ezagutza eta migrazioaren gaia jorratu zituen, *Gure oinek mundua mugitzen dute* goiburutzat hartuta. Bestalde, Caritasek Hiria eraikitzen jarduera garatu zuen, eta gizarte-bazterketaren kontrako ekintzak burutu zituen.
- **Kalean Bizi:** Jaialdiaren ardatz nagusietako bat (espazio zabaletan egindako dinamikek osatua). *Book Box, Oikocredit* edo *Cycling without age. Irudigileak* ekinbideak ere -emakume ilustratzaileen lanen erakusketa, Egiako pasabidean ikusgai jarria (hiriko puntu kritikoetako batean)- oihartzun handia eta arrakasta izan zituen jaialdian.

KORNER ETA EMAKUMEEN FUTBOLA

Emakumeen futbolaren paradigmatari heldu zioten bigarren edizio honetako solasaldi batean, zeinean **Vero Boquete, Nahikari Garcia, Aintzane Encinas** eta **Olga Vizak** luze eta zabal jardun baitzuten emakumeen eta gizonen arteko futbolen arteko aldeez, eta kirol honetan emakume izateak duen esanahiaz. Jardueran, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoko **aulki guztiak bete ziren**. Solasaldiaren osagarri, **kale-erakusketa** bat, emakumea eta futbola gaitzat hartuta: ***Emakumeek ere jokatu egiten dute / Ellas también juegan.***

ANTZERKIA ETA DANTZA, GIZARTEAREN ISLA

Antzerkia EUSKARAZ

- Antzerki eta Dantza Unitateak euskarazko antzerki programatu ohi du helduentzat urte osoan zehar (Euskadin dagoen gisa horretako programazio bakarra).
- Gainera, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean jarduten du **Donostia Antzerki Saria** ematen eta programatzen, euskarazko sorkuntza sustatzeko (helduentzako).
- Orobat, euskarazko ikuskizunak ekoizten ditu (esate baterako, **Zaldi urdina**).
- Laguntza euskal antzerkigintzari, **Antzerkigintza berriak** proiektuaren bidez.



Haurrak eta Gazteak

- Laguntza **Gazteen Antzerki Topaketei**, zeinak Gazteria Departamenduak antolatzen baititu.
- Zabalkundea eta sentsibilizazioa ikastetxeetan, **Eskolatik Antzokira** programaren bitartez.
- Haurrentzako antzerki eta dantzaren urte osorako programazioa.
- Haurrentzako antzerkia sortzeko laguntza, **KIMU** eta gisa horretako prestakuntza-proiektuen bidez.
- **Ordu Gaztea** Ikuskizun bakoitza baino 30 minutu lehenagotik aurrera, sarrera 3 € merkeagoa da 30 urtetik beherakoentzat.
- **Prezio berezien** politikak gazteenei zuzendutako ikuskizunetan; esate baterako, *Iron Skulls* Coren emanaldian.

Emakumea

- Emakumeek arte eszenikoetan egindako sorkuntza- eta zuzendaritza-lana agerian jartzea, ekintza positiboa irizpidetzat hartuta. Esate baterako, **Simone, El Lunar de Lady Chatterley, Una habitación propia** eta gisa horretako ikuskizunak programatuz
- Emakumeek jasaten duten gehiegikeria salatzen duten ikuskizunen programazioa; esate baterako, **La casa de la llave**.
- Laguntza **dFERIA**ren edukien bitartez, oro har, eta leiti motivaren bitartez, bereziki.
- **Dantzarako eta antzerkirako sentsibilizatzeko** programen bitartez.

Beste gizarte- eta ingurumen-arlo batzuk

- Ikuskizunak gizarte- edo ingurumen-gaiei buruz salaketak egiteko edo sentsibilizatzeko bitarteko gisa erabiltzea, hala nola boterea, migrazioa, mugak, elbarritasuna, nola eta **Lehman Trilogy, Copenhagen, Prostitución** eta beste lan batzuen bidez.
- **Berdintasunaren alde** lan egitea gizatalde babesgabeekin; esate baterako, elbarriekin, **Verdini**rekiko edo **Koloreak** kolektiboarekiko lankidetzan.
- Laguntza **dFERIA**ren edukien bitartez, oro har, eta **leit motiv**aren bitartez, bereziki.

Zine sozialagoa

Zine-unitateak elkarte eta kolektiboekin lan egin zuen 2019an, ikus-entzunezkoak erabiliz kontzientziatzeko, mezuak transmititzeko edota praktika pedagogiko gisa. *Gizarteari ezikusit egiten ez dion zinea*.

- ATZEGLren ikasturte-amaierako gala. Begiradak zinemaldia.

Itsaspeko Zinemaren jaialdia.

- **Giza Eskubideen Zinemaldia:** Zenbait saiotan, filmak **azpidatzi egin ziren gorrentzat**, eta **zeinu-hizkuntzara** itzultzen ziren solasaldiak egin ziren. Audio-deskribapena zuten zenbait saio egin ziren, halaber (pertsona itsuentzat), ONCerekin lankidetzan.
- Urtero, **Bideak Zabalduz Galan** laguntzen dugu, zeina zenbait elkartek antolatzen baitute.
- **Festival de Arte en Signos / Arte Jaialdia Zeinuz**, zeina *Manos K Rienek* antolatzen baitu urtero Antzoki Zaharrean, udazkenean.

KULTURA EUSKARAZ

- **Gure ahotsak:** musika-hitzordua bertako emakume sortzaileei laguntzeko, non norberak hautatutako hizkuntzan kantatzeko askatasuna gehitzen baitzaio generoari; besteak beste, euskaraz. 2019an, Izarok parte hartu zuen euskaraz.

- **Genero tradizionalak berreskuratzea:** 2019an, emanaldi batek agerian utzi zuen gure musika- eta folklore-tradizioko generoak berreskuratzeke saioa. **Lurpekariak** taldea 2015ean sortu zen zenbait urtetan ikasten eta esperimintatzen jardun ondoren, eta historiaren ikuspegi lineala irauli eta kantu tradizionalen inprobisazio librea eskaintzen digu. Taldearen emanaldiak agerian jarri zituen sekretu berriak Euskal Herriko, Afrikako eta New Orleanseko arbasoen arteko solasean, eta oraingoan inprobisazio-osagarria gehitu zion horri: Sustrai Colinaren bertsoak.

- **San Telmo euskaraz:** 2019an, zehar-lerroa indartu zuen, zeinak euskara indartzea baitu helburutzat, kultura-ondare berezia den aldetik. Xede horrekin, zenbait jardueraprograma izan ziren, hala nola familientzako, zeinean jarduera gehienak euskaraz izan baitziren, edota artzaintzaren mundua ikusgai jartzera bideratutako batzuk.

- **Zinema euskaraz:** Jaialdi eta ziklo bakoitzean, Zine Unitateak film azpidatzi batzuk eskaini ohi ditu. Gainera, Nosferatu ziklo bakoitzaren barruan, liburu bat argitaratu ohi da hizkuntza horretan.



Eta dena ez da gertatzen areto barruan. Jaialdiekin batera izaten diren jarduera batzuk euskaraz egiten dira, hala nola **Zinemapelmak**, Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Astean. 2019an, **Oihua!**ren sorrera nabarmendu zen, beldurrezko film labor bat euskaraz sortzen laguntzeko programa

- **Euskaraldia:** Nork bere euskarari bultza egiteko proiektuak jarraitu egin zuen 2019an, eta Donostia Kulturaren modu kolektiboan garatu zen, kultur etxeetako ariguneen bitartez.

SAN TELMO ETA KULTURAREN ZABALKUNDE DIDAKTIKOA

Ikastetxeekiko hurbiltasunari esker, Museoak 2018an martxan jarritako **hezkuntza-buletinek** 400 harpidedun dituzte dagoeneko, eta gainera **irakasleentzako jarduerak** antolatu ditu: zerbitzu akademikoen proiektuen aurkezpenak, genero-ikuspegiak eskolan duen presentziari buruzko gogoetak, ahotsa irakaskuntzan, *Dolugela*, *Artsformers*, eta abar. Horiek guztiak topagune eta hezkuntzarako gogoetarako gune bihurtzen dute Museoak.

FESTAK UNITATEA

- Olentzero eta Mari Domingi: Lehen aldiz, desfilean ez zen izan animaliarik.

- Beste kolektibo batzuentzako baimenen kudeaketa: Festak Unitatetik, behar ziren baimen eta zerbitzuak kudeatu ziren hainbat kolektibo eta elkarterek proposatutako jarduerak kalean egin ahal izateko, eta hartarako behar ziren azpiegiturak eskueran jarri eta muntaketak koordinatu ziren.

KONTZIENTZIA EKOLOGIKOA

Ingurumenaren aurrean duen erantzukizunaren parte gisa, Donostia Kultura **DK BERDEA** konpromisoa ari da garatzen, gizartea klima-aldaketa dela-eta kontzientziatzeko, kultur eskuduntzei erantsitako ardatz gisa. Konpromiso hori zenbait ekintzaren bidez gauzatzen da: espazioen barne-kudeaketan, ekitaldien bidez eta zenbait ekintzaren bidez egiten den kontzientziazio-lan aktiboaren bidez:

Barne-kudeaketa:

1. Materialak berrerabiltzea (papera, eta abar), pitxerrak erabiltzea eta iturriko ura erabiltzea aurkezpen publikoetan eta antzokiko kamerinoetan.
2. Bonbila arrunten ordez led argiak jarriz joatea kultur etxeetan.
3. Egia eta Larratxo Kultur Etxeetan, eguzki-panelak ipini dira.
4. Marketina digitalizatzeko bidean goaz (**107.840** lagun daude izena emanda **DKren buletin digitaletan**, eta **400** San Telmoko **hezkuntza-buletinetan**, esate baterako).



Por la salud de nuestros mares, Olatu Talca 2019



5. San Telmo alta emanda dago Hondakin Ez Arriskutsuen Produkzioaren erregistroan, eta egina du Ingurumena Hobetzeko Plana, honako xede hauekin: paper birziklatua erabiltzea, gaikako bilketarako edukiontzia jartzea eta papera gutxiago erabili eta gas gutxiago kontsumitzea.

6. Victoria Eugenia Antzokiko Donostia Kulturaren bulegoetan, Konstituzio Plazako eraikinarenetan eta kultur etxeetan, zaborren bilketa selektiboa egiten da, eta desagertu dira edukiontzi indibidualak; gaikako edukiontzi komunak baino ez dira erabiltzen.

Kanpo-jarduketa:

1. Edalontzi biodegradagarriak erabili ziren 2019ko Glad is the Day-n, Musikagela Weekend-en, Intxaurren K. E.n (betidanik) eta laster erabiliko dira 2020ko Musikagela Fest-en ere. Bestalde, Olatu Talkan 2016tik erabili izan diren edalontziak konpostagarriak ziren.

2. Gero eta paper gutxiago erabiltzen da jaialdietan; sare sozialei ematen zaie lehentasuna.

3. Sorgailuak gutxiago erabiltzea kale-jardueretan (antzerkia, dantza...), eta udal sare elektrikoan konektatzea; esate baterako, dFERIA eta Olatu Talkan.

4. Heineken Jazzaldiak iraunkortasun-plan bat du Ingurumena errespetatzeko, herritarrak kontzientziatzeko estrategiak hondakinak bereizteari eta ingurua garbitzeari, garraio publikoa indartzeari eta abarri dagokienez

Heineken Jazzaldiak Erronka Garbia agiria jaso zuen 2019an, Jaialdiari ekitaldi iraunkorraren izaera aitortzen diona, eta IHOBek (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurugiroaren Kudeaketarako Elkarte Publikoak) emana.

5. Kanpoko soinu-kutsaduraren neurketak, ahal den neurrian zarata gutxitzeko.

Sustapena eta kontzientziazio aktiboa:

1. Bibliografia berezia liburategietan.

2. *Tantaz Tanta Ozeanoan* programa 2018ko azarotik 2019ko maiatzera egindako proiektua da, zeinean ingurumenaren zaintza landu baita, eta, batez ere, itsaso eta ozeanoena, haurtxoko eta gaztelkuetan. Proiektuaren oinarria izan da itsasoak giza jarduerarengatik hondatzeari buruzko gogoeta; ingurunean ekintza zuzenak sortzea eta gauzatzea (plazak, hondartzak, ibaiak... garbitzea);

eta populazioa sentsibilizatzea (kontzientziazio-ekintzak saltoki handietan, iragarkiak sortzea, erakusketak espazio publikoetan...). Proiektua Hezi Herb elkarteak kudeatzen dituen programa eta zerbitzuetan eginda; besteak beste, Donostiako haurtxoko eta gaztelekuetan. Guztira, zazpi haurtxokok eta lau gaztelekuk hartu dute parte. Batetik, Aiete, Amara, Bidebieta, Egia, Gros, Intxaurren eta Martuteneko haurtxokoek; bestetik, Amara, Egia, Gros eta Martuteneko gaztelekuek.

3. San Telmo eta bere ekimen bat, Agora K2050, Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean, zeinaren bidez ingurumenarekin eta klimaren larrialdiarekin loturiko hitzaldiak eta saioak antolatu baitira.



DK Irratia

Donostia Kulturak zenbait une gogoangarri bizi izan zituen 2019an, erakundearen Komunikazio eta Irudiaren ikuspuntutik.

DONOSTIA KULTURA IRRATIA, 24 ORDU 107.4 FM-EN

2019. urtean, Casares Irratia beste urrats bat egin eta **Donostia Kultura Irratia** bihurtu zen. Hartara, erakundeak beste kultur eta komunikazio-leiho bat du hemendik aurrera.

Horretarako, zituen bitarteko teknikoak hobetzeaz gainera, programazioa indartu zuen **Bestalde** kultur magazin egunerokoaren bitartez, zeina Ion Olano Carlos kazetari donostiarrek aurkezten baitu,

Donostiako kultur programazioa ardatz nagusitzat hartuta.

Irratia lantegi gisa sortu zen duela 30 urte, Donostia Kultura erakundeak jaiotzearekin batera. Hemendik aurrera ere prestakuntza-leku izaten jarraituko du soinu-tekniketan eta komunikazio mintzatuan, eta, beti bezala, estudioak herritarren zerbitzurako izango ditu. Eta dinamika parte-hartzaileekin jarraituko du, hala nola *Hamaika entzuteko!* irrati-piezen lehiaketarekin, zeina bosgarren ediziora iritsi baitzen 2019an.



Lehiaketa horren helburua irratirako fikzio-pieza labur eta originalen produkzioa eta zabalkundea dira, eta nabarmentzekoa da 2019an % 32,5 emendatu zuela parte-hartzea, 2018an aurkeztutako 29 piezetatik 43 aurkeztera pasatu baitzen. Lehiaketak sorkuntzaren aldeko apustua egin du, eta gero eta arrakasta handiagoa du urtetik urtera.

Irrati digitala nahieran arloan, DK-k, **podcast** zerbitzua eskaintzeaz gainera, hitzaldiak, aurkezpenak, soinu-emankizunak eta abar eskaintzen ditu, noiznahi irispidean denak ere. Herritarrek kultura nahieran kontsumitzeko plataforma berria, doan.



DK Webguneak

WEB PARTIKULARRAK

2019ko San Sebastian egunean, Donostia Kulturak web bat jarri zuen martxan, **danborrada.donostiakultura.eus**, nondik pausoz pauso jarraitu ahal izan baitzen Donostiako jai nagusiko danborrada-talde bakoitza, haren informazio historiko osatuena kontatzeaz gainera.

Arlo digitalean betiere, barne-komunikaziorako tresna bat sortu zen, Kontxako Banderako estropadetan parte hartzen zuten elkarteekin.



Ernest Lluch berritua



DK Opari Txartela

IRUDI BERRIA ERNEST LLUCH KULTUR ETXEAN

Urriari berrireki zen Amarako Ernest Lluch Kultur Etxea, gune eta zerbitzu berriekin, eta, hori dela-eta, eguneratu egin zen Kultur Etxeko seinaletika. Liburutegiko 900 metro koadroek, ekitaldi-areto berriak, bost lantegiek eta beste areto balioanitzek irudi berritua duten orain.

DK OPARI TXARTELA

Urtearen hondarrean, Donostia Kulturak **DK Opari Txartela** atera zuen, eskuragarri noiznahi hala leihatiletan nola on-line. Bi eratakoa da, 50 eta 100 €-koa, eta kulturaren transmisioa bultzatzea du asmoa, ospakizunak eta dagozkien opariak kari.

Gainera, azken edizioan **Donostia Kultura Irratia** plataformaren **irudi korporatiboak** sortu ziren, bai eta **Antzerki Sariarena** ere, urtero euskarazko antzerki-lanentzat ematen den sariarena.



Donostia Antzerki Sarria

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA

Donostia Kulturako Komunikazioa eta Irudia atalak Erakundearen irudia kudeatu zuen Donostiako Udalaren markarekin bat eginik, eta **beste 16 kultur atal** bilduz bere abaroen: Victoria Eugenia Antzokia, San Telmo Museoa, Donostia Kultura Festak, Heineken Jazzaldia, Olatu Talka, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea,

dKLUBA, Literaktum, dFERIA, Other Words, Giza Eskubideen Zinemaldia, Musikagela, Casares & DK Irratia, Txikijazz, Larrotxene Bideo eta Korner Festibala.

DK TXARTELA

Lehen mailako komunikazio-aktiboa da txartel hau, eta Donostia Kultura bazkideen kluba **107.840 kide izatera iritsi zen**. Komunikazioa eta Irudia ataletik kudeatzen da, eta kideen kolektibo horren atsegina eta fidelizazioa ezinbestekoak dira Erakundearentzat.

Alde horretatik, 2019an areagotu egin ziren txartelaren abantailak, Chillida Leku Museorako deskontu berriekin eta erraztasunak emanez sarrerak online erosita deskontu horiek kudeatzerakoan. Nabarmentzekoa da, gainera, **25.000 bazkidek** proposamen benetan bereziak jasotzen dituztela **webgunetik**, Donostia Kulturaren kultur eskaintzan parte hartzeko.



Prentsaurrekoa

PRENTSA KABINETEA

Gainera, Prentsa-kabineteak erakundearen komunikazio-beharrak bete zituen, eta honela kudeatu zituen 2019an izandako jarduerak:

- 173 prentsaurreko
- 132 literatur aurkezpen
- 2.158 agerraldi inguru idatzizko komunikabideetan
- 207 gaikako dossier, programa (gonbidapenak, liburuxkak, kartelak...)
- 367 prentsa-ohar
- 257 prentsa idatziko iragarki
- 68 e.buletin bazkideentzat.
- 19 Facebook-kanpaina

DK ONLINE

Donostia Kulturako webgunerako bisitak %18 emendatu ziren, 2.523.887 bisita, aurreko urteko 2.137.906an aldean. Eta donostiakultura.eus webguneak, berriz, zeina erakundearen marka generiko edo nagusia baita, **1.740.000 bisita** izan

zituena. Azpimarratzekoa, halaber, Literaktum (%66) eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea (%51) webguneetan izandako gorakada: **online sarrera-salmentaren gorakadaz gainera, 238.325 sarrera saldu baitziren, hau da, 2018an baino %126,9 gehiago.**

2019an, hemen izan ziren kontsulta gehien:

1. Donostia Kultura agenda Agenda hau izan zen atariaren erakargarri nagusia, hiriko kultur eskaintzarik osatuena biltzen baitu, sarrera-salmentarako atal eta guzti.

2. DK ikastaroak kontsulta eta matrikula
3. Donostiako liburutegien katalogoa
4. Donostiako Aste Nagusia
5. Heineken Jazzaldia.
6. Victoria Eugenia Antzokia.
7. San Telmo Museoa.

Webgune horietara iristeko euskarri dagokienez, **sakelakoen bitarteko** interakzioak gora jarraitu zuen, **eta lehen aldiz bide horrek beste euskarri guztiak** (mahai gaineko ordenagailuak, esate baterako) **gainditu zituen -%52-**, zerbitzu guztietan, batez ere sarrera-salmentari, agenden kontsultari eta abarri dagokienez.

Mobile 784.874 %52
Desktop 644.742 %43
Tablet 72.059 %5

Donostia Kulturak **148.102 jarraitzaile izan zituen guztira sare sozial nagusietan** (hots, %12,4 emendatu da kopurua): 73.918 Twitter-eko kontuetan, eta 52.356 Facebook-ekoetan; 20.066 jarraitzaile Instagram-en, eta 1.762 LinkedIn-en.



DK on-line



DK BAZKIDEAK

DONOSTIA KULTURA kultur

klubaren kudeaketa indartu egin da 2019an. DK txartela duen oro da klub horretako bazkide. Alde horretatik, bi berrikuntza nagusi izan dira: Batetik, **Chillida Leku Museo**arekiko lankidetzari esker, DK txartelaren titular direnek **% 10eko deskontua** dute bai sarreraren prezioan, bai Museoaren urteko saria ordaintzean. Deskontu hori beste erakunde eta kultur programa batzuetan dutenari gehitu behar zaio; esate baterako, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian, Musika Hamabostaldian, Heineken Jazzaldian, Aquariumean, San Telmo Museoan, Dock of the Bay jaialdian, Uda Ikastaroetan, eta abar.

Bestetik, Donostia Kulturak hobetu egin du **ticketing** sistema (sarreraren online salmenta). Prozesua hobetu egin da; orain, tresna zehatzagoa da, erosketa errazagoa, eta erabiltzailearen esperientzia sinpleagoa eta intuitiboagoa. Tresna, gainera, eguneratu egin da, eta eskaintzen duen informazioaren kudeaketa Datu Babeserako Lege berriari egokitu zaio. Eta hori gutxi balitz, sistema berria DK-ren eskaintzatik harago doa, eta ezarria da Kursaal Auditorioan ere, Musika Hamabostaldirako sarreraren salmenten kudeaketan eta Chillida Leku Museoan, zertarako eta erakundeen sare bat sortuz joateko, ingurune erraza eskain dezaten, ziurra eta onuragarria erabiltzailearentzat, sarrerak erosterakoan.

DK BOLETINAK HARPIDEDUNAK

GUZTIRA*	107.018
Hileko agenda	35.500
Zinea	13.182
Antzerkia	13.358
Dantza	6.821
Musika	13.311
Artea	7.251
Literatura	7.282
Festak	7.042
Haurrentzat	4.271

*Bazkideen %0,7ak ez du mezurik jaso nahi.

DK TXARTELA, ZENBAKI ESANGURATSUAK

Urte-amaieran, **107.840 bazkide zituen Donostia Kulturak** (2018an baino 4.272 gehiago), hots, DK txartelaren jabe. Horietatik, % 77 donostiarrak dira, ia % 60 emakumeak, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 19, eta ondoren datoz Gros (% 13), Antigua-Ibaeta (% 11) eta Intxaurren (% 11).

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar guztiei Kulturara sartzeko bidea erraztea; horren adibiderik onena udal liburutegiak dira, oso erabilera handia baitu txartelak liburu-mailegurako identifikatzean, eta abar. Horrez gainera, ikus-entzuleria jakin batzuk fidelizatu nahi dira arte-programari dagokionez. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoaz eta Victoria



+ 100.000 pertsona

Eugenia Antzokiaz, Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurren, Larratxoaz eta Gazteszenaz: DK txartela dute horiek guztiek tresnarik onena txarteldunei informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.

Abantaila guztiak ikusgai daude bazkideen online atalean, zeinaren xedea abantaila gehiago eskaintzea baita. **25.000 lagun** daude **erregistratuta**.







Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:

• Bazkideak guztira: **107.840**

• Bazkideak udalerrriaren arabera:




• Bazkide donostiarrak auzoka: **GUZTIRA 83.341**






• Bazkideak adin-tarteen arabera:




• Bazkideak sexuaren arabera:






• **Bazkideen garapena 2010-2019:**

Urtero izena emandako bazkide berriak:



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:





Argiaren hautsa, Vaivén producciones

ANTZERKI PROGRAMA

Antzoki Zaharrak, Donostiako bigarren antzokia izaki, Victoria Eugenia Antzokikoaren antzeko programazioa du arte-arlo honetan. José Sacristán, Ana Morgade, Santi Rodríguez, Jorge Blass izan ziren han, besteak beste, 2019ko udan; guztira, ehun artista inguru izan ziren. Antzoki Zaharraren programazioaren ezaugarri bi euskarazko antzerkia eta autore-antzerkia izatea dira, **autore hori emakumea da** maiz, eta hartara ikusgai jartzen da emakumeek rol sortzaileetan eta zuzendari gisa egiten duten lana.

Programazioak leku egin die emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerantz bizitzako arlo guztietan egiten diren urratsei. Emakumeen historiak kontatzea, emakume oso garrantzitsuak ikusgai

paratzea gauzak auzitan jartzeko edota, gutxienez, galderak egiteko. *Una habitación propia*, Clara Sanchísekin, edo *Deje su mensaje después de la señal*, Tanttaka Teatroaren eskutik.

Antzoki Zaharra Euskal Herrian den euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular bakarraren zutabe nagusia da, eta badira zenbait urte horretaz arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Kale Nagusiko agertokitik pasatzen dira euskarazko antzerkian dabilzan konpainia gehienak, hala nola Tartean, Txalo, Vaivén, Borobil, Tanttaka... Nabarmentzekoak, **Rita** (otsailean), **Argiaren hautsa** (maiatzean), **Roman eta Julieta** (ekainean) edo **Utzi zure mezua seinalearen ondoren / Deje su mensaje después de la señal**, euskaraz eta gaztelaniaz.



Una habitación propia, Teatro del Barrio

ZINE PROGRAMA

Zinerik sortzaile, konprometitu eta arriskatuena **Antzoki Zaharrean** du bere etxea. Etxe hori da halako ekitaldien osagai nagusietako bat. Izan ere, argi ikusten da hori **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean**, zeinak **30 urte** (*beldurgarriki* modernoak, noski) bete baitzituen 2019an, Antzokia genero horretako zaleen tenplu bihurturik (nahiz eta zinemaldia beste areto batzuetara ere hedatu den). Urtebetetzerako, kartelak ikus-entzuleak eta antzokia jaso zituen argazkian, bi-biak baitira zinemaldiko protagonista handiak.

Donostia Kulturaren zinemaldi hori izanik ere leku horretan enblematikoena, antzokia beste jardura eta zine-gertaera batzuen egoitza ere bada: besteak beste, DK-k 2019an diruz lagundutako Zinemaldiena, hala nola **Dock of the Bay XII** dokumental musikalen zinemaldiaren XII. edizioa, **Nazioarteko Itsaspeko 43. Zinema Zikloa** eta film laburrei eskainitako **Donoskino III**.

Bang Bang Zinema Antzoki Zaharretik bereizi ezin den harribitxi bat da, jendeak beti-beti betetzen baitu aretoa, zine mitikoenaren aldeko esperientzia kolektiboaren bila, giro eta parte-hartzerik onenean.

FICA jaialdia ere, lotura estukoa zenbait kirolekin, bigarren urtez etorri zen, Zinea eta Atletismoa goiburutzat hartuta, eta **SAIL IN** lehen aldiz iritsi da Donostiara, begia nabigazioaren munduan ipinita. Sendotuago daude Zineari eta Mendiari eskainitako **Menditour** saioak. Eta **Korner, kultura&futbol** **festibala** delakoan, berriz, zineak leku nabarmena izan zuen bigarren edizioan ere, bi film handi eskaini baitziren.

Antzoki Zaharrak hirugarren aldiz hartu du **Begiradak** lehiaketaren amaierako gala, zenbait kolektiboren zine amateurrari eskainia, bereziki gazteenei. Etorrizuneko ikus-entzule eta sortzaileekiko lan hori egiten da, halaber, **Euskara Zine Aretoetara** programan ere. Tinkorekin itundutako programa da, eta milaka ikasle jartzen ditu pantaila handiaren aurrean ikasturte osoan zehar.

Azkenik, gogoratu nahi dugu helburu gisa edota beren mezua hedatzeko asmoz ikus-entzunezkoa erabili duten beste kolektibo izaera sozialagoko batzuei ere lagundu zaiela: **Atzegi, Bideak Zabalduz** ekinbidea, **Manos ke rien** eta **Emakumeen Etxea** (VIII. Jardunaldiak Emakumeek egindako Zinemaz: Zinegile argentinarrek). **Zinegoak** zinemaldiak Donostiaraino luzatu zituen besoak Ehtagam eta Gehituren bitartez, eta azken elkarte horrek omenaldi-erakusketa

antolatu zion **Almodóvarri** Donostiako Zinemaldian, San Jeronimo kaleko gure aretoan.

MUSIKA PROGRAMA

Musikak leku gutxiago izan zuen antzerki-programan, baina urtean izan ziren bost musika-ekitaldiak ere oso bereziak izan ziren: Rafael Berriok, ezinbesteko artista Donostiako musikan, *Niño futuro* aurkeztu zuen, bere azken lana, sakona eta lazarria. Urtearen amaieran (abendua 30ean), Cante Flamenkoko Lehiaketak pasioaren arrastoak utzi zituen agertoki tradizio handiko honetan.

KULTUR EGOITZA

Donostia Kulturaren programak ez ezik, Antzoki Zaharrak hartu ohi ditu beste kultur ekitaldi eta jardura batzuk ere. Alde horretatik, kokapena, edukia eta egokiera kontuan harturik, gogokoenetako bat da zine-jarduerak egiteko asmoa duten kolektiboentzat.



Nazioarteko Itsaspeko 43. Zinema Zikloa



Dock of the bay 2019



PROGRAMA

IKUSKIZUN MOTA

EKITALDI KOPURUA*

IKUSKIZUN MOTA	EKITALDI KOPURUA*
GUZTIRA	54
Musika	5
Zinea	21
Antzerkia	28

*Ekitaldien izenburuak hartu dira kontuan, ez bakoitzaren emanaldi kopurua.

EGOITZA: 6

Antzoki Zaharrak hartu zituen beste 6 kultur ekitaldi eta jarduera batzuk.

Urteko programa

Bang Bang (Urteko programa. Zine-emanaldi bikoitzak larunbatetan) (zinea)

Urtarrila

7/12

Dock of the Bay (dokumental musikalen zinemaldia, urtarrilaren 7tik 12ra, 11n eta 12an Antzoki Zaharrean) (egoitza) (zinea)

16

(San) Sebastianen Martxa
Film laburra (zinea)

Otsaila

2

Hamaika amaren seme
(alaba) (antzerkia)

3

Bertso Derbia, Korner,
Kultura & Futbol festibala
(bertsolaritza) (antzerkia)

4/10

Korner (4tik 6ra zinea eta
beste ekitaldi batzuk Antzoki
Zaharrean) (zinea)

8, 9

Rita (antzerkia)

Martxoa

4/6

Zinegoak (zinea)

6

Antzerkiz&Pabellón (antzerkia)

9

Los cuernos de don
Friolera (antzerkia)

22

Bideak Zabalduz gala (zinea)

Apirila

12

Mendebaldeko Sahararen
aldeko kontzertua (zinea)

5/12

Giza Eskubideen Zinemaldia (zinea)

20

Tak bat, ATX teatroa (antzerkia)

25/28

El cavernícola (antzerkia)

Maiatza

2

Musika eta dantza eskola (musika)

8, 9

Mendi Tour, zine eta mendi jaialdia (zinea)

10, 11

Una habitación propia (antzerkia)

17, 18

Sail in Tour Festival, belari
buruzko zinemaldia (zinea)

Maiatzak 21 / ekainak 22

Gazteen XXXI. Antzerki
Topaketak (antzerkia)

22

CvCephoto (zinea)

24, 25

Argiaren hautsa (antzerkia)

Ekaina

13/16

Roman eta Julieta (antzerkia)

Abuztua

1/4

Señora de rojo sobre
fondo gris (antzerkia)

7/11

El enjambre (antzerkia)

14/18

Losers (Galtzaileak) (antzerkia)

20/25

Lo mejor de Yllana (antzerkia)

22/25

Extafadas (antzerkia)

26/28

Infarto ¡No vayas A La Luz! (antzerkia)

29 / 31

Conductas alteradas (antzerkia)

Septiembre

5/8

La magia de Jorge Blass (antzerkia)

13/14

Txarriboda (antzerkia)

18/26

Zinemaldia (iraila) (egoitza) (zinea)

Octubre

5-8

Zeinu Hizkuntzen Arte Jaialdia (zinea)

8

Atzegi: 2019ko Sentsibilizazio
Kanpaina (egoitza) (zinea)

10, 11

El Insólito caso de Martín
Piche (antzerkia)

12

Zinemakiddo + Donoskino, film
laburren jaialdia (egoitza) (zinea)

12

Rafael Berrio (musika)

14/16

Jardunaldiak Emakumeek
Egindako Zinemaz (zuzendari
argentinarrak) (zinea)

20

Mari eta gailera fabrika (antzerkia)

Urriak 26 / azaroak 1

Fantasiazko eta Beldurrezko
Zinemaren 30. Astea (zinea)

Azaroa

3

Dorian Wood: Xavela Lux Aeterna (musika)

4/9

FICA, Nazioarteko Atletismo
Flm Festibala (zinea)

9

Begiradak (zinea)

14/16

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko
Zikloa (egoitza) (zinea)

19

Curtis Harding (musika)

21, 22

Utzi zure mezua seinalearen
ondoren (antzerkia)

23, 24

Deje su mensaje después
de la señal (antzerkia)

Abendua

15

Traidor (antzerkia)

16

Kresala Zinekluba saria (zinea)

19

17 segundo (antzerkia)

22

20.000 legoa itsaspeko
bidaiari (antzerkia)

27/29

Moko zorrotza (antzerkia)

30

Cante Flamenkoko Lehiaketa (musika)



Sancho en Barataria, Azar Teatro

ANTZERKI ETA DANTZA PROGRAMA

Victoria Eugenia Antzokiak erreferentziazko antzokia izaten jarraitzen du hirian eta probintzian, eta gero eta erreferentziazkoagoa da Espainiako estatuko antzerki-panoraman ere. Urtebetean asko egin daiteke. Historia egiten jarraitzen dugu **Voltaire & Rousseau. La disputa** eta gisa horretako ikuskizunekin. Bi filosofoek beren ideiak jartzen dituzte aurrez aurre, Josep María Flotats eta Pere Ponce aktoreen *tour de force* batean. Produzizio hori Centro Dramático Nacional-ek eta Josep María Flotats-ek sinatua da. Espainiako eszenako beste nor handi batek, Juan Echanovek, **Rojo** ekarri zigun, John Logan dramaturgo eta gidoigilearen antzerki-arrakasta handiena, sei Tony sari irabazia

baita testua (Obrarik Onenari ematen zaiona barne).

Sergio Peris-Menchetak ere ikuskizun bikaina ekarri zigun, Lehman familiako hiru belaunaldiren historia kontatzen duena. Familia hori giltzarri da kapitalismo modernoaren eraikuntza eta nondik norakoa ulertzeko, eta *Lehman Trilogy* modu zorrotz eta ironikoan erakusten du hori.

Urtero, martxoaren 27an, Munduko Antzerki Egunean, Donostia Antzerki Saria ematen zaio aurreko urtean helduentzat programaturiko euskarazko ikuskizunik onenari. 2019an, Vaivén Teatroaren **Sherezade eta tipularen azalak** lanak irabazi zuen.

Nabarmendu beharreko beste lan bat: Jose María Pouk Zizeron gorpuzten du **Viejo amigo Cicerón**en. Zizeronek hezur-mamitzen du bere sineste politikoen

koherentziari are inguruabar kontrakoenetan ere eusten dien pertsonaren zintzotasun moralara. Antzezlan hori azaroan izan zen.

Udan, proposamen-jaialdi bat, harribitxi eszenikoen sorta bat, kolore leherketa bat ikuskizunetan, Imanol Arias **El coronel no tiene quien le escriban**, edo Lolita La



El desguace de las musas



fuera del cariño, edo Beatriz Carvajal **Volvió la noche**. Eta horra hor La Fura dels Baus edo The Hole edo Malandain Ballet izen handiak ere. Udako programarako, ikuskizun jostagarriak bilatu ziren, baina baita gai eta eduki interesgarriak eta esanguratsuak planteatzen zituztenak ere.

Dantzan, azpimarratzekoa nola **Jesús Herrera bailaor** donostiarrak **Hamlet** estreinatu zuen, Orfeoi Donostiarrarekin egindako elkarlan interesgarrian. Konpainia hauek bisitatu gintuzten, besteak beste: **Zero Visibility**, **Sienako Balleta**, **Compañía Nacional de Cuba**. Oso harrera ona izan zuen **Olga Pericet**en flamenko arau-hausleak, eta zirrara eragin zuen, halaber, **Jesús Rubio Gamok** **Gran Bolero**n erakutsi zuen indarrak eta irmotasunak.

MUSIKA PROGRAMA

Victoria Eugenia Antzokiko musika-programazioak Donostiako eskaintzaren proposamenik interesgarri eta sendoenetako batzuk bildu zituen 2019an. Horren adibide dira, besteak beste, izen hauek: **Yo La Tengo**, **Echo & The Bunnymen**, **Deacon Blue**, **Ismael Serrano**, **Lisa Stanfield**, **Miguel Poveda**, **Ralph Towner**, **Eñaut Elorrieta**, **Olatz Salvador**, **Ute Lemper**, **Morgan**. Horrez gainera, oso nabarmentzekoa da programazio hori, ahal izan zen neurrian, bertako eragile, agentzia eta elkarteekin batera gauzatu zela.

2019an ere, ekainaren 21a, Musikaren Europar Eguna, aitzakia polita izan zen **Adarra Saria** emateko.

Urtero, sari horren bidez, Euskal Musikaren arloan jardun duen edo diharduen artista baten ibilbidea eta lana nabarmentzen dira. Edizio honetan, **Berri Txarrak** taldeak jaso zuen sari a, bere agurreko biran ari zelarrik. Victoria Eugenia Antzokian eman zuten kontzertuak egundoko ikusmina piztu zuen.

Eta amaitzeko, nabarmentzekoa 2019an antzokiak **Heineken Jazzaldiko** programako zenbait kontzertu hartu zituela berriz ere. Victoria Eugenia Antzokiak era askotako kontzertuak hartu zituen, eguerdian eta arratsaldean. Japoniar musika, **Mopparen** eta **Unspeakable Garbage**

haren talde berriaren rockarekin batera, edo **Martiriok** eta **Chano Dominguezek** Ignacio Villa "Bola de Nieve"ri egin zioten omenaldia.

ZINE PROGRAMA

Victoria Eugenia Antzokian 2019an gehien nabarmendu zen programa **Giza Eskubideen Zinemaldia**ren 17. edizioa izan zen, *Udaleko Giza Eskubideen Sailarekin batera antolatua. Eztabaida, pentsamendua eta konpromisoa sortu zituen berriz ere, zinegileen proposamenak, haien historiak, Zinemaldira gonbidatutako pertsona adituak eta ikus-entzuleak berak zirela medio.*



Ute Lemper



Ralph Towner



*Emakumeen ahalduntzea, feminismoa eta politika, sexu-autodeterminaziorako eskubidea edo indarkeria sexista izan ziren ikuspuntu batzuk emakumeen oraingo eta etorkizuneko borrokek markaturiko agenda globalean. 2019an, gainera, ohorezko saria **Annemarie Jacir** zine-zuzendari palestinarra jaso zuen.*

*Hiru euskal produkzio estreinatutako izanak –**Hilos de Sororidad, Paseko Txoriak** eta **Soinujolearen semea**– agerian jartzen du nola zinemaldia gure zinearen leihogero eta irekiagoa den, eta nola gure zinea aberastuz doan gizarte-gaien bidean.*

Antzokian garatu zen zine-agendan sartu zen, halaber, **Superlópez** filmaren proiektzioa, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteak Fundación Academia de Cinerekin elkarlanean egina.

Antzokia hautatu zuten, halaber, euskal produkzio garrantzitsu batzuen *première*etarako; esate baterako, **Elkano, lehen mundu bira** animazio-lana eta **Ihesaldia** ETBko minisaila estreinatzeko.

Atzegi kolektiboak ere ikus-entzunezkoak erabili zituen bere mezuari zabalkundea emateko bide gisa, antzokian egin baitzuen ikasturte-amaierako gala.

LITERATURA ETA KULTURA PROGRAMA

2019an, literaturak ere izan zuen bere lekua VEAn. Euskal Jaien barruan, Donostia Kultura eta Euskal Idazleen Elkarte elkarlanean

aritu ziren **Poesia orduak** errezitaldiak antolatzen. Irailaren 9an eta 10ean egin ziren, **Egunero hasten den musika** eta **Munduko poesia kaia** izenburupean, hurrenez hurren. Biak ere, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan.

Ramon Saizarbitoriaren **Egunero hasten delako** eleberria argitaratu zelako 50. urteurrena zela-eta, **Egunero hasten den musika** eleberri horretako testuen irakurraldia izan zen, musikaz lagunduta. Oso saio berezia gertatu zen. Autore horren barne-mundutik egindako bidaia sentimental; hein handi batean, gainera, euskal kulturako belaunaldi oso baten ordezkari ere badena.

Eta, azkenik, atal honi dagokionez, abenduaren 17an eman ziren **Hamaika entzuteko!** sariak, irrati-piezen lehiaketaren bostgarren edizioa, urtetik urtera gero eta jarraitzaile gehiago dituena. 43 lan aurkeztuak ziren, eta gala oso zirraragarria izan zen. Saritutako

piezak entzun ziren, eta Inko Martínek Algernon Blackwood-en **La casa del pasado** obraz egindako egokitzea, Saioa Rojo eta Mikel Ibañez aktoreekin. Ekitaldi garrantzitsua, 2019an sortu baitzen **Donostia Kultura Irrati** berria, erakunde horren kultur proiektu berrietako bat, **Casares Irratia** zaharra irrati digital bihurtu eta gero. Edukien sorkuntza izango du desafio handienetako bat.



donostia kultura irratia



Jane Eyre



PROGRAMA

IKUSKIZUN MOTA

EKITALDI KOPURUA*

IKUSKIZUN MOTA	EKITALDI KOPURUA*
GUZTIRA	114
Musika	51
Zinea	7
Antzerkia	37
Dantza	15
Kultura	2
Literatura	2

*Ekitaldien izenburuak hartu dira kontuan, ez bakoitzaren emanaldi kopurua.

Urtarrila

3

Euskal Herriko Gazte Orkestra (musika)

4Gari & Maldanbera: *Beste denbora batean* (musika)**9/11**Magdalena, *De Amor y de Aire, En blanco* (dantza)**12**

Ensemble kroma (musika)

14

Reunión Big Band (musika)

24*De Profundis*, Compagnie Illicite (dantza)**25, 26**Voltaire / Rousseau. *La disputa* (antzerkia)**29**

Xahu (musika)

31*Quiero decir te amo* (antzerkia)

Otsaila

1/3*Quiero decir te amo* (Klub Aretoa) (antzerkia)**2***Frozen Songs* (dantza)**4**

Organizing (musika)

9Yo la tengo: *There's a Riot Goin on* (haurrentzat) (antzerkia)**10***Nire, zure, gure Verdini: 25 urte* (dantza)**11**

Fredí Peláez Trio (musika)

12

Echo and the Bunnymen (musika)

13

Gabriel Alonso (musika)

14*The Magic of Motown* (musika)**16, 17***Un marido ideal* (antzerkia)**20/23***Un baile de huesos* (antzerkia)**23***Jane Eyre: una autobiografía* (antzerkia)**28**Ismael Serrano: *Hoy y siempre, todavía* (musika)

Martxoa

2Javier Ruibal: *Paraísos mejores* (musika)**5**Deacon Blue: *30 Years and Counting* (musika)**7**

Gure Ahotsak: Izaro + Elena Setién + Olatz Salvador + Sara Mansilla (musika)

10*Macbeth* (antzerkia)**22***Donostiako kantak* (musika)**25**

Juan José Cabillas with Strings (musika)

27

XIX. Donostia Antzerki Saria (antzerkia)

29*La espiná que quiso ser flor: o la flor que soñó con ser bailaora* (dantza)**30***Sancho en Barataria* (antzerkia)**31**Allison Miller: *Boom Tic Boom* (musika)

Apirila

5/12

Giza Eskubideen XVII. Zinemaldia (zinea)

13*Notre-Dame de Paris*, Balletto Di Siena (dantza)**14***Todas las mujeres* (antzerkia)**20***Tiempo de silencio* (antzerkia)**25**

Julia Moya + Francisco Manuel Soriano (musika)

26*Atalak 2.0* (dantza)**28**

Dantzaren Nazioarteko Eguneko XXIII. Gala (dantza)

30Ralph Towner: *Jazzaren Nazioarteko Eguna* (musika)

Maiatza

1/4

Aiguantulivinamérica 2 (zinea)

5Sonakay y amigos: *Denontzat* (musika)**30**

Napardeath (2018) + Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 30. Asteko kartelaren aurkezpena (zinea)

11*Antología de la Zarzuela*. Sasibill Lirika Elkartearen 20. Urteurrena (musika)**15/18***Garai zekenak* (antzerkia)**17/18***Rojo* (antzerkia)**24**

Ai Do Project + Septeto Kaiserin: Schubert (musika)

25*Nacidos para bailar* (dantza)**31**Jabier Muguruza: *Leiho bat zabalik* (musika)



Ekaina

- 1**
Ute Lemper: *Rendezvous with Marlene* (musika)
- 5, 6**
Tom Pain (Basado en nada) (antzerkia)
- 8**
Lehman Trilogy (antzerkia)
- 9**
Sara Mansilla: *Talking to the wall* (musika)
- 12**
Poesia eta Pentsamendua
Poesía y Pensamiento (literatura)
- 21**
Berri Txarrak: Adarra
Saria 2019 (musika)
- 22**
Dúo Hausoka (musika)
- 24**
SuperLópez (zinea)
- 27**
XXXI. Bideoaldia (zinea)
- 28**
Eta, zer gehiago? (musika)
- 29**
Elkano, lehen mundu bira (musika)

Uztaila

- 4/7**
Carmina Burana (musika)
- 12/14**
Toc toc (antzerkia)
- 16/21**
Ergela (antzerkia)
- 17/21**
Sé infiel y no mires con quién (antzerkia)
- 22**
Euskal Herriko Gazte Orkestra (musika)
- 24/28**
54. Heineken Jazzaldia (musika)
- 31/3**
Marie Antoinette (dantza)

Abuztua

- 1/3**
Marie Antoinette (dantza)
- 5**
Khatia Buniatishvili (musika)
- 7-11**
Perfectos desconocidos (antzerkia)
- 13/15**
Los cuernos de don Friolera (antzerkia)
- 16/18**
El coronel no tiene quien le escriba (antzerkia)

- 19**
Acróbata y Arlequín: El circo imaginario de Picasso y la música (antzerkia) (haurrentzat)
- 21/25**
La fuerza del cariño (antzerkia)
- 26**
Naturalmente flamenco (musika)
- 27/29**
Crimen y telón (antzerkia)
- 28/31**
Txanogorritxotik otso emera (antzerkia)
- 30, 31**
Volvió una noche (antzerkia)

Iraila

- 01, 03/07**
Txanogorritxotik otso emera (antzerkia)
- 1**
Volvió una noche (antzerkia)
- 5/8**
The Hole Zero (antzerkia)
- 09, 10**
Poesia orduak (literatura)
- 13, 14**
Luisa Fernanda (musika)

Urria

- 6**
Miguel Poveda (musika)
- 10**
Mary Halvorson (musika)
- 11**
Bilboko Korral Elkarteko Euskeria Korua & Orfeoi Gaztea (musika)
- 12**
Ghero (antzerkia)
- 15**
Los ángeles de Larrocha (musika)
- 19**
Gran Bolero (dantza)
- 22**
Dk Irratiaren saio berezia: Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen bestaldea (kultura)
- 26/azaroak 1**
Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 30. Astea (zinea)

Azaroa

- 1**
Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 30. Astea (zinea)
- 8, 9**
La serva padrona (musika)
- 10**
Euskal Barrokensemble: *Hego-Koloreak* (musika)

- 11**
Lisa Stansfield: *Affection* (musika)
- 13**
Wim Mertens: *That Which Is Not* (musika)
- 15, 16**
Viejo amigo Cicerón (antzerkia)
- 17**
Pedro Guerra + Sara Ráez (musika)
- 24**
Olatz Salvador: *Zintzilik* (musika)
- 27/29**
Simone mujer partida (antzerkia)
- 28, 29**
Hamlet, la danza del melancólico (dantza)
- 30**
El desguace de las musas (antzerkia)

Abendua

- 1**
Alizia Herrialde Miresgarrian (haurrentzat) (antzerkian)
- 3**
Verdini zurekin amesten (dantza)
- 5/8**
La última tournée (antzerkia)
- 13**
Albert Pla: *Miedo* (musika)
- 14**
Miren Urbieta (sopranoa), Ainhoa Zubillaga (mezzosopranoa), Rubén Fernández (pianoa): Duetos (musika)
- 17**
Hamaika entzuteko! (kultura)
- 18**
Judith Jáuregui (musika)
- 20**
Still Life & No Half Measures (dantza)
- 22**
Eñaut Elorrieta: *Irteera argiak* (musika)
- 26**
Juan Mari Beltran: *Kostaldeko soinuak* (musika)
- 27, 28**
La culpa (antzerkia)
- 30**
Morgan: *Air* (musika)





© Oskar Moreno

Erakusketa iraunkorra

2019an, Museoan nabarmentzekoa da geurea dena eta sorkuntza balioan jartzen dituzten proiektuak izatea. Horretan lagundu dute **Heriotza. Ante la muerte** erakusketa,

Museo Bikoitza arte-interbentzioko programak eta **artzaintzaren inguruko lan-ildoak**.

Guztira, Museoak **11 erakusketa** programatu ditu, eta nabarmentzekoak, besteak beste, aipaturiko **Heriotza. Ante la muerte**, geure produkzioa izateagatik, proiektuak hainbat erakunde eta elkarte sarrarazi dituelako, eta gaiaren garrantziagatik. Orobat, **Hello, Robot**, udan, Museoa berriro ireki zenez gozotik bisitatuenetariko bat izan da.

Beste **programazioari** dagokionez, sendotzen jarraitzen dute haur eta familientzako lantegiek eta jarduerak,

bai eta **Elkano Zikloak** ere, 2020an Museoan egingo den erakusketa baten atalurrekoa. 2019an, halaber, artzaintzaren eta Euskal Herriko gaztagintzaren inguruko lan-ildoak nabarmendu da, honako hauek gehitu baitzaizkio erakusketa iraunkorrari: gai horri buruzko ikus-entzunezko berri bat, Aste Santuko jarduerak eta jarduerok **San Telmo pil-pilean** ibilbide gastronomikoan izan duten presentzia.

Gisa berean, **Erronkak** programazio-ildoan, gaur egungo gaiei buruz, **ardatz nagusiak** izan dira, batetik, heriotza eta robotika (aldi bateko erakusketen jarduera osagarri gisa), eta, bestetik, **Agora K2050** zikloa, iraunkortasunari eta feminismoari buruz.

Ondarearen arloan, 2019an burutu egin da Museoko bildumako

piezarik preziatuenetako baten zaharberritzea, **jinetza ezpata** (aurrerago azalduko dugu hau). Gainera, zaharberritze horrek ikerketa bat ekarri du ondotik, 2019an hasia, piezaren jatorriari buruz informazio gehiago biltzeko helburuz.

Horrek guztiak eta ondoren sakonago azalduko ditugun jarduerak egin dute Museoko **bisiten kopurua 140.585** koa izatea guztira.



Antton Elizegi, dohaintza. Bildumak

ONDAREA: BILDUMAK ETA DOKUMENTAZIOA

2019an, Museoa Euskal gizartearekin zerikusia duten **413 objektu** bereganatu ditu erosketa edo dohaintza bidez, **13 artelan** eta **lau argazki-funts**, guztira **60.000 argazki** baino gehiago, zenbait euskarri eta formatutan. Orobat, urte osoan zehar, bildumako **111 pieza** atera dira **mailegutan**, aldi baterako 17 erakusketatar.

Gordailuan, ohiko erregistro-lanez, bilduma-egokitzeaz eta aurrez aurreko kontsultei erantzuteaz gainera, bildumak trinkotzeko eta tiraderetatik kaxetara aldatzeko lanak egin dira, eta orrazietan kokaturiko piezen inbentarioa berrikusteko lanak.

Bildumak **erregistratzeari eta dokumentatzeari** dagokienez, proiektu bat sustatu da EMSIME

eta Gordailuaren datu-baseetan lanak bikoiztu ez daitezzen, eta web zerbitzuen bitartez bi datu-baseok zuzenean komunika daitezzen. Gainera, argazki-funtsekiko lan-prozesuen diseinuan lan egin da, erantzuna emateko irudi digital eta pieza kopuru hain handiek in-jarduteak dakarren lanari.

Artxiboari dagokionez, sakabanatutako dokumentazioa lekuz aldatzeko lanak amaitu dira, eta dokumentazio guztia artxibotarako espazioan bildu da, Museoa eraikinean. Tratatzeko dagoen dokumentazioa xahutu eta sailkatu da, eta erregistratzeko eta artxiboratzeko prestatu.


Eta, azkenik, **kontsultaz-zerbitzuan** azken urteotako maila berean eutsi zaie kontsultei eta erreproduzitzeko edo argitaratzeko irudi-eskariari erantzuteko lanari.

KONTSERBAZIOA ETA ZAHARBERRITZEA

Departamendu honetan, **Museoko fatxada historikoak argizatze**ko proiektuaren amaiera da aipagarriena, nabarmentzeko eta estetika zein kontserbazioa zaintzeko.

Kontserbazio prebentiborako neurri gisa, aurreko urtean (2018an) hasitako hegaztien kontrako sistema instalatzen jarraitu dugu. Zuloaga pabilioiko dorreetara hedatu da, eta grafiti ugarietatik babesteko, gai nanoteknologiko bat eman da, batez ere ondare-ondasunetan erabili ohi dena.

Aurreko pasarteetan esan dugunez, 2019an burutu dira ustez Boabdil Txikiarena izandako jineta ezpata zaharberritzeko lanak.



Zaharberritzeko lanak



San Telmoko arma-bildumako pieza behinenetako bat da. Zaharberitze hori dela eta, hain balio handiko pieza denez, ikerketa-lanei ekin zaie jatorria ezagutzeko, eta kalterik ez dakarten azterketa zientifikoak.

Beste zaharberitze batzuei dagokienez, aipatzekoa da, halaber, Vicente Lópezen **Céfiro y Flora** margolanarena.

Aldi baterako erakusketek eskatzen duten lanari dagokionez, departamenduak bere gain hartu ditu 2019an Museoan egin diren erakusketak kontserbatzeko eta zaharberitzeko lanak. Ikuskatu eta kontrolatu egin dira bilgarria ipintzeko eta kentzeko lanak, obrak muntatzeko eta desmuntatzekoak, elementu museografikoak, klima-baldintzei eta baldintza grafikoei buruzko datuak jartzea, eta kontserbazio eta kalteen txostenak egin dira. Aldi baterako erakusketentzako larrialdi-planak ere prestatu dira.

Erakusketa iraunkorrean, bitrinak kontserbatzeko eta mantentzeko lanez gainera, emaztegaiaren jantzia ordezkatu da, eta haurraren marinel-jantzi bat erantsi zaio **Hiri-espazioa eta topaguneak** atalari.



Hello Robot erakusketa

© Oskar Moreno

2019an, piezak **Gordailuan** kontserbatzeko eta egokitzeko ahalegina handia izan da: ikertzaileei lagundu zaie, ehunen biltegia eta tiraderak berrordenatu dira, eta orrazi guztiak trinkotu eta berrordenatu. Lanean ari gara, halaber, argazki-funtsen kontserbazioa eta berregokitzea birplanteatzeko.

Aldi berean, **kanpo-lankidetzei** dagokienez, 2019an Donostiako Udalarekin jardun dugu lanean, eta behar ziren neurri prebentiboak hartu dira Udal Artxioboaren pareten atzean **ezkutaturiko mural frankista** bat kontserbatzeko. Zeregin horrekin batera, dokumentazioa eman da Euskadiko katalogoan sar dadin, zeina Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak egin baitu.

Orobat, Proiektu eta Lanen Departamenduekin batera lan egin dugu, aholkularitza eta ikuskaritza eskainiz **Maria Cristina zubiko** apaingarrien zaharberitzean, eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin behar den lan zibila planifikatzeko, aurki **Richard Serraren** lan bat ekarriko baita.

Urgullen, ingurune-baldintzak ebaluatzeko lanak egiten jarraitu dugu grafitien aretoan, mendiko zurezko kanoi-gurdiak mantentzeko lanak egin dira, eta berria egin da Aquariumeko aterako. Orobat, Historiaren Etxeko erakusketako maketak kontserbatzeko eta zaharberitzeko zereginak egin dira

ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

Aldi baterako erakusketen programa laburbiltzeko, batetik, **eduki sozial eta artistikoak** markatu du urtea; bestetik, **Espainiako eta nazioarteko instituzioekiko harremanak askotarikoak izan dira.**

Heriotza. Ante la muerte nabarmendu da, geuk ekoiztiko erakusketa bat, mugarrria izan dena, Museoak egin baitu oso-osorik, bai eta bere zigilua sortu ere. Berezitasuna iragana eta oraina oso begirada gaurko batez konbinatzean datza, gaur egungo gizarteak heriotzaz dituen kezkek aurkeztuz, alegia.



Jineta espata



Emaitzak eduki zientifiko zorrotza izan du, eta, horrekin batera, bilduma ugari etorri dira hainbat museo eta erakundetatik, eta arte-sorkuntza garaikideak ere presentzia izan du, bai eta ekitaldi-programa zabala ere.

Hello Robot izan da udako erakusketa; gaurkotasun handiko edukia izan du, teknologiek gure egunerokoan duten eragina islatu baitu, eta nolako bilakaera izan dezaketen gerora. Sormen-indar handikoa, Europan barrena ibilitako erakusketa bat zen, eta bisitari asko erakarri zuen; hain zuzen ere, bisitatuenetariko bat izan da Museo berria ireki zenetik.

Bestalde, **Gorputza asmatzen** erakusketa izan dugu, gorputzak Errenazimentuaren eta Ilustrazioaren artean izan zuen errepresentazio artistikoaren inguruko proposamen bat. Erakusketa horretan, lehen mailako artelanak egon ziren ikusgai, eta Espainiako museo erreferentziazkoen lankidetzak izan zuen. Maria Bolaños ikerlari eta komisarioaren ardurapean, erakusketak oso berea eta berezia duen estilo-ukitua utzi du, azterketa zientifiko zorrotza eta interpretazio sortzailea elkartu baititu.

Azkenik, **Sistemen diseinua, Ulm eskola** erakusketak 2020ko urtarrilaren 12ra arte aurkeztuko du Ulm-eko eskolan garatutako metodologiak diseinuan ekarri zuen berrikuntza eta ondoren Braun konpainiak industrian eman zion erabilera. Lehen aldiz historian, batera aurkeztu dira bi eskola hauetako bildumak (Ulm eta Braun eskoletakoak) San Telmon.

Formatu txikiagoan, **Arzak bere saltsan** erakusketa nabarmenduko dugu, omenaldia maisuari, non hark gastronomiaren inguruan izan duen ibilbide profesional eta familiarra jarri baitzen ikusgai.

Orobat, Museoak Donostiako zenbait jaialdirekin (Musika Hamabostaldia eta SSIFF) duen ohiko lankidetzak bi erakusketa eman ditu: **Donostiako soinua: 80. Musika Hamabostaldia** eta **Sandro Miller: Malkovich, Malkovich, Malkovich. Omenaldia argazkilaritzako maisuei. Donostia 2016.**

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiago duelako, 2019an **Ibon Aranberri**ren obra aurkeztu da **Museo Bikoitza** programan. Lan hori San Telmok martxan jarri duen interbentzioen urteko programa sortu berriaren emaitza da. Programa horretan,

Museoak lankidetzan jardungo du artista gonbidatu batekin, hark bildumaren eta kontakizun museografikoaren berrirakurketa bat sor dezan. Lehen edizio honetan, Ibon Aranberri izan da artista gonbidatua, eta **Itzal-marra** izeneko instalazio bikoitza aurkeztu du. Uneotan, lekukoa hurrengo gonbidatuaren eskuetara pasatu da: Erlea Maneros Zabala.

JARDUERAK

Gaien zabala eta formatuen aniztasuna dira Museoaren jardueren ezaugarri bi. Bisita gidatuak, bisita espezializatuak, artisten lantegiak, musika-saioak, hitzaldiak, topaketa informalak, haur eta familientzako programak, musika-jarduerak..., horra proposamen batzuk, Museoa leku dinamiko eta hainbat interes eta sentsibilitateri irekia bihurtzen dutenak.

Aldi baterako erakusketa guztiek izan dute beren jarduera-programa irakurketa askotarikoei eta ikuspuntu desberdinetatik hurbiltzeari bide emateko. Museoarekin eta bere erakusketa iraunkorarekin zerikusia zuten jarduerak ere programatu dira. 2019an, honako hauek nabarmendu dira, besteak beste: artzaintzari buruzkoa, Aste Santuko oporretan; *Second Canvasekin* lotutako programazioa; eta ibilaldi gastronomikoak.

Elkano Zikloa hileko hitzordu ezinbesteko bihurtu da munduaren lehen biraren eta horren ondorio historikoen ezagutzan sakontzeko, eta, bi urte geroago, ikusle asko eta asko ditu oraindik. Gainera, nabarmentzekoak dira



Heriotza. Ante la muerte erakusketa



Aranzadi Zientzia Elkartek urtero egiten dituen Arkeologia eta Etnografiako jardunaldiak.


Orobat, 2019an indartu egin da helburutzat **euskara** gure kulturaren **ondare berezi** gisa sendotzeko helburua duen zehar-lerroa, programazioa eta beste eragile batzuekiko lankidetzak emendatuz.

Ezin ahaztu kultura-aisialdirako proposamenak, arlo akademikotik kanpoko haur-jarduerak eta familientzako jardueren programa. Familiek sormena modu ludiko eta intuitiboan lantzeko proposamenak harrera ona izan du, batez ere 4 urte arteko haurrei dagokienez. Haurrei eta familiei zuzendutako programazioa ildo egonkorra da dagoeneko, eta nabarmentzekoa da artista eta sortzaileekiko lankidetzak ugaltzeko egin direla.

Eta Donostiako beste jaialdi eta erakundeekiko lanaren ildoaren barruan (aurrez aipatu dugunez), Heineken Jazzaldiarekin, Musika Hamabostaldiarekin eta Zinemaldiarekin dugun elkarlanaz gainera, Musika eta Dantza Eskolarekin, Francisco Escudero Kontserbatorioarekin eta *San Telmo Gaua* ezagunarekin ere jardun dugu.

ERRONKAK

Museoan aipamen berezia merezi duen lan-ildorik bada, esango genuke hauxe dela: **Erronkak** programazioak pentsaera kritikoa eta gogoeta bultzatzen ditu gaur egungo eztabaidagaien inguruan, eta 2019a bereziki esanguratsua izan da. **Heriotza. Ante la muerte** eta **Hello Robot** proiektuek honelako gaietan sakondu dute: heriotza, suizidioa edo eutanasia,



© Oskar Moreno
Second Canvas jarduera

eta robotizazioa. Beste ziklo hauek ere aintzat hartzea merezi dute: **Agorak 2050**, klima-aldaketari buruz, eta **Memoria Feministak**, genero-berdintasunari buruz, biak ere oso gaurkotasan handikoak.

HEZKUNTZA

2019ko Hezkuntza Departamentuaren jarduna handia izan zen, urtero bezala; izan ere, eskaintza izan zen erakusketa iraunkorarekin eta aldi baterako erakusketekin lotuta.

Honen ondorioz, museora orotara hezkuntza ataleko erabiltzaile gisa hurbildu ziren pertsonak 11.905 baino gehiago izan ziren, 592 taldetan; iaz baino %21 gehiago. Horietatik 6.939 ikasleak izan ziren, 371 taldetan (iaz baino %11 gehiago).

Ikastetxeekin gertutasunez lanean aritzeak ahalbidetu zuen aurreko urtean martxan jarritako hezkuntza buletinak dagoeneko **400 harpidedun** izatea eta museoan irakasleei zuzendutako jarduerak antolatzea: Ikasketa-zerbitzuen

proiektuen aurkezpenak, eskolan generoaren ikuspegiaren inguruko hausnarketak, ahotsa irakaskuntzan, Dolugelan, ArtsFormers, e.a. Horiek guztiek museoaren hezkuntzarako topagune eta hausnar-gune bihurtzen dute.

Zalantzarik gabe, urteko proiektu aipagarriena **Heriotza. Ante la muerte** erakusketa izan zen: batetik, maleta didaktikoa sortu zelako baliabide gisa, eta, bestetik, erakusketa honen aitzakian hezkuntza ataletik jarduerak antolatu zituztelako. Ondorioz, hezkuntza komunitatean jarduera horien oihartzuna eta parte hartzea handia izan zen.

Atal honetan aipatzekoa da erakunde eta elkarteekin dagoen harremana: Donostiako Berritzegunea, Bidegin, Gasteizeko Berritzegune Nagusia, USAC, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, Bitamine Faktoria, Asmoz Fundazioa, Donostiako Kultur Aniztasuna eta Gizarte ekintzako bulegoa, Bidegin elkartea, SOS Arrazakeria, Erroak Sartu, Asociación Iresgi, Fundación Gizaide, Gurutze Gorri, Agifes,



Aita Menni, Atece, Cear Euskadi, Afagi, Nagusilan eta beste hainbat.

Horrez gain, bereziki landu zen gertu dauden zentro eta ikastetxeekin harremana, eta mantendu zen Baionako Euskararen Zerbitzuarekin zegoen elkarlana. Horri esker, Iparraldeko eskoletako haurrak ere bisitan hurbildu ziren museora.

LIBURUTEGIA

2019an zehar, **museoko liburutegiak** lanean jarraitu du Gabriela Cendoya Bergareche Collection-en (GCBC) zabalkundean, argazki-liburuaren inguruko jardunaldien programazioaren bitartez, zeinei esker lehen eskutik ezagutu baititugu zenbait artistaren argazki-lanak; honako hauenak, besteak beste: Julia Borissova, Anne de Getas, Gabrielle Duplantier, Gloria Oyarzabal.

Programazio-irizpideetako bat jarduera horietan **emakume artisten presentzia bultzatzea izan da.**

Azpimarratu behar da, halaber, bosgarren aldiz egin direla **Artista Liburuari buruzko Topaketak**, non *El sustantivo es "libro"* saiakeraren erreplika-edizioa aurkeztu baitzen, 30 aletara mugatua, Isidoro Valcárcel Medina artistak - Espainiako Arte Plastikoetako Sari Nazionala 2007an, eta 2015eko Arte Plastikoetako Velázquez Saria-topaketetarako sortua 2018an.

ARGITALPENAK

2019an, Museoa **Miaka Ikerketa Koaderno bi** argitaratu ditu webean, bere bildumen ikerkuntza zabaltzeko xedea dutenak. Bat Galarza Argazki Funtzari buruz, eta bestea jineta ezpataren zaharberritzeari buruz.

Aldi baterako erakusketei dagokienez, Museoak katalogo hauek argitaratu ditu: **Suturak, Cerca a lo próximo** erakusketarena, Xabier Saenz Gorbea komisarioari egindako omenaldi gisa, 2015ean zendu baitzen; **Heriotza. Ante la muerte** eta **Aita Labururenak**.

URGULL

Urgull mendiko multzoak gure ondarea eta historia ezagutzeko aukera ematen du, eta azken urteotan guztiz egonkortu den eskaintza bat da. **Donostiari begira** erakusketak bisitari asko izaten ditu Urgull mendiko Motako Gazteluan, eta 2019an **172.000 bisitaritik** gora izan ziren, **aurreko urtean baino 10.000 gehiago**.

Ondareari dagokionez, jarraipena eman zaio kanoien mantentze eta zaharberritzeari, bai eta Urgull mendiko ondare-elementuen azterketari ere, ezagutzera emateko xedez.

KOMUNIKAZIOA

2019an, **Komunikazio Departamenduak** San Telmoren arloei laguntza ematen jarraitu du (Museoaren irudia, ondarea, erakusketak, jarduerak...) bere ohiko lanaren bidez, hots, 24 prentsaurreko, 14 prentsa-ohar, publizitatearen kudeaketa, zabalkunde-euskarriak egitea, komunikabideekiko harremanak, sare sozialetako zabalkundea, boletik elektronikoak bidaltzea, paperezko hileko agenda, webeko eguneratzeak, eta abar.





Paperezko euskarri dagokienez, 2019an 10 agenda argitaratu dira (negukoak eta udakoak). Orobat, haurrentzako eta familientzako eskaintza iraunkorrak (urria-apirila) bere euskarria izan du, bai eta Urgulleko jarduerak ere Aste Santuan eta udan. Gainera, bai aldi baterako erakusketek eta bai beste jarduera eta ekinbideek ere beren zabalkunde-elementuak izan dituzte.

Bestalde, beste urte batzuetan bezala, Museoko zenbait liburuxka eta tarjeto berrargitaratu dira (orokorra, +55, Serten mihiseak, bazkideak, haurrentzako koadernotxoak erakusketa iraunkorrerako...).

Publizitateari dagokionez, Museoak zenbait agerraldi izan ditu komunikabideetan, babesle dituenekiko edo enpresa ongileekiko lankidetzak akordioen bitartez. Batez ere aldi baterako erakusketen informazioa eta bazkideentzako kanpainak zabaltzeko xedez egin dira. Halaber, komunikazio-plan bat burutu dugu komunikabide espezializatuetan eta orokorretan, gure jarduerari zabalkunde handiagoa emateko hartzailen potentzialen artean.

Arlo digitalean, nabarmentzekoa da **web-erako bisitak** emendatu izana, bai eta **boletin elektronikotarako harpidetzak** ere. Weberako bisitak 144.000tik gora izan dira, aurreko urtean baino % 2,7 gehiago, eta dagoeneko baditugu 4.961 harpidedun, aurreko urtean baino 440 gehiago. Hona hemen boletinak: astekoa, familientzako, bazkideentzako eta irakasleentzako Horien artean, **asteko boletina** hazi da gehien.

HARREMAN INSTITUZIONALAK

San Telmok oso aktibo jarraitzen du **museo, instituzio eta kultura-eta gizarte-erakundeekiko harremanetan, erakusketa-, hezkuntza- eta kultura-programak garatzerakoan.**

Hala, erakusketen ildoan, nabarmentzekoa da 2019an bertako eta nazioarteko museo asko eta askorekiko lankidetzak izan dela. Hasi bildumen maileguren kudeaketatik, eta erakusketa bat produzitzeko lankidetzaraino. Honako hauekin, besteak beste: Museo Nacional del Prado, Museo Nacional Reina Sofía, Valladolideko Museo Nacional de Escultura, Sevillako Museo Bellas Artes, Museo de Altamira, Bartzelonako Museo Egipcio, Madrilgo Museo de América, Madrilgo Museo Arqueológico, Bartzelonako Museo del Disseny, Nafarroako Unibertsitateko Museoa, Jorge Oteiza Fundazio Museoa, Artium Arte Garaikideko Euskal Museoa, Bilboko Euskal Museoa, eta abar. Nabarmentzekoak dira Donostiako Museo Sarearekin eta Euskal Kostaldeko Museoen sarearekin ditugun harremanak.

San Telmok nazioartean duen presentzia ere indartu egin da erakusketa ibiltarien programazioa dela medio. Esate baterako, *Hello Robot*, Vienako Vitra Design Museum-ekin, MAK-Austrian Museum of Applied Arts/Contemporary Art-ekin eta Ganteko Design Museum-ekin batera ekoitzi da. Baita Europako esparru profesionaletan parte hartzeari esker ere, hala nola MUSCONen mintegian, non nazioarteko berrogei bat museok hartzen baitute parte.

2019an, Gipuzkoako teknologia aurreratuko enpresekin jardun dugu lankidetzan, **Gure RBTK** erakusketa dela eta, non euskal enpresen prototipoak eta produktuak jarri baitira ikusgai.

Azpimarratu beharrekoa da, halaber, **erakunde zientifiko batzuekin izandako lankidetzak**; hauekin, besteak beste: EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, UNED-Bergara, Aranzadi, Jakiunde, Jauzarrea. Bai eta Elkano Zikloarekin zerikusia izan duten zientzialari eta espezialistekin ere. Eta lankidetzak estua izan dugu Gordailua Bilduma Zentroarekin.

Jardueren programazioa **hainbat erakunderekin izandako lankidetzari** esker egin ahal izan da; honako hauekin, besteak beste: Musika Hamabostaldia, SSIFF, Jazzaldia, Euskadiko Filmategia, Cristina Enea Fundazioa, Eresbil, Musikene, Basque Culinary Center, Bagera, Kontseilua, Bidegin, Asmoz Fundazioa, Zaporeak, Udaleko Lankidetzak Departamentua, Helduen Hitza, Nagusilan, SOS Arrazakeria, Iresgi Elkartea, Gizaide Fundazioa, Afagi, Erroak Sortu, Gurutze Gorria, DMD (Derecho a Morir Dignamente), Aita Menni, eta abar.

Eskerrak eman behar dizkiegu, noski, Museoari garatzen laguntzen dioten erakunde eta kide korporatiboek: Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioa, EITB, DV, Cadena Ser, Berria, Gara, Naiz, Hamaika, Argia eta Michelin Fundazioa. Bai eta Museoa babesten eta gozamenarako bide izan dadin lagundu duten 1.147 bazkideei ere.



Kultur Ekintzak zuzentzen duen ekipamendu-sarea erreferentzia da auzoen eguneroko agendan, eta herritarren topagune. Udal zerbitzuen eskaintza zabala kudeatzen dute, kultur diziplina guztiak programatzen dituzte, jaialdiak antolatzen, Donostian ekinbide berriak sustatzen, ekinbide publikoak eta pribatuak batuz, eta arte-diziplina desberdinetako kultur sortzaileak babesten.

2019an zehar, kultur etxeek **1.026.579** bisita izan zituzten, eta **8.227** jarduera baino gehiago programatu, zeinetan **407.630** lagunek hartu baitzuten parte.

Kultur Ekintzan, hiru gertaerak markatu zuten batez ere 2019a: **DK Irratiaren** sorrerak, Casares Irratia irrati hobea bihurturik, baliabide gehiagokoa; **Ernest Lluch Kultur Etxearen egoitza berriro irekitzea**, instalakuntza zabalagoak eta hobetuak dituen; eta, azkenik, **Olatu Talka jaialdiari agur esatea**, hamar urteko ziklo arrakastatsuen ondoren.

Orobat, **sorkuntzari laguntzeko** apustua hazten eta hazten jarraitzen duen esparrua da. Kultur Etxeen gaikako espezializazioak erraztu egiten du sorkuntzari are gehiago laguntzea, hala arlo profesionalean, arte-egoitzaldien bitartez (batez ere musikan, dantzan eta antzerkian) eta produkzioen bitartez (poltsiko-antzerkia eta erakusketak), bai eta herritarren oinarrizko kulturatik datorren bertako talentuaren bitartez ere (prestakuntza-ikastaroak, bideo- eta irrati-lantegiak eta beste zerbitzu lagungarri batzuk). Ondoren, horretarako pentsaturiko proiektuen laburpena egingo dugu:

KULTUR EKINTZA SORKUNTZA PROIEKTUAK 2019

ARTE ESZENIKOAK ETA MUSIKA

Dantza

- Egonaldi profesionalak (Entseguak eta emanaldiak): 6 proiektu
- Tokiko sortzaileen lanen emanaldiak: 2

Antzerkia

- Egonaldi profesionalak (Entseguak eta emanaldiak): 1 proiektu
- Sorkuntza lehiaketa: 1
- Tokiko sortzaileen lanen emanaldiak: 45

Musika ¹

- Egonaldi profesionalak (Entseguak eta emanaldiak): 2 proiektu
- Musikagela (entsegu aretoetako erabiltzaileak): 56 talde/bakarlari
- Tokiko sortzaileen lanen emanaldi: 45
- ¹Emanaldien plataformak: 5 jaialdi + kultur etxeetako aretoak + hiriko tabernak

IRUDIA, SOINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Irudia

- Produkzioak: 10
- Koprodukzioak: 21
- Media-lab: 3
- Elkarlanean egindako proiektuak: 2
- Emanaldien plataformak: jaialdi propioa 1+ Zinemaldiarekin kolaborazioa 1+ bestelako jaialdietara zabalkundea.

Argazkigintza:

- Sorkuntza lehiaketa: 1

Irratia ²

- Ikasturtearen zehar irrati emisioa (ikastaroak): 10 irratsaio
- Irrati antzerkia: 2
- Sorkuntza lehiaketa: 1
- ²Emanaldien plataformak: Irrati propioa + webgunea + podcast plataformak+ bestelako irratia (Arrosa Sarea)

LITERATURA

- Produkzioak: 3

ARTE PLASTIKOAK

- Muralen sorkuntza proiektuak: 2

ERAKUSKETAK KULTUR ETXEETAN

- (Tokiko sortzaileekin elkarlanean eginak): **33**

FORMAZIOA KULTUR ETXEETAN

- **185** sorkuntzaren lanketari lotutako ikastaroen eskeintza (espezialitatea, irakasleak eta adinaren arabera).

Ondoren, kultur etxeen eta Donostia Kulturako Kultur Ekintza atalaren jarduerari eta jaialdiei buruzko datu batzuk emango ditugu.





Boga!, Olatu Talka

OLATU TALKA

Ibilbidea

Olatu Talka Jaialdiaren hamargarren edizioa azkena izan zen. **60.000 lagunek** hartu zuten parte, inoiz baino gehiagok, eta halaxe esan zuen agur jaialdiak, Donostia urteotan mobilizatu eta gero.

Jaialdia 2010ean hasi zen, 2016an Europako Kultura Hiriburutza lortzeko proiektuari bultzatza egiteko asmoz. Kultur Hiriburutza amaitu ondoren, Olatu Talkak aurrera jarraitu zuen azken unera arte, hasierako helburuen atzetik betiere, eta *Hiria egitea* goiburuari leial.

Jaialdiaren helburu nagusia herritarren parte-hartzea bultzatzea izan zen, eta kultur eragile aktibo bihurtzea.

Horretarako, jaialdiaren berezitasun nagusia programazioa herritarrek herritarrentzat eratzea izan zen, **era guztietako jarduera eta dinamikei** bide emanez.

Urtez urte, Olatu Talka, **2.000 eragile**ren lanari esker, gai izan zen **200 jardueratik** gorako agenda bat osatzeko. Parte hartzen zuten kultur eragile eta elkarteek beren jarduerak egiteko era berriak ezagutu ahal izan zituzten

Azken Olatu Talka

2019an, Olatu Talkak agur esan zuen azkenekoz, eta edizio horretako helburu nagusietako bat hamar urteko lanaz osatutako ibilbidea aldarrikatzea izan zen. Horretarako, edizio horretan aurreko edizioetan jardundako zenbait eragilerekin batera lan egin zen, eta, berriz ere, jardueren **deszentralizazioa** funtsezkoa izan zen. Landutako gaien artean, **ingurunearen zaintzari** buruzko kontzientziazioa eta **gure itsasoen osasuna** nabarmendu ziren, **gizarte-gaiak** ahaztu gabe.

Ingurunearekiko konpromisoa izan zen azken jaialdiaren ardatz nagusietako bat. Zehazki, **gure itsasoen osasuna**; izan ere, Olatu Talka gertatu zen unean hondartza-

denboraldia ireki zen. Gaia presente egon zen hainbat dinamikatan: ibilbideak, arte-instalazioak, bigarren eskuko azokak, *Itsas zaborra out*, *Gure itsasoen osasunaren alde*, *Ondarreggae*, eta naturarekin zerikusia zuten hitzaldi eta ibilbideak, besteak beste.

Kultur aniztasunak ere bere lekua izan zuen jaialdian. Ongi Etorri Eskolarak antolatutako topaketak kulturen arteko ezagutza eta migrazioaren gaia jorratu zituen, *Gure oinek mundua mugitzen dute* goiburutzat hartuta. Bestalde, Caritasek *Hiria eraikitzen* jarduera garatu zuen, eta gizarte-bazterketaren kontrako ekintzak burutu zituen.

Beren lekua izan zuten beste gizarte-gai batzuk izan ziren, besteak beste, *Kalean bizi* atalaren barruan egindako jarduerak, zeina programaren ardatz nagusietako bat baitzen (gune irekietan egindako dinamikek osatua). Besteak beste, Alderdi Ederren aurkeztutako *Book Box*, *Oikocredit* edo *Cycling without age* ekinbideak. *Irudigileak* ekimenak ere -emakume ilustratzaileen lanen erakusketa, Egiako pasabidean ikusgai jarria (hiriko puntu kritikoetako batean)- oihartzun handia eta arrakasta izan zituen jaialdian.

Bestalde, jende gehien erakarri zuten jarduerak hauek izan ziren: *Kontxa Gaumarket*, sortzaileentzako plataforma, 80 postu bi egunetan, eta *Kontzertour*, 50 musika-emanaldi.

Boga! amaierako ekitaldiak, itsasoan barrentzen zela ematen zuen agertoki batean, eman zion buru etapa oso positibo bati. Han esan zigun betiko agur Olatu Talkak.



LITERAKTUM

Literaktumek ikus-entzule asko erakartzea lortu zuen azken edizioan, **4.200 lagun**, eta goraldiari eutsi zion. Jaialdiak urratsak eginez jarraitzen du letren inguruko jaialdien artean erreferentziako hitzordu bihurtzeko helburuaren atzetik.

2019an, jaialdiaren ardatz nagusia **literaturaren eta feminismoaren arteko harremanak** izan ziren, eta emakumeak izan ziren gonbidaturiko autore gehienak. **Cristina Morales** (**Espainiako Narratiba Saria** jaso du berriki), **Karmele Jaio**, **Elvira Sastre**, **Eider Rodriguez**, **María Sánchez**, **Laura Freixas**, **Mariasun Landa**, **Christina Roseninge**, **Paula Bonet**, **Espido Freire**, **Lucía Baskaran**, **Marta Sanz**, **Arantxa Urretabizkaia** (azken Anton Abbadia sariduna) izan dira, besteak beste, solasaldietan.

Gai hori dela eta, edizioaren beste datu esanguratsu bat izan da jendeak aretoak bete zituela



zenbait ekitalditan, eta batez ere emakumeak eta gazteak izan zirela.

Azken edizioak, gainera, izan zituen beste protagonista handi batzuk ere, hala nola **Bernardo Atxaga**, zeinak bere azken eleberria izango omen dena aurkeztu baitzuen, *Etxeak eta hilobiak*, noiz eta Espainiako **Letren Sari Nazionala** eman zioten egunean bertan.

Ramon Saizarbitoria donostiarrak, eta zehazki *Egunero hasten delako* eleberria argitaratu zeneko **50. urteurrenak**, beren leku berezia izan zuten. Iratxe Retolazak, Itxaro Bordak eta Lourdes Oñederrak lan hori aztertu zuten zuzeneko irratsaio batean, DK Irratiaren *Bestalde* programan alegia, zeina Klub Aretoan egin baitzen, Maite Larburuk eta Harkaitz Canok Ion Olanorekin batera elkarrizketa poetiko-musikalean jardun aurretik.

Adam Zagajewskik ere, **2017ko Letren Asturiasko Printzesa Sariak**, parte hartu zuen programan, eta **Ramón Andrés** idazle eta saiogilearekin batera, bere obraz jardun zuen, abiapuntutzat hartuta gaur egun poesiak duen lekuaz eta europar proiektuaren etorkizunaz.



Adam Zagajewski, Literaktum

Angel Errok eta **Iñigo Astizek**, bestalde, poesian edo prosan pentsatzearen antzak eta aldeak jorratu zituzten UPV-EHUK antolaturiko *Pentsatu!* Jardunaldietan, zeinak aurten ere Literaktumen programan sartu baitira. Unibertsitatearen eta Literaktumen artean antolatutako beste jarduera batzuk pentsamendua eta feminismoari buruzko mikro-eztabaidak izan ziren, Kutxa Kultur gunean.

Txikienek ere badute beren lekua jaialdian. *Literaktum Txikia* 16 urtetik beherakoentzako programa da, eta agenda betea du: antzerkia, ipuin-kontalariak, musika eta lantegiak, non ikus-entzule asko izan baitziren denetan ere. Atal hori haziz doa urtetik urtera, hala ikus-entzuleen nola asmoen aldetik.

Eta, amaitzeko, Literaktumek literatura-afari arrakastatsua eskaini zuen, oraingoan Charles Dickensen omenez.

2019a urte ederra izan zen Literaktumentzat, eta Donostia Kultura ez zen bakarrik izan arrakastan. Gipuzkoako Aldundiko Kultura Departamentuak, Euskadiko Filmategiak, Gipuzkoako Liburuzainen Elkartek, Etxepare Institutuak, Poloniako Kultura Institutuak eta Feministaldiak bat egin zuten harekin letren artearen ospakizun honetan.

Laburbilduz, **Literaktumek** literaturaren jai handia utzi zuen atzean, Donostia ia bi astez "hitzen hiria" bihurtu baitzuen. Jaialdiak zenbait podcast utzi dizkigu jardueraz; hementxe daude ikusgai: <https://irratia.donostiakultura.eus/es/>.



IKASTAROAK

Kultur Ekintzaren programazioaren barruan, **prestakuntzarako eskaintza** da herritarren artean urtez urte harrera onena dutenetako bat, batez ere **kultur etxeetatik** eskainitakoa.

2019-2020 ikasturtean, **886 ikastaro** egin ziren, Donostia Kulturak eta Kz Guneak antolatuak, hainbat formatutakoak iraupenaren, gaien eta hartzaileen aldetik, eta garrantzi berezia izan dute **gazteei** zuzendutakoek eta **autore-ikastaroek**.

Denboraldi horretan **9.086 lagunek** baino gehiagok eman dute izena, eta hein handi batean **arte eszenikoekin** eta **autoezagutza** eta **osasunarekin** zerikusia zuten ikastaroen hautua egin dute.

Herritarrek interesez hartu dute ikastaroen eskaintza, eta aurreko ikasturtean baino **%5 ikastarogile gehiagok** eman dute izena. Nabarmenezkoa da, gainera, matrikulazioarekin zerikusia duten izapideen % 64 on-line egin direla.

Programazio zabala, bizia eta askotarikoa, hiriak gaur egun dituen beharrei erantzuteaz gain adi dagoena eta, urtez urte, arlo berriak eta eskaria duten proposamenak jasotzen dituena.

DKLUBA

DKluba programak **Donostiako auzoetako musika-eskaintza** dinamizatzeko helburua du, **bertako taldeen parte-hartzea** sustatuz bereziki. Helburua hiria



Koko Jeans & The Tonic, Musika Eguna

erreferente bihurtzea da, non talde berriak aurkitu, artista ospetsuak hartu eta non bertako talentua modu naturalean hazi ahalko baita. **Lankidetz**a du oinarri (administrazio publikoaren eta erakunde pribatuen artean), musika-**ekitaldi komertzialak ez bezalako ekitaldi alternatiboak** programatzeko eta **bertakoa aintzat hartzeko** xedez (hala musika-taldeei dagokienez nola kolektibo, klub, sustataile eta elkarteetan lanari dagokienez).

2019an, **20.878 ikus-entzule** izan ziren **30 kontzertutan**, zeinak tabernetan, aire librean eta kultur etxeetako agertokietan egin baitziren, batez ere **Intxaurren Kultur Etxeko** aretoan. Kultur Etxea gero eta erreferentzia sendoagoa da bere aretoari, edukierari eta erabiltzeko erosotasunari esker, jende asko erakartzeko gaitasuna duten taldeek eskaintza osatzeko bidea ematen baitute. 2019ko adibide gisa, **Gatibuk** (hirutan), **León Benavente** eta **Nikki Hillek** sarrerak agortu zituzten alde aurretiko salmentetan. Orobat, nabarmenezkoa da **8. Revlution Jamrock Reggae Festivalek** utzitako aho-zapore gozoa. Lehen aldiz antolatu zen gure Kultur

Etxean, beste jaialdi batzuen bidea hartuta: **Urban Femme, IX. Musigakela Weekend** edo **XIV. Donostikluba festibala**.

DKlubak, musika-eskaintza emateaz gainera, balioa duten beste proposamen batzuk sortzen ditu, hala nola **sorkuntza-egonaldiak**, 2019an **Willis Drummond** edo **Nina Coyote** y **Chico Tornadok** gauzatuak, **Intxaurren K. E.**an horiek ere. Taldeok beren azken diskoak aurkezteko kontzertuan prestatzeko erabili zituzten egonaldiak. Programa horrek badu ezagutza transmititzearan adarra ere: **Lauizeta ikastolak** topaketak eta lantegiak egin zituen bi taldeekin.

DKlubako aire libreko agertokiei dagokienez, udako hitzorduen artean arrastoa utzi duenetako bat **Musikaren eguna** da, Fnac-ekin batera antolatua. Ekainaren 22an, Loiola kalea musikaz bete zen eguerditik arratsera arte, zazpi kontzertu izan baitziren. Nabarmenenak, talde hauenak: **Noa & The Helldrillers, Joseba Irazoki eta lagunak** y **Koko Jeans & The Tonic**. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera.



Bestalde, **Musikagela Festek** bigarren edizioa egin zuen Easo plazan (lehen hitzorduaren ondoren, zeina Loiolako Erriberako Oroimenaren Lorategietan egin baitzen). Kokaleku berriari esker, jende asko hurbildu zen **bertako zazpi taldeen eta bi bakarlarien** kontzertuetara, Musikagela zerbitzutik denak ere, bai eta **The Sick Boy** Bartzelonako bandarenera ere. Jardunaldiak ezin modu hobean eman zion amaia ikasturteari.

Baina, Dklubak aire libreko musika-agendaren alde egindako apustuen artean, **Glad is the Day** izan da, ezbairik gabe, urteko izarra. Ekinbidea 2016ko Hiriburutzatik dator, eta sendotuz jarraitzen du: **10.000 lagun** izan ziren abuztuaren 4ko kontzertuetan. Dinamikak laguntzaile bat gehiago izan zuen, **Keler** (besteak, **Le Bukovski**, **Dabadaba** eta **Kutxa Kultur** dira). Bosgarren edizio honetan, 16 talde eta Dj izan ziren, azokatxoak, haurrentzako lantegiak eta janari-eta edari-postuak. Familiaek eta adin guztietako jendeak hartu zuten gozatua egun eder eta jai-girokoan, **Potato** eta **The Limboos** taldeen musikaz lagunduta, edota **Bellaca** eta **Khaled**en saioez.

Ezbairik gabe, Cristina Enea parkeko hitzordua ondo finkatuta dago Donostiako udako egutegian.

MUSIKAGELA 2019

Musikagela Donostia Kulturaren zerbitzu izarretako bat baino askoz gehiago da dagoeneko. Hiriko erreferente bat da musika amateurraren munduan, eta horri esker musikari donostiarren erkidego bat du etengabe berritzen.

Batetik, erabiltzaileek aholkularitza-zerbitzuak dituzte, ekipoak aloka ditzakete maketak grabatzeko eta zuzeneko emanaldietarako, saio-aretoak eta kultur etxeetan egonaldiak egiteko programa. Horri guztiari gehitu behar zaio musika-prestakuntza espezializatuaren eskaintza (soinua, grabazioa, Djak eta musika-tresnak: bateriak gozatzea, tresnak doitzeko lantegiak), zeina sendotu egin baita 2019an Donostia Kulturak eskaintzen duen urteko programazioan, **15 ikastaro** eskainita.

Bestetik, etengabe ari da lanean **bertako taldeak sustatzeko eta haien lanari zabalkundea emateko**, ekipamendua, kontratazioa eta publizitatea Donostia Kulturako ekitaldietan baldintzarik onenetan daudela ziurtatuz.

2019an, **DKluba** zirkuituaren bitartez, hilero egin dira kontzertuak tabernetan, eta bertako taldeek

eman diete hasiera Intxaurren Kultur Etxean talde ospetsuen kontzertuei. Orobat, zerbitzuak lekua bermatu zien bertako taldeei zenbait jaialdi jendetsutan, hala nola **IX. Musikaren Eguna**, **V. Glad is the Day**, **Kontzertour**en (Olatu Talka), eta protagonismoa izan zuten **IX. Musikagela Weekend**en eta, bereziki, **II. Musikagela Fest**en.

Azkenik, aipatu beharrekoak dira sortu diren sinergiak, hala nola **Poesiaren astea**, non zuzenean jo eta inprobisatu baitzen musika Egia eta Intxaurren kultur etxeetan.

Hiria gero eta hobeto ohartzen da ezen, zerbitzua ez ezki, **Musikagela** haztegia dela sorkuntzarentzat eta bertako talentuak agerian jartzeko. Gune partekatua eta irekia, gaur egungo musika-eszenaren joerak eta beharrak jasotzen jarraitzeko desafioari erantzuteko.



The Limboos, Glad is the day



Al Tran Tran, Poltsiko Antzerkia



Korner, Kultura & Futbol Festibala

POLTSIKO ANTZERKIA

Otsailaren 7tik 24ra bitarte egin zen **Poltsiko Antzerkia**, eta 28. ediziora iritsi zen 2019an. Programak **25** gune/agertoki izan zituen hirian zehar, eta 33 emanaldi eskaini zituen (bi-lau eguneko, Donostiako zenbait lekutan).

Jaialdi hau zubi ezin hobea da formatu txikiko antzerkira hurbiltzeko, eta arrakasta handia izaten du urtero ikus-entzuleen kopuruaren aldetik. Azken edizioan, hain zuzen, **3.000 lagunetik gora** izan ziren. Guztira, **17 konpainiak** eskaini zituzten umorezko lanak, drama eta musika; batzuk talde-lanak izan ziren, eta beste batzuk bakarkakoak.

Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere euskal sorkuntzak leku nabarmena hartu zuen: 17 funtzio euskaraz izan ziren. Generoari dagokionez, hamar ikuskizunetan emakumeak izan ziren protagonista, zazpitan bietarik, eta 16tan gizonezkoak.

Amaierako jaietan, zeinean 250 lagun bildu baitziren, topaketa-

gunea eskaini zen aktore eta ikus-entzuleentzat; oso esperientzia polita eta jostagarria.

Edizio honetan, gainera, ikus-entzuleen parte-hartzea eta interesa sare sozialen bidez nabarmendu ziren, interakzio asko izan baitziren Twitter, Instagram eta Facebook-en.

KORNER 2019

Korner, Kultura & Futbol

Festibalak sendotu egin zuen bere proposamena 2019ko **bigarren edizioaren** ondoren, non **2.000 lagun** izan baitziren, sortutako interesaren adierazgarri. Urrats garrantzitsua Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak bultzaturiko programa honentzat, zeinak kulturaren eta futbolaren arteko loturak arakatzeko baititu zenbait ikuspegi eta arlotatik.

Realaren eta Athletic-en arteko derbiak, gizonezkoenak zein emakumezkoenak, eta egun emakumeen futbolariek duen goraldia izan ziren bigarren edizioko ardatz nagusiak. Hiriko zenbait lekutan egin zen, otsailaren 4tik 10era bitarte, eta **Bertso derbia** ekinbide

arrakastatsua izan zuen sarrera gisa, zeinaren XII. edizioa egin baitzen otsailaren 3an Antzoki Zaharrean.

Korner-eko jardueretan kultura, futbol eta kazetaritzako pertsona nabarmenak izan ziren: Luis Arconada, José Ángel Iribar, Vero Boquete, Nahikari García, Aintzane Encinas, Olga Viza, Michael Robinson, Martín Caparrós, Karlos Argiñano, Eneko Atxa, Andoni Egaña, Jon Maya, Koldo Almandoz, Gari, Ana Malagón edo Kukai Dantza konpainiak, zeinak **Kirol legez / Fair play** lana estreinatu baitzuen, futbolaren eta kulturaren arteko loturak eta kirol erregearen diren gizarte-eztabaidak jarri zituzten agerian.

Nabarmentzekoak, halaber, **Emakumeek ere jokatu egiten dute** kale-erakusketaz gozatu zuten 1.500 lagunak. Erakusketa horrek emakumeen futbolaren historia jarri zuen ikusgai, hasi XIX. mendearen amaierako britainiar aitzindarietatik eta egungo leherketaraino, edota jaialdiko webean ikus daitezkeen bideoen 1.200 ikustaldiak.

Izan ere, **korner.eus-en aukera egon da programaren osagai eta dinamika gehiagoz gozatzeko**, 19 bideo igo baitziren webera, eduki berriekin eta jaialdian gertaturikoaren laburpen batzuekin.

Orobat, edizio honetan hiru kontakizun berri eman ziren argitara: Martín Caparrósek **Cogerse las gashinas** idatzi zuen, eta Aritz Gorrotxategi eta Galder Reguerak, berriz, **Urdin-gorri**. Inprimatutako kontakizunetatik, 4.000 ale banatu ziren Anoetako estadioan, jaialdiko jardueren egoitzetan eta Donostia Kulturaren kultur etxeen sarean. Orobat, kontakizun digitalak zintzilikatu ziren **korner.eus**en, non online irakur baitaitezke.



Jarduerak

	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	8.172	407.630
Antzerkia	527	50.225
Dantza	95	13.976
Musika	144	37.238
Zinea	215	11.516
Hitzaldiak eta mahai inguruak	227	16.978
Erakusketak	91	145.206
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	3.148	48.924
Liburutegiko jarduerak	1.046	21.284
Plus 55	384	23.592
Olatu Talka	62	9.501
Gazteleku	821	10.375
Haurtxoko	1.125	16.010
Beste	287	2.805

Zerbitzuak

	Bisitaldiak
GUZTIRA	677.860
Liburutegia	504.002
Ikasgela	3.987
Gazteleku	10.229
Haurtxoko	13.388
KZgune (Nabigazioak)	38.444
Altzako bilduma	295
Casares Irratia	403
DK Irratia / Casares web	7.830
Alta bilduma web	89.347
Bideo tailerra	2.476
Musikagela	2.208
Musika eskola	4.850
Plus 55	401

Prestakuntza

	IKASTAROAK	ERABILTZAILAK	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	1.190	12.475	
GUZTIRA	1.190	8.932	3.543
Euskaraz	155	1.425	471
Gaztelaniaz	731	6.472	2.491
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	285	3.220	1.198
Euskaraz	69	632	202
Gaztelaniaz	216	2.588	996
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	283	3.453	1.215
Euskaraz	73	739	240
Gaztelaniaz	210	2.714	975
GUZTIRA KZgunea 18/19 - 19/20 Ikastaroak	318	1.224	245
Euskaraz	13	54	29
Gaztelaniaz	305	1.170	520
GUZTIRA KZgunea Beste erakundeak	304	1.035	581

KULTUR ETXEETARA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 1.026.579



Azken urteotan, Aiete Kultur Etxeko lan-ildo batzuk auzoan finkatu dira. Horren erakusgarri izan ziren 2019an **Poltsiko Antzerkia** eta **DKluba** Antzerki Jaialdia, azken horrek herriko musika taldeak auzoetara eramaten dituen programa. Aurten ere, lehen aldiz, antzerkia kalean programatu zuten maiatzean eta ekainean, irailean gainera, ohi bezala, Aieteko jaien harira. Ekitaldi hauek oso arrakastatsuak eta parte-hartzaileak izan ziren, auzoko txoko ezberdinak biziberrituz. Izan ere, nahiz eta festa hauek Donostiako berrienetakoak izan, gero eta jende gehiago erakartzen dute, era horretan, kultur etxeak eskaintzen dituen antzerki lanak, puzgarriak, bertsolariak, tailerrak eta abar ezinbesteko hitzordu bihurtu dira auzotarrentzat.

Bestalde, eta kulturgunera itzuliz, **lustratzailearen txokoa** bertako artistekin duen konpromisoaren isla da. 2019an bertatik pasatu zirenek, beren altxorren erakusgarri utzi zuten. Adibidez, **Dani Fanok** bere komikiak utzi zituen, **Andrea Escargotek** guraizeekin egindako eskuzko lanak, **Iker Ayestaranek** bere eskulturak, **Yolanda Mosquerak**



Ilustratzailearen txokoa, Iker Ayestaran



Dennis salbatu, Ted van der Hulst

bere ehunak eta **Asier Iturraldek** bere mugimenduko figurak.

Bertako musikariek, bestalde, Aieten ere badute beren tartea. Hala, **Musiklasik** saioan, **Kurtag** haize boskoteak, **Miren Urbieta-Vegak**, **Ruben Fernandezek** eta **Joana Otxoa de Alaizak** parte hartu zuten. Bestalde, **Ipuinak musikarekin** programaren barruan, haurrek harpa, biolontxelo, ukelele, gitarra elektriko eta zuzeneko txirulaz gozatzeko aukera izan zuten.

Giza eskubideen eta bakearen gaiak, zeina Aieteko berezko zigilua baita, garrantzi berezia izan zuten erakusketen programazioan: **Rohingya exodoa**, Mugarik Gabeko Medikuekin, Giza Eskubideak jorrotzen zituen Unesco Etxearekin; Bakerako Lankidetzeta Batzordearena, **Palestinako emakumeen kooperatibak aztertu zituen**, eta abar; izan ere, testuinguru horri dagokionez, giza eskubideena, hiru erakusketa aipagarri izan ziren.

Lehenik eta behin, **Dennis salbatu**. **Ted van der Hulst** argazkilaria holandarrak **JAAN** (Jakarta Animal Aid Network) elkartearen

lana erakutsi zuen bere irudien bidez, **Dennis** orangutan txikiaren istorioa kontatuz. Sumatra eta Borneo uharteetan bizi diren tximino handiak dira orangutanak. Palma olio ateratzeko landaketak amaitzen ari dira desagertzeko arriskuan dauden animalia horien habitat naturala diren azken basoak. Horren harira, oreka ekologikoaren, iraunkortasunaren eta animalien eskubideen inguruko hausnarketa bilatzen du dokumentalak.

Frida Kahlo artista eta aktibista berriz, 2019ko erakusketako arrakastatsuenetakoa izan zen. Erakusketa honek artista mexikarraren biografia berreskuratzea zuen helburu, ikonoaren atzean dagoen pertsona ezagutarazteko. Emakume indartsua zen Frida, hartz feminista eta femeninoa. **Aitziber Alonsok** egin zituen komisario lanak, Fridaren biografian oinarritutako ilustrazioak marraztuz. Gainera, Kahloren artelanen irudiak eta izaeran inspiratutako objektuak egon ziren ikusgai. Aipatzekoa da Paoletta Balmelli artista suitzarrak erakusketa honetarako egindako murala. 1954an, hil ondoren, izan du Frida Kahloren bizitzak eta lanak



Frida Kahlo, artista eta aktibista. Aitziber Alonsoren marrazkia-bertikala



Espido Freire



oihartzun handiena, mundu mailan mexikar kultura eta feminismoaren aldarrikapen sinbolo izan daiteke.

Azkenik, emakumezko autoreak ezagutarazteko bide horretan, Aietek beste erakusketa bat egin zuen, oraingoan berak sortua: **Jane Austen, bizitza eta obra, Jane Austen 's House Museum**eko irudiekin, eta Maite Gurrutxagaren ilustrazioak, proiektu honetarako espresuki egindako *Harrotasun eta aurreiritzi* eleberriko pasarteetan inspiratuak. Erakusketa hau Literaktum literatur jaialdiaren barnean egon zen, non, beste jarduera osagarri batzuen artean, **Espido Freire** *Querida Jane, querida Charlotte*, eskainitako hitzaldia ere nabarmendu zen, Jane Austen eta Brontë ahizpen munduan, bizitzan eta obran sartzea ahalbidetu zuena.

Halaber, Literaktum jaialdia zela eta, Paristik ekarri zuten **Princesses** erakusketa originala, nazioartean ezaguna den **Rébecca Dautremer**

ilustratzaile frantsesarena, hainbat artelanetan oinarritua.

2019an ere, Aiete izan zen berriz ere **haur literaturaren** egoitza nagusia Literaktum jaialdiaren barruan. Musikaz lagundutako antzerki eta ipuinez gozatu ahal izan zen eta, berritasun bezala, musikari profesionalen kontzertu didaktiko batez; eta **Haurtxokoan, Andrea Escargot** ilustratzailearen ilustrazio tailerrera joateko aukera zoragarria egon zen.

Bestalde, **ikastaroen eskaintza** kultur etxeen atalik erakargarrienetakoa eta erreferentziarik handienetakoa da, eta zentzu horretan, Aieten, 2019-2020 ikasturtean, berrikuntzak izan ziren. Horien artean **Aieteko Gero Axular** dantza taldeak antolatutako ekimena nabarmendu zuen. Euskal jantzi tradizionalak berreskuratzeko eta birsortzeko tailerrak egin ziren, eta, aldi berean, erakusketa txiki baten bidez, baserritarrez dotore

janzteko argibideak eman ziren. Beste ikastaro berri batzuk ere izan ziren, interes handia piztu zutenak, *La época romana en Euskal Herria* eta *Vesubio* sumendiaren erupzioaren ondorioei buruzkoa, **Maria Jose Noain** arkeologo eta antropologoak zuzenduta.

Liburutegi zerbitzuak, urtero bezala, bere ohiko jarduera osagarriez gain, irakurzaletasuna sustatzeko lanarekin jarraitu zuen, auzoko eta hiriko hainbat ikastetxerekin batera, liburutegira bisitak eta saio bereziak antolatuz. Gainera, **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen** liburutegien arteko maileguari ekin zitzaion, eta, orain, liburuak eska daitezke eta sareko liburutegi batetik bestera bidal daitezke, maileguan hartzeko eta, gero, eskatu ziren liburutegian bertan itzultzeko.

Haurtxokoak, lehen aipatu bezala, erreferente izaten jarraitu zuen eta haurrentzako topagune garrantzitsua. Hona hemen landu ziren gaietako batzuk: genero-berdintasuna, familien konpromisoa, teknologia berriak eta abar, zentro honen izaeraren isla eta ardatz direnak. 2019an zehar, nabarmentzekoa da *Tantaz-tanta* sarearen proiektuak interes handia piztu zuela plastikoaren erabilerari buruz.

Bestalde, **Gaztelekuan** gazte taldearen jarraipenak jarduera ezberdinak aurrera eramatea ahalbidetu zuen. Taldea oso aktibo egon zen, eta bere parte-hartzea handia izan zen. Urteko egitarauaren oinarrian jorratu ziren gaien artean giza eskubideak, artea eta bizimodu osasungarriak egon ziren, besteak beste.

Laburbilduz, esan liteke, 2019an, oraindik hedatzen ari den Aiete auzoan, Kultur Zentroak, kultura sustatzeaz gain, gizarte-kohesioa indartu zuela.



Jarduerak

Kopurua Erabiltzaileak

GUZTIRA	617	30.125
Antzerkia	14	1.529
Dantza	0	0
Musika	8	641
Zinea	73	1.610
Hitzaldiak eta mahai inguruak	25	1.566
Erakusketak	19	12.201
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	106	5.364
Liburutegiko jarduerak	111	3.117
Olatu Talka	2	296
Gazteleku	61	645
Haurtxoko	197	3.111
Beste	1	45

Zerbitzuak

Bisitaldiak

GUZTIRA	64.520
Liburutegia	59.317
Ikasgela	0
Gazteleku	1.223
Haurtxoko	3.980

Prestakuntza

IKASTAROAK

ERABILTZAILEAK

GUZTIRA	65	900	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	65	669	231
Euskaraz	17	165	52
Gaztelaniaz	48	504	179
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	32	339	119
Euskaraz	8	88	33
Gaztelaniaz	24	251	86
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	33	330	112
Euskaraz	9	77	19
Gaztelaniaz	24	253	93

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 95.545



DONOSTIA KULTURA IRRATIA

2019. urtean, Casares Irratia beste urrats bat egin eta **Donostia Kultura Irratia** bihurtu da. Bere izateari eutsiz, Donostiako eta inguruetakokultur leihobihurtzeko asmoa du. Inguruan duen ekosistema zabalari begiratzen dion leihoa, betiere kultura interesatzen zaienen ikuspuntutik.

Horretarako, dituen bitartekoak hobetzeaz gainera, **sendotu egin du programazioa, Bestalde** eguneroko kultur magazin berriaren bitartez, zeina **Ion Olano Carlos** donostiar kazetariak aurkezten baitu. Ardatza kultura du, eta bihotza, berriz, herritarrek.

Irratia duela 30 urte sortu zen, lantegi gisa, eta halaxe jarraitzeko asmo sendoa du. Soinu-tekniketan eta komunikazio mintzatuan **prestakuntza**-leku izaten jarraituko du, eta, beti bezala, **estudioak herritarren zerbitzurako izango ditu.**

Bestalde, irrati-ikastaroen eskaintza (arlotan horretan eskarmentu handia duten profesionalen eskutik) ugaria izan da. Irrati-ikastaroan, esate baterako, ikasleek Jose Joaquín Forcada *Forki* eta Sergio Errasti Onda Vascako profesionalen eskutik ezagutu eta ikasi ahal izan dituzte arlotan eta osagai guztiak: lokuzio-teknikak, gidoiak, alderdi teknikoak, eta abar. Beste ikastaro batzuk ere eskaini dira, hala nola *Ahotsarekin jolasean*, Maider Gorostegik emana, eta *Radio-teatro*, Inko Martinek.

Donostia Kultura Irratiaren aurkezpena urriaren 21ean egin zen, eta Donostiako ordezkari politiko gorenek hartu zuten parte, bai eta komunikabideek, irrati-lokutoreek eta kultur kazetariak ere. Hiru une izan ditu habiarakoan: Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean, zuzenean eman zen **Begoña del Tesoren eta Beñat Iturrioren arteko solasa**, eta gainera **Inko Martinek zuzenduriko irrati-antzerki bat erretransmititu zen**. Literaktum jaialdian, berriz,

Iratxe Retolaza, Lourdes Oñederra eta Itxaro Borda aritu ziren uhinetan, eta, amaitzeko, DKlri esker, Harkaitz Cano eta Maite Larbururen emanaldiaz gozatu ahal izan genuen.

Gainera, eta ohikoak diren beste dinamika batzuei segida emanez, **HAMAIKA ENTZUTEKO! irrati-piezentzako V. lehiaketako** sarien banaketa egin zen, zeinean, saritutako lanak ezagutzera emateaz gainera, zuzeneko irrati-antzerki batez gozatzeko aukera egon baitzen.

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxetik emititzen du, **FM 107.4** sintonian, eta badago entzuterik donostiakultura.eus url- an ere. Garrantzitsua da hori, ze irrati digitalak eduki eta zerbitzu bereziak eskaintzen baititu. Esate



"Hamaika entzuteko!" irrati saioaren sari banaketa



DK Irratiaren saio berezia



baterako, grabatutako programa guztietarako sarbide librea dago, bai eta Donostia Kulturaren podcast askotarako ere. Zerbitzu horri esker, modu berezian jasoko dira Altzako auzoarekin zerikusia duten emisioak, eta hartara gure Tokiko Bildumako funtsak zabalduko ditugu.

ALTZAKO TOKIKO BILDUMA

Altzako Tokiko Bildumak 17.690 dokumentu katalogatu ditu

dagoeneko (807 dokumentu katalogatu ziren 2019an), eta horietatik 13.981 Internet bidez kontsultatu daitezke webean (2018an baino 905 gehiago).

Dokumentuen bilaketa zenbait bidetatik egin daiteke. Batetik, hemerotekan, Gerra Zibilari buruz; aurreko urtean hasitako bilaketari jarraitu zaio, El Diario Vasco, Hoja del Lunes, Vida Vasca eta Frente Popular argitalpenak hustuz. Dokumentu horiek katalogatuta eta webean argitaratuta daude. Bestetik, ikus-entzunezkoen sailean, lan handia egin da bideoak digitalizatzen eta katalogatzen; nabarmentzekoak, Emakumeen Astearen inguruan antolaturiko ekitaldiak.

Bildumaren **zabalkunde**an, datu eta jarduera esanguratsuak daude. Lehenik, indarrean jarraitzen dute webaren erabiltzaileek eta orrialdeari egindako bisitek. Hain zuzen ere, **3.741** izan dira erabiltzaileak (aurreko urtean baino **510** gehiago), eta bisitak, berriz, 89.347 (2018an baino 15.850 gehiago)!. Bestetik, kontsulta-zerbitzuak **bederatzi**



Zertan ari gara

ikerkuntzatarako informazioa eman du. Bildumaren zabalkundeari buruzkoak bukatzeko, aipamen berezia merezi du **Altzathlon** argazki zaharren erakusketak, zeina Garbera merkataritza-gunean inauguratu baitzen azaroaren 18an, eta Altzan azken ehun urteetan izan diren kirol-gertaerak azaltzen baititu. Aurreko urtean izandako arakasta du oraingoan ere.

ARTE ESZENIKOAK

Arte eszenikoei dagokienez, 2019an ondo errotutako zikloek segida izan dute, hala nola Poltsiko Antzerkiaren jaialdiak edo Kale Antzerkiaren zikloak, helduentzako zein familientzako lanak eskainiz. Eta Larratxo Kultur Etxean Haurrentzako Antzerkiko lan kalitatezko aukeratuak eta antzerki amateurraren emanaldiak konbinatuz jarraitu da.

2019an, Larratxo Kultur Etxean **ADOS Teatro** taldea izan dugu **egoitzaldi artistikoan**, **Lloviendo ranas / Igel euria** lanarekin, zeina

otsailean emango baita, Lugaritz Kultur Etxean. Antzezlan hori **Que nadie camine por mi mente con los pies sucios** (Derechos Humanos a Escena, 2019) sorkuntza-laboretegian lortutako material dramatikoetik atera da. Buru-gaixotasuna diagnostikatu zaien hamalau lagunek jardun zuten, gaixotasun horiek berekin duten gizarte-estigmari eta autoestigmari buruzko ikuskizuna sortzeko. Gisa horretako gogoeta Arte Eszenikoetatik hedatzeko sortu da ikuskizun berri hori, non buru-gaixotasuna diagnostikatu dieten bi aktorek eta beste hiru lagunek jardungo baitute. Antzerki-hizkuntza ez-konbentzionala erabiltzen da, erritmo bizikoa, une batzuetan komediara ere hurbiltzen delarik. Egoitzaldian, saio parte-hartzaile bat egin zen, AGIFES elkartearen lankidetzarekin.

Bestalde, Teresa Calo aktore, gidoigile eta zuzendariaren eskutik, **Zertan ari gara?** aurkeztu zen Larratxon. Lan hori umoretik egina da, eta gogoeta eragiten



du nerabeek egunez egun bizi dituzten gaien inguruan; gizarte osoari eragiten dion beste gai bat jartzen du begiradapean: genero-berdintasuna. Emanaldi bakoitzaren ondoren, **gogoetlantegia** egin zen antzezlanean agertutako gaiez. Ikertzek eta ArtekLabek sortu zuten lantegia, eta **600 nerabek baino gehiagok** hartu zuten parte.

MUSIKA

Musika-arloan, **Rhapsody of Fire**, **Soziedad Alkoholika** eta **Obus** rock taldeek, besteak beste, Larratxo Kultur Etxea bete dute 2019an. Baina entzun ahal izan ditugu **Izaki Gardenak**, **Hilotz**, **Angelus Apatrida**, **Overload**, **Primordial**, **Crisix**, **Serge**, **Onki Xin** taldeak ere, edo **Sega Sound Killers**en musika elektronikoa, besteak beste.

Abesbatzen musikak bere lekua izan du beste urte batez, Tolosako Abesbatza Lehiaketarekiko lankidetzari esker. **The Korrikan Consort** (Erresuma Batua) taldeak hartu zuen parte.

BESTELAKO JARDUERAK

Zinea

Proiektzio asko eskaini dira bai Tomasenen eta bai Larratxon. Batzuk, haurrentzako zinearen zikloan, beste batzuk +55 programaren baitan, eta gehienak dokumental generokoak, Giza Eskubideen Zinemaldiaren eta Hileko Dokumentala zikloaren bitartez.



Izaki Gardenak, Altzatarock

Prestakuntza

Prestakuntzarako eskaintzak, iraupen desberdineko ikastaroen bitartez, bere betekizuna izan du 2019an ere: arlo sorta zabala eskaintzea herritarrei, bai eta topaguneak eta parte hartzeko lekuak ere. Parte-hartzaileen kopurua aurreko urtekoaren parekoa izan da, eta lanean jarraituko dugu desafio eta premia berriei erantzuteko.

Auzoarekin batera

Gizarteari interesatzen zaizkion gaiak, hala nola ingurumena, genero-berdintasuna edo hezkuntza, ardatz dira **Altzako elkarte eta erakundeekin batera antolaturiko**



Oihulari Klown, Emakumeen Astean

jardueren zenbait ziklotan. Proposamen horri esker, **Cesar Bonaren** iritzia entzuteko aukera izan genuen, arrakastaz, porrotaz eta haur eta nerabeak baldintzatzen dituzten igurikapenez, hezkuntzari eskainitako jardunaldietan. **Emakumeen Astean**, berriz, Diana López Varela idazle gaztearen solasaldiaz gozatu genuen, eta Naturaldiak proposamen dibulgatzaileak eta parte-hartzeak eskaini zizkigun, gure inguruko natura ezagutu, aintzat hartu eta hartaz gozatzeko.



Bertsolaritza

XVIII. Bertso Aroan bertsolari ezagunek hartu zuten parte: **Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Unai Iturriaga, Alaia Martin** eta **Uxue Alberdi**. Baina horrez gainera, ahots berriak entzuteko parada ere izan genuen, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen-faseko saioetako bat izan baikenuen.

Literaktum

Literaktum jaialdia Altzara iritsi zen 2019an ere, **Ibon Martín** idazle donostiarraren eta **Eduardo Yañez** kazetariaren arteko solasaldiaren bidez.

LIBURUTEGIA


2019an, Larratxoko **liburutegia** eraberritzeko eta hobetzeko lanak egin ziren, bai alderdi fisikoari dagokionez, bai funts bibliografikoei, berrantolatu eta jorratu egin baitira irakurleen beharrei hobeto erantzuteko.

Bi liburutegietan, helburu nagusia irakurketa sustatzea izan da, eta horretarako, besteak beste, arrakasta handiz jarraitu dugu parte hartzen **Irakurle gazteak** eta **Motxila txikia** bezalako programetan. Aurreko urteetan hasitako jarduerak ere segida izan dute; **Liburu Baby Kluba** edo **Literatur Txokoa**, besteak

beste, ezinbestekoak dira Kultur Etxe honen programazioan. Horrek guztiak mailegu-kopuruak zertxobait gora egitea ekarri du.

PLUS 55

Plus 55 programak proposamenak egiteko bidea eskaini zien betiere nagusiei, kultura- eta hezkuntza-jarduerak antolatzeko. Egindako jarduera guztiek harrera ona izan zuten, eta berriz ere erreferente garrantzitsua izan ziren auzoko nagusientzat.



Uxue Alberdi, bertsolaria



Ibon Martín, Literaktum



Casares / Tomasene Kultur Etxea

Kopurua Erabiltzaileak

Jarduerak

GUZTIRA	468	16.577
Antzerkia	27	2.276
Musika	9	853
Zinea	18	688
Hitzaldiak eta mahai inguruak	14	938
Erakusketak	2	584
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	225	8.376
Liburutegiko jarduerak	111	996
Plus 55	51	833
Olatu Talka	2	900
Beste	9	133

Bisitaldiak

Zerbitzuak

GUZTIRA	167.298
Liburutegia	66.062
KZgune (Nabigazioak)	3.361
Altzako bilduma	295
Casares Irratia	403
DK Irratia / Casares web	7.830
Altza bilduma web	89.347

IKASTAROAK ERABILTZAILEAK

Prestakuntza

GUZTIRA	157	1.236	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	157	820	301
Euskaraz	11	57	25
Gaztelaniaz	146	545	276
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	31	274	130
Euskaraz	6	30	16
Gaztelaniaz	25	244	114
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	29	250	111
Euskaraz	5	27	9
Gaztelaniaz	24	223	102
GUZTIRA KZgunea 18/19 - 19/20 Ikastaroak	26	78	60
GUZTIRA KZgunea Beste erakundeak	71	218	115

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 44.697



Larratxo Kultur Etxea

Kopurua Erabiltzaileak

Jarduerak

GUZTIRA	254	13.977
Antzerkia	36	2.051
Dantza	12	1.218
Musika	15	3.104
Zinea	1	140
Hitzaldiak eta mahai inguruak	2	315
Erakusketak	4	655
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	143	3.302
Liburutegiko jarduerak	25	183
Plus 55	11	1.949
Olatu Talka	5	1.060
Beste	9	133

Bisitaldiak

Zerbitzuak

TOTAL	21.076
Liburutegia	21.076

IKASTAROAK

ERABILTZAILEAK

Prestakuntza

GUZTIRA	9	189	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	9	170	19
Euskaraz	1	21	1
Gaztelaniaz	8	149	18
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	5	95	44
Euskaraz	1	21	1
Gaztelaniaz	4	74	18
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	4	75	6
Gaztelaniaz	4	75	6

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 24.857



2019an **komunitate-lana** nabarmendu behar da. Egia Kultur Etxea **ERLAUNTZA** proiektuan sartzeari aurrerapen handia izan zen bertan, ohiko dinamikari ekimen berriak gehitu baitzitzaizkion.

ERLAUNTZAren helburua konfiantza handiko harremanak sortzea da auzoetan lan egiten duten pertsonen artean. Ekinbide horretan, honako hauek hartzen dute parte: OSI Donostialdea, Donostiako Udala, Donostia Lagunkoia, Gizarte Ekintza, Osasun Sustapena, Donostia Kirola, Donostia Kultura, Plus 55, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte, Cristina Enea eta UBIK. Denen artean lan-taldea eratu dute, auzoa ikuspuntu desberdinetatik ezagutzeko eta programei elkarrekin ekiteko. Egia Kultur Etxean, zenbait **proiektu** jarri dira martxan.

DANTZA

Ondoko izeneko proiektua konfiantza-harremanak landu zituen Egia auzoan, antzerki eta dantza komunitarioaren bitartez. Adin guztietako pertsona askok hartu zuten parte; gehienak, nagusiak. PLUS 55 dantza garaikideko taldeak, zeinari Igor Calonge dantzari eta koreografoak ematen baitizkio eskolak hirugarren urtez segidan, proiektu berri bati ekin zion: *Adindunentzako Irakurketa Kluba*.

Dantzategiak bere lana egiten jarraitu zuen auzoan, zenbait gune erabiliz eta auzoko eta kanpoko jendea erakarrit. **Dantzazek** eta **Donostia Kulturak** jarduera horren zazpigarren edizioa antolatuta zuten, sorkuntza koreografikoa eta lurraldea elkartzeko asmoz, hiriko espazioak dantzatik okupatzeko eta birformulatzeko. Egia auzoko kale eta dendetan

hartu zuen parte jendeak **Dantzategia** proiektuan, Claudia Lavista koreografo mexikarrak eta Dantzaz-eko kideek bi astez jardun zuten, Iñigo Agerri musikaria lagun zutela. Sorkuntza-lan horietan, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako kideek, Anaiak akademiak eta Trebeska dantza taldeak ere hartu zuten parte.

ARTE ESZENIKOAK

Arte Eszenikoei dagokienez, eginkizun garrantzitsua izaten jarraitu zuten, ikuskizunak erakustez gain, **sorkuntzari eta ekoizpenari** presentzia emanez. Zenbait konpainiak parte hartu zuten **egoitzaldi-programan**, non laguntza eta aholkularitza teknikoa eta logistikoa ematen baitzitzaizen beren sorkuntza-proiektuetan. **Judith Argómaniz**,



Ehiza, Hector Plaza & Agnes Sales



Aracaladanza Play, Pedro Arnay



Amaia Elizaran, Jaiotz Osa

eta **Xabi Mujika** konpainiek, besteak beste, hartu zuten parte programa horretan, eta euren proposamenak Gazteszenan aurkezteko aukera ere izan zuten. Proiektu horien emaitzak 2019an estreinatu ziren.

Arte-bitartekaritzako jarduerak

ere gero eta presentzia handiagoa dute kultur etxean. Batetik, konpainia batzuek dantzaren inguruko **sentsibilizazio-programa** batean hartu zuten parte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren **Dantzagunea** zerbitzuarekin lankidetzan. Eskola magistralak, hitzaldiak eta erakusketak eskaintzen ziren erregulariki, Gazteszenak eskaintzen zuen programazioarekin koordinatuta.

Gainera, 2019an **Artedrama, Axut!** eta **Dejabu** antzerki-kolektiboen proposamen berri bat izan zen, **Zaldi urdina**, zeinaren zazpi

funtzio eman baitzituzten. Saihoek 1.750 pertsona bildu zituzten, hots, urteko antzerki-gertaerarik interesgarrienetako bat izan zen, ikus-entzule euskaldunak eta adin askotakoak erakarri zituena. Aldez aurretiko sarrera-salmenta oso ondo joan zen, eta helduentzako saio guztietan bete zen aretoa.

Agertoki hartan jarraituz, dantza garaikideak ere une onak izan zituen, **Eusko Jaurlaritzaren Dantza Eszenako** eta **Dantza Zirkuitua** programei esker.

Antonio Ruz, Ana Vallés eta **Diego Sinniger**, lehen mailako artistak dantzaren arloan, Gazteszenan izan ziren. Eta ezin ahaztu **Barrexerka** kolektibo amateurraren lan bikaina, ikus-entzule gazteei aurkeztu baitzituzten antzezlanak, ez eta **Maylis Arrabit** koreografoaren **Habr  que ponerse cachas** dantza-proposamena ere, **Kolorearekin** kolektiboarekin.

MUSIKA

Bestalde, 2019an **Buenavista Prollection's**ek antolatutako musika-proiektu batean hartu zuen parte, Egiako **Pelax** bandarekin. Taldearen disko berriaren produkzioan eta aurkezpenean jardun zuen kultur etxeak, eta **kontzertu** didaktiko irekia eskaini zen, batez ere eskola-haurrei zuzendua. Hartara, bitartekaritza-lan praktikoa eta egiazkoa egin zen auzoko **Aitor** eta **Maria Reina** ikastolekin. Proiektu hori, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleei eskaini zitzaizkien, eta topaketa bat izan zen jarduera gauzatzen zuen taldearekin eta langile teknikoekin, bide horretatik gazteenei ezagutzera emateko zer-nolako alderdiak dituen gisa horretako musika-emanaldi bat produzitzeak eta lantzeak, agertokira pasatu aurretik.



Zaldi urdina, Artedrama + Axut! + Dejabu Panpin Laborategia



Glad is the day



Saio zero, Bilaka Kolektiboa

LIBURUTEGIA

Bestalde, **liburutegiak** topagune izaten jarraitzen zuen, jarduera sorta handia eskaintzen baitzitzaien era eta adin askotako hartzaileei. *Giza Liburutegia, Literatur solasaldiak, Irakurketa errazaren kluba, Ipuinaren ordua, Baby Liburu Kluba* dira, besteak beste, antolatzen ziren; horiez gainera, lantegi espezializatuak, haur eta gazteentzako literaturarekin lotuak horiek ere. Liburutegian, **Nerea Arrien, Harkaitz Cano, Katixa Agirre, Nerea Mendizabal** eta **Fito Rodriguez** idazleek, besteak beste, beren liburuak aurkeztu zituzten, erabiltzaileek parte-hartze handia duten programa batean aurkeztu ere, non autoreak harremanetan sar baitaitezke beren irakurleekin.

Lan-ildo horretan, **Mikel Iturriak** argitaraturiko **Javier Ortiz, Talento y oficio de un periodista** liburuaren aurkezpen-jardunaldiek interes handia piztu zuten bertaratu ziren entzule ugarien artean, eta

lehen eskutik ezagutu ahal izan zuten kazetari donostiarraren lana. Bi mahai-inguru egin ziren liburuaz, gehi antzezlan bat Gazteszenan, **José K Torturado**.

IKASTAROAK

Bestalde, **500 lagunek** baino gehiagok hartu zuten parte **23 arlotan** izaten ziren lantegietan; nabarmentzekoak, joskintza, altzariak zaharberritzea, jumping, funky, argazkilaritza eta dantza garaikidea. Gure Kultur Etxean, ikastaroek erakarmen handia dute parte-hartzaile ugariantzat.

AUZOKO ELKARTEEKIKO LANKIDETZA

Auzoko kolektibo eta elkarteekiko lankidetzaren zenbait ekinbidetan gauzatu zen: **Porrontxo jaiak, Ttan Ttakun irratia festa, Euskararen eguna, Zine forum, San Juan gaua, Zeinu-hizkuntzaren lantegia** eta **Zurumuru arrazisten aurkako lantegia**. Jarduera horiek guztiak Porrontxo jaien batzordearekin, Egia Bizirik, Egian euskaraz, Ttan Ttakun Irratia edo SOS Arrazakeriarekin lankidetzan egin ziren.

Azpirarratzekoa, halaber, Kultur Etxetik kanpo egin ziren programak ere, zenbait jarduera Egia auzotarrei hurbiltzeko: **Kale Antzerkia, Poltsiko Antzerkiaren Jaialdia, Adindunentzako antzerki lantegia, Glad is the Day...** plaza, parke eta auzoko zenbait aretotan egin ziren, eta bizia eta dinamismoa sortuz.

Ildo horretan, DANDAI emakume elkarteak agur esan zigun, Egian 50 urtez lan baliotsua egin ondoren. Agurrean, bideo-dokumental bat eskaini zuten, non emakume talde horrek auzoan egindako lana eta borroka kontatzen baita.



Pelax



GAZTE ZERBITZUA

Gaztelekua gazte-zerbitzuak jarduera-programa betea antolatzen du, eta hartara parte-hartze aktiboa eta esperientzien trukea errazten ditu. Azpimarratzekoa da **Gau beltza** izeneko jarduera, zeinean Liburutegiak eta PLUS 55 zerbitzuak ere parte hartzen baitute. Lan-ildo interesgarria ireki da bi zerbitzuen artean, belaunaldi desberdinetako pertsonak sartu baitira bide horretan.

ERAKUSKETAK

Bi **erakusketa-aretoek** beren zeregina betez jarraitzen dute. Lehenak elkarten lanari ematen dio zabalkundea, eta besteak gazteen eta gaur egungo arte-produkzioari. 2019ko erakusketak honako hauek izan ziren: **Ekografia**, proposamen multidiziplinarra, **Sistole & Diastole** kolektiboak aurkeztua; **Zu barik eztau**, **J. A. Arrietaren** erretratuen erakusketa; **Los Omanis**, **Mikel Blascok** aurkeztua; eta **Fish Food**, arte garaikideko instalazio bat, **Pau Figueresen** sei eskulturak osatua.

MUSIKAGELA

37 musika-taldeek erabiltzen dituzte saio-aretoak. Zerbitzu honetatik, gainera, lan handia egiten da aholku ematen, sustapenean eta prestakuntzan. Urtez urte, dinamika honek lortzen du gero eta talde gehiago hurbil daitezela Musikagelara, eta gehitu egiten du, halaber, zuzeneko kontzertuen eskaintza.

HIRIKO JAIALDIAK

Hiriko ekitaldi handi batzuek musika, antzerki, zine eta dantza gehiago ekarri zituzten Egiara. **Giza Eskubideen Zinemaldia**, **Mojo Workin**, **Glad is the Day**, **Dantz** eta **dFERIAk**, besteak beste. **Olatu Talkaren** 10. edizioa ere iritsi zen Egiara, **Ongi etorri eskolara** elkartearen bitartez, zeinak *Gure oinek mundua mugitzen dute / Nuestros pies mueven el mundo* programako jolasak eta jarduerak egin baitzituen, erreferentetzat immigrazioa zutenak, eta hartara errealitate hori hurbildu zuten parte-hartzearen bitartez.

2019a urte garrantzitsua izan zen gogoetari eta aldaketari dagokienez Kultur Etxearen dinamikarentzat. Ezbairik gabe, proiektu eta jende berriak ekarriko ditu, eta, ondorioz, pertsonak eta komunitatea gehiago inplikatzeko ingurunearekin.



Olatu Talka Egian



Glad is the day, jarduerak



Jarduerak

Kopurua Erabiltzaileak

GUZTIRA	834	53.311
Antzerkia	75	14.887
Dantza	44	8.223
Musika	12	15.592
Zinea	18	529
Hitzaldiak eta mahai inguruak	9	407
Erakusketak	8	4.908
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	371	3.669
Liburutegiko jarduerak	134	1.851
Plus 55	15	1.845
Olatu Talka	2	590
Beste	146	810

Zerbitzuak

Bisitaldiak

GUZTIRA	27.951
Liburutegia	19.422
Ikasgela	3.987
KZgune (Nabigazioak)	2.557
Musikagela	1.525
Pluss 50	230

Prestakuntza

IKASTAROAK ERABILTZAILAK

GUZTIRA	285	3.398	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	285	1.826	1.572
Euskaraz	41	350	100
Gaztelaniaz	69	650	170
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	45	523	523
Euskaraz	17	144	29
Gaztelaniaz	28	277	73
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	45	661	661
Euskaraz	19	196	59
Gaztelaniaz	26	336	70
GUZTIRA KZgunea 18/19 - 19/20 Ikastaroak	20	47	39
Euskaraz	5	10	12
Gaztelaniaz	15	37	27
TOTAL Curso KZgunea Otras entidades	175	595	349

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 143.943



Ernest Lluch Kultur Etxeko erakusketa areto berria



Bernardo Atxaga, Literaktum

2019ak garrantzi berezia izan du Amara auzoko Ernest Lluch Kultur Etxearentzat. Izan ere, urtebetez erabiltzaileentzat itxita egon ondoren Anoetako futbol-zelaia birmoldatzeko lanak zirela-eta, Kultur Etxeak urriaren 14an ireki zituen berriro ateak, **instalazioak sakon eraberritu eta gero**, eta horrek komunikabideen interes bizia piztu zuen, eta are garrantzitsuagoa, baita auzotarrena ere, harrezkero Kultur Etxera etortzen hasi baitira berriro, aurrez baino bisita gehiago izateraino.

Berrirekitze horren bidez, amaia eman zaio Ernest Lluch-en erreformaren aldiari. Aldi horrek iraun duen bitartean, behin-behineko egoitza eman zaie programa eta zerbitzuei (esate baterako, liburutegia Arcco merkataritza-zentroan egon da, ikastaroak beste gune batzuetan, eta zinekluba eta beste jarduera batzuk Loiolako Erriberako IESU elizako ekitaldi-aretoan).

Kultur Etxe berriaren **hobekuntza** nabarmenen artean, azpimarratzekoa da, lehenik, orain ez dagoela banatuta bi egoitzatan, aurrez bezala, baizik eta bi solairuko gune bakarrean, zeinaren sarrera, gainera, etxabeen baitago, kalearen mailan. Etxabe berri horretan, ekitaldi-aretoa eta erakusketa-gela daude, aurrekoak baino handiagoak biak ere, askoz argiagoak eta hobeto hornituak. Hartara, hobetu egingo dira zentroko lan-ildo batzuk.

Bestetik, liburutegiak, lehen solairuan, erabat berritu ditu altzariak, eta berregokitu egin du espazioen banaketa. Emaizta liburutegi moderno bat da, erabiltzaileei gauzak errazteko pentsatua, gune berriak dituen, hala nola Jarduera Aretoa, Isiltasun Gela edo berrikuntzen eta gomendioen atala.

Eraberritzearen ondoren, gela bat gehiago dago, eta hartara Kultur Etxeak udal sareko ekipamendurik aurreratuen du. Hobekuntzaren emaitzak berehala nabaritu dira, eta urtea amaitu baino lehen, 2019-2020ko ikastaroen eskaintza berria zela-eta, Kultur Etxeak markak hautsi ditu, bai

ikastaro-kopuruari dagokionez, bai parte-hartzaile kopuruari.

Urrian, Kultur Etxea jarduera-programa betearekin berrireki zen, Ernest Lluch-en ildo nagusia azpimarratuz: **literatura eta eztabaida garaikidea. Luisa Etxenike, Unai Elorriaga, Hasier Larretxea, Raquel Lanseros, Karmelo C. Iribarren, Juan José Millás eta Iñigo Astizek** Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa bete zuten beren solasaldi eta irakurketen bidez lehen asteetan.

Oso harrera ona izan zuen, halaber, areto berrian eskaini zen lehen erakusketak: **Markaz Tulkarem: talde errefuxiatuaren itzulera, Joseba Zabalzaren** argazki-erakusketa, Palestinako egunez eguneko bitzita jasotzen duena errefuxiatu-eremu bateko futbol-taldearen eta haren zaleen bizipenen bitartez.

Literatur programazioak jarraipena izan zuen azaroan **Literaktum** Donostiako letra-jaialdiarekin, zeina Ernest Lluch-en hasi baitzen, **Bernardo Atxagaren** azken eleberriaren aurkezpenarekin, **Etxeak eta hilobiak**, hain justu ere Espainiako Letren Sari Nazionala eman zitzaion egunean.



Ez zen izan Literaktumek Ernest Lluchen izan zuen jarduera bakarra. *Emakumeen hitzak eta gorputzak* solasaldiak hiru idazle bildu zituen: **Eider Rodriguez, Lucía Baskaran** eta **Kattalin Miner**, zeinek literaturaren eta feminismoaren arteko harremanez jardun baitzuten, hori izan baita 2019ko Literaktumen edizioaren ardatz nagusia.

Literaktumen programan sartu da **Lur: kultura herriarentzat** erakusketa ere, Kultur Etxeak ekoitzia. **Beñat Sarasola** komisario-lanetan eta **MBR Exposiciones** eta **Koma Kultur Lanak** elkarteek ekoitzita, erakusketak Lur argitaletxearen ibilbidea jaso zuen, euskarazko argitaldarien aitzindaria 60ko urteen amaieran eta 70ekoen hasieran, Ramon Saizarbitoriaren **Egunero hasten delako** bezalako funtsezko lanak argitaratu zituela, beste askoren artean.

2019a **Korner**, Kultura eta Futbol Festibalaren bigarren edizioaren urtea ere izan da. Bigarren edizio

horretan, Donostia Kulturak eta Real Sociedadek bultzaturiko proiektuak **derbiaren ideien inguruan** eratu zuen programa, Real-Athletic derbian jarriz batez ere arreta. Solasaldiak, filmak, erakusketa eta proposamen eszenikoak, **kultura**ren eta **futbolaren** arteko loturak arakatzeko, izen ospetsuen eskutik arakatu ere: **Arconada, Iribar, Michael Robinson, Martín Caparrós, Nahikari García, Olga Viza, Koldo Almandoz, Gari**, besteak beste. Dantzak ere izan zuen bere lekua: **Jon Maia** eta **Kukai Dantza** haren konpainiak Korner-erako espresuki egindako proiektu bat estreinatu zuten Tabakalera, **Fair Play / Kirol legez**, zeinean 800 lagun izan baitziren.

Emakumeen futbola izan zen festibaleko protagonistetako bat, kale-erakusketa eta Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoko solasaldi bat eskaini baitzitzaizkion. Bien artean, azken urteetan izan duen gorakada aztertu zuten, eta emakumeek futbolearen izan duten inpaktu soziala.

Ernest Lluich aldi baterako ixteak ez zuen galarazi astelehenetako **zineklub**ak jende asko biltzen jarraitzea; kasu honetan, Loiolako Erriberako IESU elizara aldatuta. Kultur Etxea urrian berrireki ondoren, ekinbide arrakastatsu horrek, zeina Ares kolektiboak bultzatzen baitu 2003tik, leku zabalagoa eta hobeto hornitua izango du hemendik Aurrera, Donostiako zinefiloen bilgune garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzeko.

Beraz, Kultur Etxea aldi baterako itxi izanak, nolabait, jarduera-programa hirian barrena hedatzea ekarri du: ohiko programei, hala nola Poltsiko Antzerkia, auzoko zenbait tabernatan, eta Kale Antzerkia, Amarako jaietan, bi proiektu azpimarragarri gehitu zaizkie 2019an. Maiatzean, **Olatu Talkaren** barruan, Loiolako Erriberako Oroimenaren Lorategiak hiritarren sorkuntza eta parte-hartze jaialdiaren azken edizioeko ekinbide nagusietako bat hartu



Karmelo Ikastetxea Ernest Llucheko liburutegian bisitan



zuen: **ArgiArtean**, argiaren artearen egun bat, zenbait artista eta kolektiboren eskutik, zeina parkean eta IESU elizaren fatxadan eta barruan egin baitzen, bai eta irudi zirraragarriak utzi ere adin guztietako ikusle ugarien gozamenerako.

Eta **Musikagela Festen** bigarren edizioari dagokionez (2019ko uztailean), hots, Donostia Kulturaren Musikagela programari lotutako talde donostiarren topaketari, oraingoan eguna Easo plazan egin zen. Plazako kioskotik pasatu ziren **Los Willys, Latitud 43, Hot Potato Blues Band, Ladrones de guitarras, Gartxot, Los Hormigones, Raitx, Baiona** eta **Radiocaster**, musika-maratoi betean, hasi eguerdian eta gauerdiraino.

Bestalde, liburutegiak, Haurtxokoak, Gaztelekuak eta Plus 55ek beren zerbitzuak eskaintzen jarraitu zuten. Arccon, **liburutegiak** helduentzako areto bat eta haurrentzako beste bat izan zituen, eta bere programa garatu zuen (literatur solasaldia, Ipuinaren Ordua, Liburu Baby Kluba, eta abar. **Amarauran**

ere, Amarako oroitzapenak eta ondarea baliatu nahi dituen zehar-egitasmoan, lanean jarraitu dute. Ibilaldiak, elkarrizketak, argazki eta dokumentuen bilduma bat, haziz eta haziz jarraitzen duena: horra erkidegoa sortu eta oroitzapenez janzten duen ekinbide horren osasunaren adierazgarriak.

Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuek, bestalde, behin-behineko kokalekuan jarraituko dute 2021era arte, hots, Olaeta parkean, egoitza berria Anoetako Estadioan (Ernest Lluchen ondoan) egokitzen dieten bitartean. Denboraldi honetan, haur eta gazte ugari ibili dira han, eta agertu dira auzoko jaietan ere, *Haurtxokoa eta Gaztelekua kalean* programaren bidez. Ekinbide ugarien artean, aipamena merezi du Halloweenen ospakizunak, zeinean Haurtxokoa eta Gaztelekua terrorearen pasabide ikusgarri bihurtu baitziren, haur eta gazteek berek dinamizatuta.

Plus 55i dagokionez, 55 urtetik gorakoentzako **Aztarnak** kontakizun-lehiaketak bultzada berria jaso du Ernest Lluchen

programan sartuta, duela bi urte Okendo Kultur Etxean martxan jarri eta gero. Irudi berri bat, **Aztarnak Kluba** ekimena martxan jartzea eta inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan dituen edizioa: ederki asko erakusten dute horiek proiektu horren potentziala eta aurrean duen bide luzea.

Ernest Lluch berrikeri eta gero, etapa berri bati ekin zion, ekipamendu hobez eta betiko bokazioaz, hots, Amarako eta Donostiako hiritarren kultur erreferente eta dinamizatzaile izatekoa.



Musikagela Fest



Liburu Baby Kluba



Jarduerak

Kopurua Erabiltzaileak

GUZTIRA	658	23.162
Antzerkia	17	1.493
Dantza	0	0
Musika	12	1.489
Zinea	24	1.430
Hitzaldiak eta mahai inguruak	12	860
Erakusketak	3	4.211
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	33	668
Liburutegiko jarduerak	116	4.053
Plus 55	63	3.787
Olatu Talka	2	1.150
Gazteleku	155	2.328
Haurtxoko	221	3.693

Zerbitzuak

Bisitaldiak

GUZTIRA	82.469
Liburutegia	60.884
Gazteleku	5.736
Haurtxoko	4.663
KZgune (Nabigazioak)	11.186

Prestakuntza

IKASTAROAK

ERABILTZAILAK

GUZTIRA	221	2.657	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	221	1.884	773
Euskaraz	19	209	46
Gaztelaniaz	171	1.558	669
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	43	664	260
Euskaraz	7	74	14
Gaztelaniaz	36	590	246
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	48	772	301
Euskaraz	12	135	32
Gaztelaniaz	36	637	269
GUZTIRA KZgunea 18/19 - 19/20 Ikastaroak	99	331	154
GUZTIRA KZgunea Beste erakundeak	31	117	58

KULTUR ETXERA BISITAK GUZTIRA: 56.252 (urria-abendua)



Lee Perry



Leon Benavente

Musika da Intxaurrondo Kultur Etxeko agertokia ezaugarritzen duena eta zentroa Intxaurrondotik at ezagutarazten ari dena. Eskenatoki hori gero eta ezagunagoa eta maiteagoa da sortzaileen zein ikusleen artean eta horren emaitzak 2019an ikusgarriak izan dira. Erakusleihen horren berri ematera pasatu aurretik 2019an bere inguruan josi den eskaintza islatzea ezinbestekoa da: batetik, **Niña Coyote eta Chico Tornado** taldearen **egonaldia**, auzoko gazteei musika ezagutzeko beste modu bat eman ziena, barrutik, harreman zuzenek ematen dituzten aukerei probetxua ateraz. Musika taldearen egonaldi honetan ere Larrotxene Bideoko ikasleek bideo

berezia sortu zuten Intxaurrondoko bi kultur etheen egitasmoak lotuz.

Bestetik, **Musikagelak zerbitzuaren** bidez, entsaiatzeko aukera emateaz gain, beste egitasmo asko aurrera eramateko aukera ematen du: **dKluba** programaren baitako kontzertu guztietan tokiko musikariei lekua eman zaie. Musikagelak zerbitzutik ere azpimarratu behar da musikan aritu nahi direnei ematen zaien **formaziorako eskaintza berezia**. Eta Musikagelak zerbitzuaren armiarma ere izan da kultur etxeko zerbitzu desberdinen arteko **jarduerak lotu dituen** (Plus 55, Liburutegia, edo Gaztelekua,..., Poesialdian, erakusketak irekitzean, eta abar).

Intxaurrondo Kultur Etxeko eszenatokiak eman duen eskaintza maila handikoa izan da 2019an, bereziki euskal musikari dagokionez. Ondorioz une ahaztezinak utzi ditu: **Gatibu** taldearen hiru saioetan aretoa beteta, ikaragarritzko giroan. **Delorean** taldearen azken kontzertu zirrargarria, festa giroan eta zale ugarien artean. **Lisabo** taldearen arrakasta, publiko desberdinak elkartzerakoan. **Nazioarte mailako** kontzertuetan kalitateagatik eta publikoaren erantzunagatik ere azpimarragarriak dira izan dira **Lee Scratch Perry**, **Leon Benavente** edo **Nikki Hill** eta **Eilen Jewell**. Gazteria Sailarekin batera, donostiar gazteenei emaniko eskaintzak itxi zuen urtea **Esne Beltzak** taldearen emanaldiarekin. Guzti hauetan “**sarrera agortuak**” kartela jarri izanak eskaintzaren arrakastaren berri ematen du.

Jaialdiei dagokienean **Musikagela Weekend** jaialdiak eskarmentu maila desberdinak jaso zituen: **Los Mambo Jambo** taldeaz gain **Hot Potato Blues Band** eta **Ispirit** tokikoak





bilduz. **Urban Femme** programak emakumeak musikan egiten ari diren ekarpenari lekua utzi zion: musika urbanoa, emakumezkoen rapa. Udazkenean ere Donostian errotu diren beste bi jaialdi kokatu ziren **Donostikluba Festibalak** musika urbano eta trap bildu zituen; eta **Revolution Jamrock** Donostia Reggae Festival-ak reggae zaleei eskaintza zabala eman ziena.

Halaber Intxaurrondo Kultur Etxea bere auzoan ere integratua dago eta horren seinaldi dira tokiko programen habia izatea, auzoko programa garrantzitsuenen partaidetza. Ildo horretan 2019an une bereziak izan dira **Ikastolaren 50. urteurrena**, 25. Ibiltarien Astea edo **Nitik harago, baietz 11 Intxaurrondon** ekimena, adibide batzuk aipatze arren.

Intxaurrondo Ikastolarekin Kultur Etxea ibilbide luze horren erakusleioa bihurtu zen, bertan egindako erakusketa jasotzerakoan, bisitari ugari jaso zituen. Intxaurrondo Ikastola eta Kultur Etxea nolabait jaiotzatik loturik izan diren bi egitasmoak dira, erroak Intxaurrondo kaleko Urdintxon eta Larrotxenen kokatutak, gerora Hegoaldera zabaldu direnak; beren harremana bizirik dirauen lekuko izan da erakusketa.

25. Ibiltari astea ere Intxaurrondo lau haizetara zabaldu duen programa izan da, 2019an 25 urte betetzerakoan une bereziak bizi izan ditu. Ibilbide horren isla jasoa geratu da bideo baten bidez.

Emakumeen Astea ere tradizio handiko programa da Intxaurrondon. 2019ko hitzordua **Raketistak** erakusketaren inguruan garatu zen eta sorturiko programazio hau

ere bideo batean jaso da. Astea martxoan bukatu arren, udazkenean kolaborazio berriak izan dira.

Nitik harago, baietz 11 Intxaurrondon ekimena azaroaren 22an hasi eta Euskararen Egunarekin bukatu zen. Euskaraldiak hautu pertsonaletik kolektibora salto egiteko modua zein den praktikan jartzeko parte hartu zuen Intxaurrondo Kultur Etxeak, Larrotxenerekin batera, bakoitzean arigune propioa eratuz. Bertan izandako esperientzia jaso eta etorkizuneari parte hartze propioa hobetzeaz gain beste batzuentzat eskarmentu probetxugarria izango dena.



25. Ibiltarien astearen kartela

Horrez gain urterokoak hilabetez hilabete joan dira osatzen Intxaurrondo Kultur Etxeko eskaintza **auzoko dinamikan integratua**: kale antzerkiak eta jai giroan egiten diren elkarlanak (Intxaur jaiak, Sagasti Eder, Intxaurrondo Zaharra, Gaztelu), Intxaurrondo eguna, Extremadurako etxeko egitaraua edo Gabonak Zuretzat.

Tokiko berezitasunez gain Intxaurrondo Kultur Etxearen bitartez, Donostiako beste hainbat auzo eta kultur etxeekin batera garatzen diren egitarau bereziek ere Intxaurrondon izan dute leku propioa: **Poltsiko Antzerkiaren jaialdia, dFeria, Poesialdia, Giza**



Es kubideen Zinemaldia, Olatu

Talka, Literaktum...; auzotarrei beste motako eskaintzez gozatzeko parada emanez.

Ikasturtearekin batera Intxaurrondo Kultur Etxeko eskaintza iraunkorra garatzen da: otsailetik ekainera edo urritik urtarrilera, zein ikasturte osoan zehar hedatzen den ikastaroen eskaintzaren bidez. Norberaren zaintza helburu duten yoga edo luzamenduak egiteko ikastaroek oihartzun handiena jaso zuten eta zentroak dituen aukerak txiki geratu ziren dagoen eskaera guztiari ezin erantzunez. 2019/20 ikasturte berrian arestian aipatutakoekin batera txirringak konpontzea edo baratzan aritzea izan dira arrakastatsuenak.

Ikastaro hauen partaideak Intxaurrondo Kultur Etxean diren beste zerbitzu iraunkorretan parte hartzen dutenekin batera 125.430 erabileren fluxua bildu dute 2019an. Zerbitzu horiek guztiek Kultur Etxeko eskaintza zabala osatzen dute: **Haur eta Helduentzako Liburutegi** osatu bezain handia, **Komikiak** sail garrantzizkoarekin; **Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuak**, **Plus 55** zerbitzua edo **Musika Eskola**, hala nola Gizarte Ekintza Zuzendaritzarekin elkarlanean gauzatzen direnak.

Liburutegiaren unibertsoan erabat finkatuak dauden jarduerak aurrera jarraitu dute: **tertulia literarioa**, **komikiaren solasaldia**, **ipuinaren ordua**, **Plus55** eta **Musikenerekin** lankidetzaz, zehazki **Poesiaren Eguna** ospakizunean eta **Giza liburutegiak jardueran**. Nabarmenezkoa dira, batetik, **Liburu Baby Kluba** egitasmoaren harrera ona, haurtxotekaren dinamizazio-helburuekin bat datorren familia- publikoa erakartzen baitu. Eta

bestetik 2019an **Intxaurrondo Hegoko Ikastetxearekin** lankidetzaz estutu izana, LH5eko klaserako literatura-solasaldi bat eginez, Intxaurrondo Liburutegiko bertako liburuzain batek gidatuta. Egia esan, auzoko gela asko dira bisita gidatuz gozatu dutenak.

Azkenik **liburutegiari** dagokionean, bere patio bereziak 2019ko udan eman duen aukera berritua, hainbat hobekuntza egin ondoren, aire zabalean irakurtzeko espazio ludiko berria eskaini duelako

Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuei

dagokienean, ekimen ugari egin dira, bai egunerokoan zein epe luzeko proiektuetan parte hartuz, urte oparo eta positiboa izan da, zalantzarik gabe. Haurren eta gazteen partaidetzaren sustapenean aurrerapausoak eman nahian, hainbat proiektu landu dira: **Tantaz-Tanta Ozeanoa** proiektu komunitarioa, edo **Zaletu!** esate baterako. Horrez gain, auzoko erakundeekin elkarlanean, Intxaurrondoko festetan, Euskararen Egunaren ospakizunean, **Ni-tik harago! Baietz 11** Intxaurrondon eta beste hainbat ekimenetan parte hartu dute zerbitzuek, beste eragile, eskola, elkarte eta abarrekin erlazio zuzena landuz. Urteko balorazioa oso ona izan da eta 2020an ere ekindako lanari jarraipena ematea da helburu.

PLUS 55 zerbitzuaren bitartez berriz aurten 19 jarduera egin dira. Besteak beste: Antzerki Amateurra, belaunaldien arteko jarduerak, Kirola Udaren, Donostian egindako ibilbideak, Larunbatak Dantzan, Olerkariaren Txokoa edota Giza Liburutegia eta mota guztietako tailer eta ikastaroak (*Sexhitz*, teknologi berriak, Clown...).

Bukatzeko azpimarratzea Kultur Etxeak dituen areto eta ekipamenduak gero eta erabilera handiagoa dutela ez soilik bertako eragile eta taldeek egin (auzoko elkarteak, bizilagunak eta abar) baizik eta kanpotik datozen erakunde, sail zein elkarte ugari beren egitasmo eta jarduera gauzatzera: ikasturte bukaerako emanaldiak, entseguak, grabazioak,... Erabilera hauek arau orokorren arabera lagapen zein alokairu moduan izan dira, zentroak dituen mugak kontuan hartuta.



Zapatak airean



Kopurua Erabiltzaileak

Jarduerak

GUZTIRA	758	28.693
Antzerkia	15	2.220
Musika	20	7.156
Zinea	8	447
Hitzaldiak eta mahai inguruak	7	540
Erakusketak	61	3.055
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	90	2.291
Liburutegiko jarduerak	93	1.810
Plus 55	47	1.690
Olatu Talka	4	541
Gazteleku	188	4.672
Haurtxoko	214	3.895
Beste	11	376

Bisitaldiak

Zerbitzuak

GUZTIRA	75.356
Liburutegia	67.915
Musikagela	2.591
Musika eskola	4.850

IKASTAROAK

ERABILTZAILEAK

Prestakuntza

GUZTIRA	36	462	
		Emakumeak	Gizonal
GUZTIRA	36	279	183
Euskaraz	10	59	50
Gaztelaniaz	26	220	133
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	20	136	44
Euskaraz	4	20	20
Gaztelaniaz	16	116	70
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	16	143	93
Euskaraz	6	39	30
Gaztelaniaz	10	104	63

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 125.430



Intxaurrendoko kultur etxe aitzindaria **Larrotxene Bideo egitasmoaren kabia da.**

Eguneroko praktika ekoizpena ailegatzeko, eskaintza formatiboa eta egitasmoak zabaltzeko duen gaitasuna dira errezeta arrakastatsu honen osagai nagusienak, bertan lanean eta elkarlanean dihardutenean artean sukaldatua.

Larrotxene Bideoak gazteek erabiltzen dituzten **teknologi berrien aldeko apostua egin du** eta bai balibideei eta bai formakuntzari bultzada bat eman nahi izan die. Horretarako **sei lan ildo nagusietan** aritu da lanean 2019an: **kontakizun digitalen laborategia, kolaborazioak, ikus-entzunezko lanak, ekitaldien antolaketa, komunikabideetan presentzia eta sare sozialen erabilera.**

Atzetik aurrera, jarraian azalduko den lan laburtuak dagokion isla mediatikoa izan dezan komunikabideetan eta

sare sozialetan presentzia lantzen ari da Larrotxene Bideotik.

Formazioaren bidez **Larrotxene Bideoaren** baitan ikasle zahar eta berri elkartzen joan dira 2019an, urtean zehar zerbitzuaren **2.476** erabilera izan arte. Izan ere, zerbitzuak ikastaroak izan ez ezik, bestelako erabilerak baititu. Bertako berezitasuna formatu trinkoko ikastaroak dira, urtez urte berritu, zaharberritu edo klasiko egin direnak (gidoigintza, soinu bandak, ...)

Ekitaldien antolaketa ikasturte osoko lan isilari ematen dio bozgorailua da **Bideoaldia** egitarauaren bidez. 2019an Bideoaldiaren **hiru emanaldi** izan dira: Victoria Eugenia Antzokian, Intxaurrendoko Kultur Etxean eta Trueba zineman Zinemaldiaren baitan, orotara, 28 lan ikusteko aukera izan zuten bertaratu ziren 695 ikuslek.

2019an **21 koprodukzio eta 10 lan propio** gauzatu dira Larrotxene

Bideoren su ez-tian, bakarrik urtarilla urria bitartean, orotara **11 sari jasoz Euskal Herrian** (Donostia, Sanrtzine, Bilbo, Eibar,...) eta Euskal Herritik kanpo ere, **Bartzelona, Tarragona, Jaen, Chile, Ecuador, Colombia**,... mugak zabaltzen ari dira bertan ekoiztu diren produkzioak.

Bide berriei lekua utziz **kontakizun digitalen laborategia** ere martxan izan da 2019an emaitza ugari emanez: **Galaxias Interactivas, Olatu Attack pilulak** (Olatu Talkaren baitan), **Pikuak** webseria (Tabakalerako 2Deo laborategiarekin lotua), **Cristina Enea 3, 2, 1... Acción!** Cristina Enea Fundazioaren ekimenez.

Ekoizpen hauez gain Larrotxene Bideok kolaborazio eta rol ugari egin ditu 2019an: **Musikene** Goi mailako Eskolarekin, soinu bandak konposatzetik promozio bideoetaraino; **Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaldian "Oihua!"** egitasmoa martxan jarri zen; **Ikuska-Pasaiaiko Badiako Film Laburren Lehiaketan** epaimahian partu hartu zen; **Begiradak, las otras miradas** jaialdian solaskide; **Gautenari** film laburrean laguntza-teknikoa eman zion; eta, noski, Intxaurrendoko Kultur Etxearekin berarekin produkzio bereziak egin zituen: **Niña Coyote eta Chico Tornado** egonaldi artistikoaren grabaketa edo **Nitik harago, baietz 11** Intxaurrendoko ekimenaren esperientzia bilduko duen ikus entzunezkoa.

Eta **Nitik harago, baietz 11** Intxaurrendoko ekimenari jarraikiz Bideotik egitasmo zabalera jauzi egin behar da. Egitasmo honetan Larrotxene Kultur Etxeak ere parte hartu zuelako Intxaurrendoko Kultur Etxearen moduan, arigune



Bideoaldia



propioarekin. Izan ere Larrotxene Bideo egitasmoa egun Larrotxene Kultur Etxea ezaugarritzen duen egitasmoa da baina Kultur Etxeak eskaintza gehiagori bide ematen dio.

egin ondoren, udaberrian ahots profesionalak **-Aire Ahizpak, Thierry Biscary-** tokiko ahotsekin batera kantatzen jarri zituena, **aretoa lepo.**

eta *Xerafin, Tomax eta Balea, Hala bazan* lanek antzerkira gerturatzeko bide eman zieten. Antzerkia ere kalera irten da Intxaurren zaharrean bertan edo Bidebietan.

Kuttunen artean **Lagunekin Kantari** egitaraua, **Intxaurren Kantuz** ikasturte osoko formazioa

Haur antzerkia zikloak neguko larunbatetan plan ederra eskaintzen die auzoko txikienei: *Drakula, Petra*

Intxaurren Kultur Etxearekin batera Larrotxene Kultur Etxeak parte hartzen du **auzoko dinamikan** eta **bere inguruan** programa desberdinak lotzen zaizkio, **Poltsiko Antzerkia** bezala.



Egunon sikiera



Thierry Biscary

Ikasturtearekin batera Intxaurren Kultur Etxeko eskaintza iraunkorra garatzen da: otsailtik ekainera edo urritik urtarrilera, zein ikasturte osoan zehar hedatzen den ikastaroen eskaintzaren bidez. **Norberaren zaintza** helburu duten ikastaroak ume zein helduentzat izan dira arrakastatsuenak eta zentroak dituen aukeren baitan eskaintza propioa eman du. Horrekin batera, Larrotxenek dituen metroei etekin ateraz areto eta gelak erabilera desberdinak jaso dituzte tokiko eragile eta taldeei beren egitasmoen garapena egiteko aukera emanaz.



Lagunekin kantari

Azkenik Larrotxenek **liburutegiak** inguruko txiki eta helduei irakurtzeko eta kontsultarako aukera ematen die. Txikiak gerturatzeko ari dira beren eskolen bidez antolatzen diren bisitaldiak eginez eta Liburutegiak helduei ere hemeroteca eta mailegu zerbitzua ematen die. Orotara **28.285** bisitari izan dira aurtengo liburutegian.



Kopurua Erabiltzaileak

Jarduerak

GUZTIRA	171	4.410
Antzerkia	8	697
Musika	3	290
Zinea	2	570
Erakusketak	1	15
Bilerak eta elkarteen ekitaldiak	73	953
Liburutegiko jarduerak	84	1.885

Bisitaldiak

Zerbitzuak

GUZTIRA	33.237
Liburutegia	28.285
Bideo tailerra	2.476

IKASTAROAK

ERABILTZAILAK

Prestakuntza

GUZTIRA	27	565	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	27	336	145
Euskaraz	10	179	49
Gaztelaniaz	17	157	96
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	15	177	145
Euskaraz	6	88	24
Gaztelaniaz	9	89	60
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	12	159	61
Euskaraz	4	91	25
Gaztelaniaz	8	68	36

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 32.125



2019. urtean, bi proiektu izan ziren nabarmentzeko modukoak Loiola Kultur Etxean: **Loiola Apain Street-Arteko** muralak eta **Behin batian Loiolan**en errodajea, biak ere ekainean hasiak, **Olatu Talka jaialdia**ren 10. eta azken edizioan.

Lehen proiektua, **Loiola Apain**, honela osatu zen: **zazpi arte-interbentzio** egin ziren, sei mural eta mosaiko bat, ekaina eta abendua artean.

Artisten artean, aukera izan genuen hiru lagun *loiolatarturekin* batera jarduteko, estudioa baitute auzoan eta auzoari buruz duten ikuspegia erakusten baitute beren interbentzioetan. Sortutako muralak hauek izan ziren:

- **Marcos Navarro** (Bartzelona). Mural **figuratiboa** Plazaburu kaleko lau solairuko fatxada batean, **auzoa eta Urumea ibaia sinbolizatzen dituzten** lau hegazti: ahatea, zozoa, ubarroia eta txantxangorria.
- **Allan Dastrup** (Danimarka). **Alfabeto murala** Urbia kalean, haurren parkearen ondoan. Letra bakoitzean erreferentzia egiten die **auzoko elementu nabarmenei** eta ondareari, toponimiari eta historiari.
- **tephen Webb** (Erresuma Batua). Luze-zabal handiko murala, **egikera abstraktu geometrikokoa**, bizia eta kolorea ematen dizkiona Zubiondo eta Igeltegi kaleen arteko kalekari.

Orobat, harremanetan jarri ginen artisten bi estudio mistorekin, biak ere Donostiatik kanpokoak baina

hiriarekin lotura estua dutenak.

Honako hauekin, hain zuzen ere:

- **Reskate** (Bartzelona): **María López** (Donostia) eta **Javier de Riba** (Bartzelona). **Bakoitza bere garaian** murala, Lorategi Hirian, naturako elementuz osatua: baratzak, frutarbolak, barazkiak... Gainera, Javier de Ribaren mosaikoa, Igeltegin, elkarlanean egin zen, auzoko gazte eta familiekin batera, bai eta UBA-Ametzagaña Fundazioan bizi diren atzerritar gazte bakarrik daudenekin ere.



Reskate Studiok egindako murala. *Loiola Apain* proiektua.



Marcos Navarrok egindako murala. *Loiola Apain* proiektua



Allan Daatrupek egindako murala. *Loiola Apain* proiektua

• **Gora** (Bilbo): **Iciar Nieto** (Donostia) eta **Miguel Atutxa** (Bilbo). **Interbentzio abstraktua** Loiola Kultur Etxean eta Udal Frontoiko frontisean.

Azkenik, eta **Alianza Francesarekin** elkarlanean, **NKDM** artista frantses nazioartean ospetsu denaren parte-hartzea izan dugu, zeinak Garbitzaileen plazan jardun izan baitu, mural abstraktua eginez: **ibaiari eta uraren formei** egindako keinua.

Tamaina desberdineko muralak dira; auzoan sakabanatuta, edertu

egiten dute, kultur erakargarri berria dira, harrotasunerako arrazoi bat, eta identitate-ikur bat gehiago auzotarrentzat.

Loiola Apain proiektuko zazpi muraleri zortzigarren bat gehitu behar zaie, Udal Frontoiarenean atzealdean egina, Hondarziale Pasealekuan, **ekonomia zirkularrari eta iraunkortasunari** buruzkoa. **Iker Garcia Barrenetxea** donostiar artistak

egina da, gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden **Emaus Fundazioko** pertsonen kolektiboarekin batera.

2019an nabarmendu beharreko bigarren proiektua **Behin batian Loiolan film laburraren errodajea** da. Izenburua, jakingo duzuenez, **Bilintxen** bertsoetatik hartua da. Produksioa ekainean gauzatu zen, Olatu Talka jaialdiaren barruan, eta filma uztailean estreinatu zen, Kultur Etxean, San Inazioetan.

Errodajea Urumeako ibai-parke berrian egin zen, Txomin Eneako auzotarren parte hartze handiz egin ere. Aurreko filmetan bezala, Loiola, Txomin Enea eta Martuteneko zenbait kolektibo izan ziren aktore protagonista.

Oro har, 2019an, eta 20 urteren ondoren, ohiko programazioaren zikloek osasun ona dute.

Mikologia eta Gastronomia Jardunaldiak, Martuteneko Kartzelako Lantegien Erakusketa, Folklorearen Nazioarteko Jaialdia, Poltsiko Antzerkiaren Jaialdia, Gabonak Zuretzat, Abesbatzen Astea, Kale Antzerkia, Haurrentzako antzerkia...

Aipamen berezia merezi dute **Euskal Kulturaren Ildotik** zikloaren **25 urteek**, martxoan ospatuak **Jon Maia** bertsolariarekin eta **Hezurbeltzak** haren emankizun poetiko-musikalarekin.

Urteurrenen ildotik, **Hidro-Logikak**ek **10 urte** bete ditu, **Moncho Trullós** eta **Juan Luis Azpiroz**en **Urumeari begiradak** erakusketaren bidez, Cristina Enea Fundazioaren laguntzarekin.

Beste ziklo orainagoko batzuk, haur eta gazteei zuzenduak, sendotuz joan dira: **Liburu Baby Kluba, Poetry in Motion** -bertako artista berrieekin- edo **Jan-ta-loin**, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaldiarekin batera ospatzen den jaia.



Urumeara begira; Juan Luis Azpiroz, Moncho Trullós. *"Hidro-Logikak"* proiektuaren erakusketa



Liburutegi-zerbitzua **Loiola Kultur Etxeko liburutegiak** eta berriki berrinauguratu den **Amundarain Mediatekak** osatzen dute, eta auzoa dinamizatzen duen elementu bat da, urtetik urtera gero eta erabiltzaile gehiago eta leialagoak dituena. Gainera, **Martuteneko Kartzelako liburutegia** elikatzen laguntzen du, dohaintza kolektiboen bitartez. **Jarduerei** dagokienez, aipatzekoa da **Liburu Baby Klubak** bere horretan jarraitzen duela, gelditu gabe, eta **Haurren Egun Unibertsalaren 4. Jaiak** arrakasta handia izan zuela, biak ere **Mestiza** elkartearen eskutik.

Euskarazko programazioari dagokionez, berriaz, gehitu diezaiogun orain arte esandakoari **Joxan Artze** poetari **Literaktum Jaialdian** egin zitzaion omenaldia. Aipatzekoak dira, halaber, euskara hutsean egiten diren zikloak –**San Martin Topaketak, San Isidro Eguna, Euskararen Eguna**, hilero Loiolan eta noizean behin Martutenen egiten diren **Kantujirak**, eta aurrez aipatu dugun **Euskal Kulturaren Ildotik** eta haurrentzako jarduerak, gehienak euskaraz. antzerkiak, **Ipuinaren ordua, Gabonak zuretzat...**

Beste urte batez, Kultur Etxeko programazioa erakusketaz, jaiz, proiektioz, solasaldiz, lantegiz, afariz eta abarrez bete da, hainbat elkarteren eskutik: **AGIFES, AGISAS, IRESGI, Emaus Fundazioa, UBA-Ametzagaina Fundazioa, AGIAC, Bihotzez, Batera 2030, Bizi Bide, Secretariano Gitano elkarte, Esnearen Liga, Baketik, EHU-Arte Ederrak, GIELMAR, Passikudah Bizirik, Kalapie, Haritzalde...**

eta beste udal sail batzuekiko lankidetzaren bitartez: **Eskolara bideak** eta **100 Miradas Begiradak** erakusketak, **Mugikortasun** eta **Donostia Lagunkoia sailekin**, hurrenez hurren, eta aipaturiko **Haurren Egun Unibertsalaren 4. Jaialdia, Lankidetzaren Sailarekin.**

Kultur Etxea **hiru auzoetako gizarte-eragileekin** batera ari da lanean, **Loiola, Txomin Enea** eta **Martutenekoekin**, kohesioaren eta egituratzearen alde, esperientziak zertuz eta erkidegoa sortuz, bai eta harreman esanguratsuak ere auzotarren artean, ezagutza eta kultura zehar-lerroz eta parte hartuz hedatzeko eta transmititzeko.

Laburtuz, 2019an Loiola Kultur Etxea modu sortzaile eta bizigarrian ireki da espazio publikora, eta horren adierazle dira muralak eta Kantujira.



Giza Eskubideen Zinemaldia Loiola Kultur Etxean



Erdi aroko kalejira. Binéfarreko titiriteroak



Jarduerak

Kopurua Erabiltzaileak

GUZTIRA	217	39.479
Antzerkia	18	2.280
Dantza	5	2.188
Musika	32	3.949
Zinea	3	195
Hitzaldiak eta mahai inguruak	3	195
Erakusketak	24	23.843
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	48	4.844
Liburutegiko jarduerak	76	1.669
Olatu Talka	2	210
Beste	6	106

Zerbitzuak

Bisitaldiak

GUZTIRA	22.002
Liburutegia	22.002

Prestakuntza

IKASTAROAK

ERABILTZAILAK

GUZTIRA	31	483	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	31	402	81
Euskaraz	7	98	9
Gaztelaniaz	24	304	72
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	17	215	44
Euskaraz	4	54	6
Gaztelaniaz	13	161	38
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	14	187	37
Euskaraz	3	44	3
Gaztelaniaz	11	143	34

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 33.081



Arte eszenikoak izan dira Lugaritz K.E.ko 2019ko jardueren ardatza; izan ere, berrogeita hamar antzezlan eta hamabost musika emanaldi baino gehiago eskaini dira. Hala antzerki programazioaren nola musikalaren ezaugarria izan da estilo eta formatu ugari eskaintzea.

Aurten, gainera, Lugaritzek **tokiko antzerki amateur**ra sustatzen duen programazio ildo bat jarri du abian, konpainia horien lanak eremu eszeniko egoki batean erakutsi ahal izateko.

Alde horretatik, aipatu behar da tokiko hainbat antzerki taldek parte hartu dutela, besteak beste, **Nueve Teatro**, **Les Figuettes**, **Ausartak** edo **Tgorrieta** taldeek. Horiek guztiek kalitate handiko maila artistikoa eskaini dute eta ikusleek harrera bikaina egin diete, baita **Los miserables** musikalari ere, zeina **Sforzando Taldearen** eskutik ikusi eta entzun ahal izan baitute.

Udaleko Gazteria Departamentuarekin izandako lankidetzari esker, **Gazteen Antzerki Topaketan** hainbat obra antzeztu dira eta, horrela, gazteak antzerkira hurbildu dira bai protagonista gisa bai ikusle gisa.

Zenbait obra nabarmendu daitezke aretoko **antzerki profesionalari** dagokionez, duten interesagatik eta kalitateagatik, baina, zalantzarik gabe, gailendu egin dira A Panadería antzerki taldearen **Elisa y Marcela** obra, Apata Teatro taldearen **Malvados de oro** antzezlana eta Perigallo Teatro taldearen **La mudanza** antzezlana. Berritzailea izan da Teatro del Temple Aragoiko konpainiaren **Abre la puerta** proposamena, Literaktum jaialdian antzeztu zutena. Urte amaieran azpimarragarri, Tenemos gato konpainiaren **Felicidad** komedia gazi-goza, eguneroko bizitzaren naturaltasuna darion komediaz jantzitako drama.

Familiei zuzendutako antzerkiari dagokionez, aipatzekoa da Trukitrek konpainiak egindako lana **Mr. Train** antzezlanaarekin, baita zenbait antzezlanean sentsibiltate artistikoa eta eszenaratzea ere: Engruna Teatre konpainiaren **Loops**, Baobab Teatroren **Pum Pum** edo estreinaldia izan den Ttipia Kulturaren **Kuolulo zuhaitza**.

2019an, Lugaritzek parte hartu du **Poltsiko Antzerkian**, zeina Antiguako, Igeldoko eta Añorgako hainbat lokaletan egin baita, bai eta Ibaeta, Benta Berri eta Antiguon izan den **Antzerkia kalean** ekimenaren programazioan ere. Bi zikloetan, estilo eta proposamen artistiko desberdinak uztartu dira.



Mr. Train, Trukitrek



Loops, haurrentzako antzerkia



Musika programazioan oso estilo ezberdinetako euskal artistak izan dira protagonista. Eskaintzan, lehenak, **Angel Unzu** eta bere **Cuarteto Eléctrico** izan ziren, baita oso harrera ona izan ere. Kontzertu benetan gogoangarria eta bertuosismoz bete izan zen,

maila artistiko bikaina duten goi mailako lau musikariren eskutik. Nabarmentzekoa da, halaber, **Zuri** bira berreskuratu izana. Etenik gabeko hamaika pieza, **Mikel Azpiroz** egileak pianoarekin bakarrik interpretatuak, modu naturalean, intimistan eta

inolako anplifikaziorik gabe; musika notaz bete zuten Imanol Larzabal aretoa. **Kontuz, lanak! Musikeneko** musikariek eskaini zuten inprobisazio libreko kontzertua izan zen, eta estilo tradizionalagoan, aipagarriak dira **Maider Zabalegi** eta **Korrontzi** taldearen kontzertuak. Musika abangoardistaren eta tradizionalaren artean daude **Maite Larburu** eta bere alderdi musikal berria, bakarkakoa eta jaioterriari lotuagoa. **Tolosako Abesbatza Lehiaketaren** zikloan berriz, Indonesiako **Consolatio Chamber Choir** abesbatzak Ibaetan eskaini zuten emanaldia.

Berritzailea izan zen **musika eta dantza** batzen zituen proposamena, **Encuentro** izenekoa. Kelián Jiménezek eta bere musikari zein flamenko dantzari taldeak eskaini zuten, eta ikusleek flamenkoarekin gozatu zuten, zeina, gero eta gehiago estimatzen den arren, oraindik ere gutxi eskaintzen baita gure eszenatokietan.

2019ko **erakusketetan**, azpimarratzekoa da **Ainara Azpiazu "Axpí"ren** erakusketa, zeren Lugaritzen eta Ikertzeren webgunean erakutsi ziren ilustrazioek balio izan zuten **Ikertze-Lugaritz Ipuin Lehiaketaren XVIII. edizioko** parte hartzaileek beren narrazioak lantzeko.

Giza Eskubideen Zinemaldiarekin elkarlanean aritzeaz gain, atal zinematografikoan egiaztatu da zientzia fikziozko emanaldien zikloak interes handiagoa pizten duela.



Mikel Azpiroz



Maite Larburu



Ainara Azpiazu, *Axpí*



Arte eszenikoetako ikastaroaren erakusketa.

Ikastaroei eta tailerrei

dagokienez, agerikoa da matrikulak igo direla, batez ere **arte eszenikoekin** zerikusia dutenetan, baita **arte plastikoan** arlokoetan ere. Lehenengo kasuan, ikasturtean zehar landutako obren erakusketek adierazten dute ikastaro horietan matrikulatutako pertsonen sormen maila bikaina dutela, eta ikasleen prestakuntzan erabat inplikaturik dauden irakasleek zuzentzen dituztela.

Atal honetan, aipatzekoak dira **egile ikastaroak**, eta horien artean, **Andoni Egañaren Bertsoterapiak**, **Thierry Biscaryren Kantu herrikoiak barnetik** eta **Carmen Quiñonesek eskainitako Teknika bokalarena**.

Liburutegi zerbitzuak, 2019an, mantendu egin du kontsulten eta dokumentuen eta erreferentzia bibliografikoen maileguen maila.

Azpimarratzekoa da **Liburuka** programa ezarri dela, bere bi alderdiekin: **Motxila Txikia** eta



Ondarreggae, Olatu talka

Irakurle Gazteak. Horren bidez, areagotu egiten da liburutegiaren eta ikastetxeen arteko erlazioa. Motxila Txikia aurten indartu egin da ikastetxe gehiagok parte hartuta, eta Irakurle Gazteak atalak harrera ona izan du liburutegian ezarri den lehen urtean, hainbat liburu sorta bidali baitira hiriko hainbat ikastetxetara. Programa horiek mailegatzea eta liburutegia erabiltzea sustatzen dute.

Era berean, bisita gidatuak egiten jarraitu dugu liburutegitik gertu dauden ikastetxeentzat, irakurketa eta liburutegiaren erabilera sustatzeko helburuarekin.

Zerbitzu hau hurrei zuzendutako jarduerekin osatu da, besteak beste, programa hauekin: **Ipuinaren ordua** eta **Liburu Baby Kluba**, eta helduei zuzendatutakoekin: **Literatura eta kafea** eta zientzia fikziozko bideoforuma. Azpimarratzekoak dira, halaber, erraz irakurtzeko liburuei buruzko literatura solasaldiak, **Agifes** kolektiboaren eskutik.

Literaturaren arloan, aipatu behar dira, era berean, **Literaktum** programak egindako ekarpena eta **Ikertze** literatura lehiaketa.

Azken **Olatu talka** jaialdiaren baitan berriz, reggae musika jarraitzaileen topaleku bilakatu zen Ondarretako hondartza, bertan ospatu zen **Ondarreggae** ikuskizunari esker. Bereziki gogoangarria, bertan ipinitako "jaima" erraldoia. Igeldon berriz, **Polaroid** performanceak zeramika, eszena eta musika uztartu zituen.

Plus 55 programak erreferente izaten jarraitzen du adinekoentzat eta, berriz ere, bertako jarduerak erantzun ona izan dute. Bai bideoforum saioek bai solasaldiek, helduentzako osasun ikastaroek edo teknologia berrien ikastaroek eskari handia izan dute, baita dantzak ere, hau da, **Igandeak dantzan** jarduerak.

Antiguako Haurtxokori eta Gaztelekuri dagokienez, horien ordutegia eta jarduera egutegia zabaltzeko eskaerak jarraitzen badu ere, esan dezakegu eskaintzen duen zerbitzua oso bizia izan dela, txikia bada ere.

Eta amaitzeko, aurten ere egiaztatu dugu gora egin duela **Merkatuko** ekipamendua erabili nahi duten elkarteen eskaerak. Instalazio horien erabilera ia maximo historikoan dago.



Jarduerak

Kopurua Erabiltzaileak

GUZTIRA	2.412	39.832
Antzerkia	85	8.566
Dantza	1	147
Musika	18	1.915
Zinea	15	801
Hitzaldiak eta mahai inguruak	3	62
Erakusketak	6	1.628
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	2.068	19.964
Liburutegiko jarduerak	68	1.520
Plus 55	38	1.744
Olatu Talka	9	1.970
Gazteleku	50	501
Haurtxoko	51	1.014

Zerbitzuak

Bisitaldiak

GUZTIRA	38.153
Liburutegia	34.161
Gazteleku	620
Haurtxoko	1.004
KZgune (Nabigazioak)	2.197
Plus 55	171

Prestakuntza

IKASTAROAK

ERABILTZAILAK

TOTAL	196	1.124	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	131	845	279
Euskaraz	19	136	65
Gaztelaniaz	93	629	186
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	31	252	106
Euskaraz	10	64	33
Gaztelaniaz	21	188	73
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	35	375	94
Euskaraz	9	72	32
Gaztelaniaz	26	303	62
GUZTIRA KZgunea 18/19 - 19/20 Ikastaroak	46	138	51
GUZTIRA KZgunea Beste erakundeak	19	80	28

KULTUR ETXERA EGINDAKO BISITAK (GUZTIRA): 110.088



2019an, **Okendo Kultur Etxearen** programazioa askotarikoa izan zen, beti bezala, eta **arte plastikoak** izan zituen ardatz nagusi; horrez gainera, **ikastaro espezializatuen, eskola magistralen eta hogeii erakusketaren** eskaintza zabala egin zuen, denak ere Kultur Etxeko guneeetan banatuta.

Nabarmentzekoa martxan jarri den proiektu berria, hobetzeko eta auzoan sortzen diren behar berrietara egokitzeko ahaleaginean: **Dėnak Ohana Surf Club. Iraganeko surf klub** baten itxuran, Donostia, Euskadi eta munduko suflarien belaunaldiak batzea du helburu. Proiektuak bi ardatz nagusi ditu: **Surfaren inguruko funtsak dituen liburutegia** eta **hileroko jardueren programa**, Donostiaren inguruneaz ohartarazi eta gogoeta egiteko xedez biak ere, hasi espazio fisiko eta hurbilenetik (Zurriola, Sagues, Gros auzoa) eta espazio metaforikoagoetara: *bidaia, itsasoa eta natura, historia historikoa...*

Okendoko erakusketei dagokienez, azpimarratzekoa **Kresala taldeari** egindako omenaldia, 50. urteurrena zuela eta, Donostian enblema bihurtu baita ibilbide profesional handiari esker; **Coll, hitzik gabe**, non **Josep Coll** marrazkilari handiaren bineta komikoez gozatzeko aukera izan baikenuen; eta **Paul Naschy - Autobiografia bat iruditan**, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen barruan, non haren emazteak eta seme-alabek inauguratu baitzuten Espainiako zine fantasiatzko eta beldurrezkoaren mito honi egindako omenaldia. Ez da ahaztekoa **Kongoko emakumeak** ere, Isabel Muñoz argazkilariarena, zeina Espainiako Argazki Sari Nazionala jaso baita, non Kongoko emakumeen ikuspegi bat ematen baitzen duintasunetik eta errespetutik, eta **Zientzia lanean**, emakumeak Zientzian izan duen rola nabarmentzeko.

Bestalde, 2019an, Kultur Etxeak, **Lan garaikidea. Picassotik Barceló**ra erakusketaren bidez, 23 artista bildu nahi izan ditu, arte modernoaren bilakaeraren ordezkari baitira eta hura hobeto ezagutzen laguntzen baitute. Erakusketa horretan, Dalí, Miró, Antoni Tápies, Jaume Plensa, Chillida, Andy Warhol berrinterpretatu ziren, besteak beste.

Baina 2019an erakusketaren batek harridura sortu badu, **Ancoraren Galdu genuen hiria** eta **Gilbert Legranden Gauza txikien ikuskizun handia** erakusketek sortu dute. Lehenengoan, 14.000 lagunek baino gehiagok gozatu genuen, material grafikoaz ez ezik, gure ondarearen parte izandako elementu originalez. Bestetik, **Gauza txikien ikuskizun handia** ikasleek eta bestelako bisitariak ikusi zuten, bai eta gozatu ere eguneroko objektuak eraldatuz sor daitekeen arteaz.



"Mujeres del Congo", Isabel Muñozek egindako erakusketa



“El show de las pequeñas cosas” erakusketa

Beste erakusketak bi gunetan egin ziren: batetik, **eraikin zaharreko aretoan**, non **CAF** eta **Bide-*hezuntza*** gaikako erakusketak egin baitziren, bertako artistekin lankidetzan: **Jon Muñiz**, Asociación Artística Guipuzcoana eta Kultur Etxeko ikastaro-ikasleak; bestetik, **liburutegiko pasabidea**, han kokatu baitira gizarte- eta dibulgazio-gaien inguruko erakusketak, eta non zenbait kolektibo izan baitira protagonista: Zurriola Ikastola, Ulia Auzo elkarte, FISC ONG, eta abar.

Bestetik, aipamen berezia merezi du Okendok urtean zehar **auzoko elkarte** eta **eragileekin izan duen lankidetzak**, batez ere **auzoko festetan, non jarduera sorta zabala eskaintzen baitu** (San Juan eta Santo Tomas eguneko kontzertuak, eta abar). Ahaztu gabe Groseko zenbait establezimendutan bertako artistekin egiten diren kontzertuak eta poltsiko-antzerkiak. Leku horiek, gainera, hiriko beste kultur programa batzuen egoitza dira: **Olatu Talka, Literaktum** edo **Abesbatzen Astea**, besteak beste.

Gainera, Kultur Etxeak ibilbide luzeko jarduerak izan ditu 2019an ere. **Zikloak eta hitzaldiak** osasuna, natura (eta ekologia bereziki) gaitzat hartuta, Done Jakueri buruzko jardunaldiak eta etxe erregionalen topaketak

izan ziren urtean zehar, udal erakunde eta eragileekin batera.

Zerbitzu integratuek **-Liburutegia, KZgunea, Gaztelekua/Haurtxokoa** eta **Plus 55-** ondo funtzionatzen jarraitu zuten, bai jendeari eskaini zitzaion arretaren aldetik eta bai egindako jardueren arrakastaren eta Kultur Etxearekiko lankidetzaren aldetik. Lankidetzak horrek agerian jartzen du Kultur Etxearen izaera irekia eta zerbitzu ematekoa.

Hori guztiagatik, Okendo Kultur Etxea auzotarrentzako topagune eta kultur erreferente izan zen 2019an. Auzoko eta oro har Donostiako bisitariak etengabe etorri ziren urte osoan, eta zerbitzuek eta jarduerak erabiltzaile asko izan zituzten.



Amalur, Poltsiko Antzerkia



Jarduerak

Kopurua Erabiltzaileak

GUZTIRA	1.584	144.087
Antzerkia	14	2.300
Dantza	9	1.367
Musika	18	4.135
Zinea	39	2.142
Hitzaldiak eta mahai inguruak	153	12.270
Erakusketak	20	94.446
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	130	2.140
Liburutegiko jarduerak	110	3.081
Plus 55	145	13.510
Olatu Talka	28	1.895
Gazteleku	362	1.169
Haurtxoko	442	4.297
Beste	114	1.335

Zerbitzuak

Bisitaldiak

GUZTIRA	150.412
Liburutegia	124.878
Gazteleku	2.650
Haurtxoko	3.741
KZgune (Nabigazioak)	19.143

Prestakuntza

IKASTAROAK ERABILTZAILAK

GUZTIRA	228	2.729	
		Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	228	1.932	797
Euskaraz	20	151	74
Gaztelaniaz	200	17.56	692
GUZTIRA 2018/2019 Ikastaroak	46	647	250
Euskaraz	6	49	26
Gaztelaniaz	40	598	224
GUZTIRA 2019/2020 Ikastaroak	47	630	271
Euskaraz	6	58	31
Gaztelaniaz	41	572	240
GUZTIRA KZgunea 18/19 - 19/20 Ikastaroak	127	630	245
Euskaraz	8	44	17
Gaztelaniaz	119	586	228
GUZTIRA KZgunea Beste erakundeak	8	25	31

KULTUR ETXERA BISITAK GUZTIRA: 294.499



Donostiako liburutegien sareak irakurketa sustatzeko lanetan jarraitu du buru-belarri 2019an. Irakurketa ez da jakintzaren zatitxo bat; nahitaezko baldintza da ezagutza guztietara iristeko. Liburutegiak dira leku batzuk non sareak ehuntzen baitira, prentsa irakurtzen baita, liburu baten bila joan eta beste bat aurkitzen baituzu, sarean nabigatzen, ipuinak entzuten ditugun, testuak sortzen... leku hurbil horiek nora itzultzen baikara.

Donostiarrek ondo baloratzen jarraitzen dute Donostia Kulturako liburutegi-sarea; **maileguen** kopurua **% 5,2** emendatu zen, eta kultur etxeek **834.477 bisita** izan zituzten, 2018an baino % 2,1 gehiago. Beraz, herritarrengandik hurbilen dauden kultur zerbitzuak dira.

2019an, gertaerarik aipagarrienetako bat **Ernest Lluch Kultur Etxea bere ohiko egoitzara itzultzea** izan zen, hots, Anoetako Estadiora, lanak zirela-eta kanpoan egon ondoren. Eta harekin batera, baita **liburutegia** ere. Orain, **instalakuntza eta guner berriak** ditu, **erakargarriagoa da**, eta **zerbitzu hobea eta osoagoa ematen du** (informazio zabalagoa, aurrerago).

Bestalde, **katalogazio**-lan teknikoak **aldizkarietan** zentratu zen 2019an: **263 kronologia** sortu ziren, dauden funtsei buruzko informaziorako irispidea hobetu ondoren. Zenbakietan islatzen da egindako lanaren tamaina; guztira, **15.000 katalogazio**.

Jardueren artean, nabarmentzekoa da Kirmen Uriberen **17 segundo** poesia-liburuaren aurkezpen berezia, Liburuka programaren barruan, Antzoki Zaharrean, joan den abenduan. Antzokiak ia 400 lagun hartu zituen, eta liburuaren salmentak arrakasta handia izan zuten.

SAREA ZENBAKITAN

Maileguak

- **456.787 mailegu.**
- **127.619 mailegu haurrentzako liburutetan** (2018an baino % 1,89 gehiago).
- **2,4 mailegu biztanleko** (186.667 biztanle, Donostiaren errolda 2016an), **Europako batez bestekotik gertu** (3-4 mailegu biztanleko).



Liburutegietan, Okendokoa nabarmendu zen 2019an **mailegu-** mailaren aldetik, **% 1,2** emendatu baititu hala maileguak nola bisitariak. Bestalde, Ernest Lluchekoak, esan bezala, berriro ekin dio lanari. Bien bitartean, **Alderdi Ederrekoa** da mailegu gehien egiten duena: **111.021 mailegu**.

Bisitak

- **834.477 bisita liburutegietara** (aurreko urtean baino % 2,1 gehiago).
- **1725 bisitariak eguneko**

Errendimendu garrantzitsuenen adierazleek gora egin badute ere, tentuz ibili beharra dago, jaiotzasak behera egin baitu, eta kultura kontsumitzeko modu berriak agertu baitira (irakurketa digitala barne). Liburutegi-zerbitzuak desafioak eta aldaketak ditu aurrean, eta horiek aintzat hartu eta gainditu beharko ditu.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da liburutegiak etengabe eguneratuta dituztela beren funtsak.

Hain zuzen ere, 2019an **33.932** dokumentu erosi ziren. **Berritze-kuota % 5,92**ko izan zen ohiko funtsarekiko, baina helburua % 10era iristea da.

Bazkideak

- **Izena emandako pertsonak, guztira, 88.938.**
- **2019an, izena emandako 5.569 bazkide berri.**
- **Bazkideen % 31,70 aktiboa da.**

Liburutegiak erabiltzaileek haietaz balia daitezten daude pentsatuta. Literatura, irakurketa eta alfabetatze digitala sustatzeko jarduerak dira. Irakurketa Klubean 482 saio egin ziren, ipuin-kontalarien saioak ere 482 izan ziren, eta 283 saio Liburu Baby Klubean.



Literatur txokoa

Herritarrentzako arreta digital pertsonalizatu handia liburuak erosteko *desideratetan* islatzen da, eta zerbitzuaz eta programen funtzionamenduaz egiten diren galdera ugarietan. Kontsulta horiek gero eta gehiago dira: 2019an, 400 desiderata baino gehiago egin ziren, eta 250 kontsulta zerbitzuari buruz. **Pregunte, las bibliotecas responden** estatuko programak 17 urte bete ditu erreferentzia birtualeko zerbitzua ematen. Liburutegi Nagusiak hasieratik hartu du parte programa horretan, eta 59 galdera jaso eta erantzun ditu.

Funts bibliografikoen erosketen gastua 428.775 €-koa izan da, aurreko urtekoaren parekoa. Alegia, 2,29 €-ko gastua biztanleko, eta 4,82 €-koa bazkideko.

Amaitzeko, liburutegi-zerbitzuaren barruan aipamen berezia merezi du Eguzkitekak,

hots, Kontxako hondartzako arkupeetan kokatutako Udako liburutegiak Gune horrek hirugarren denboraldia izan zuen 2019koa, eta erreferente nabarmena ari da bihurtzen hondartzan irakurgaiak mailegatzeko eta txikien entretenimendurako, itzalean irakurtzeko duen guneagatik, lasai-lasaia itsasoaren aurrez aurre. Arrakasta handia du jarduera horrek, mailegu eta erabiltzaileen datuek erakusten dutenez.

Berrikuntza gisa, gogoratu behar da **Larratxoko** liburutegiak 2019an **RFID (Radio Frequency Identification)** sistema ezarri zuela funtsak kudeatzeko. Horri esker, erabiltzaileek bizkorrago kudeatuko dute nahi dutena, eta hobekuntza nabarmena ekarriko dio Kultur Etxeari. **Sistema hori ezarrita dago dagoeneko gure sareko zortzi liburutegitan.**



PROIEKTUAK

Ernest Lluch-eko liburutegi berria

Aurrez esan dugunez, 2019ko proiektu nagusia **Ernest Lluch Kultur Etxeko liburutegia** bere ohiko kokagunean -Anoetan- **berrirekitzea** izan zen. Lanak zirela eta, liburutegia itxi egin zen 2018ko otsailean, eta ARCCO merkataritzagunean jarri zen zerbitzua ematen jarrai zezan.

2019ko urriaren 14an, berriro ireki zen Anoetan, Kultur Etxeko beste instalakuntzekin batera. Liburutegiak hasierako azalera berdina zuen, hau da, 938 m², baina zerbitzuak aldatu egin ziren, gaurko desafio berriei erantzun ahal izateko eta irakurketa modu berriei bide emateko. Espazioa hobeto antolatuta dago, eta nahikoa leku dago bertan hainbat jarduera antolatzeko, hala nola solasaldiak, ipuin-kontalarien saioak, Liburu Baby Kluba, eta abar. Beste berrikuntza batzuk dira gazteen gunea, isiltasunaren aretoa -ikasteko-, berrikuntzak ikusgai jartzeko gunea edo apalen altuera

berria, liburuak eskuragarriago izateko. Guztiak hartu dituzte ondo erabiltzaileek.

Orobat, berritu egin ziren seinaletikaren irudiak, argiak, altzariak eta, bereziki, apalak, orain mugikorrek baitira. Ondorioz, XXI. menderako liburutegia dugu, aldaketetara errazago egokituko dena.

Bilduma ere eguneratu egin zen, entresaka eginez (nahitaezkoa), besteak beste. Gaur egun, bildumak **38.995 ale** ditu, eta % 50 helduentzako literatura eta liburuak dira, % 35 haur eta gazteentzako literatura, eta % 15 ikus-entzunezkoak.

Espai Catalunya bildumaren ereduari jarraituz, zeinak kasuan kasuko auzoarekin lotzen baititu liburutegiko funtsak, zenbait bilduma sortu ziren, hala nola *Corner-Kirolak* kirol bilduma, *Motxila txikia*, *Mintzoan kux-kux* haurrentzako gomendioak, eta *Irakurketa erraza*, irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat.



Lur erakusketa, Literaktum

LIBURUKA

Arrakastaz jarraitzen du **Liburukak**, irakurketa sustatzeko proiektuak, 2017an hasi ondoren. Hain zuzen ere, *Mi biblioteca* aldizkariak proiektu honen berri eman zuen 59. alean, 2019ko udazkenean (54.-59- or.)

Liburukak lau programa ditu, eta horietatik hiru ikastetxeentzat dira, eta laugarrena liburutegietako langileentzat. Proiektua ikasturtearekin batera doa. 2019ko urtearen balorazioa bikaina izan zen. Donostiako hogeita bi ikastetxek hartu zuten parte, eta honela garatu ziren lau programak:

- **Motxila txikia** Zeinean 3.400 familian hartu baitzuten parte. Ondorioz, bazkidedutako adin txikikoen kopurua 2018koa baino % 25,4 handiagoa da.

- **Irakurle gazteak**: Programa honetan, liburuak mailegutan ematen zaizkie 6 eta 13 urte arteko gazteei ikastetxeetan. 2018-2019



17 segundo, irakurraldi musikatua. Kirmen Uribe eta lagunak. Antzoki Zaharra



ikasturtean, **8.580 liburu** utzi ziren mailegutan hogeita bi ikastetxeetan. Parte hartu zuten ikasleei egindako balorazio-inkestan, dinamikak 8,48 puntu izan zituen, oso nota ona. Interes handiz hartu zuten *Liburu dantza* blogera literatur gomendioak bidaltzeko aukera, zegokien sailean.

- **Adur, Adur ez naiz zure beldur:** 2019an, *Adur, Adur, ez naiz zure beldur* literatur aretoak, irakurzaletasuna bultzatzeaz gainera, "beldurra haur literaturan" izan zuen gaitzat. 800 ikaslek hartu zuten parte. Bikain kalifikazioa eman zioten, eta ikasleen zein irakasleen interesa % 100ekoa izan zen.

- **Liburuzaintzako prestakuntza jarraitua:** Arlo hau liburutegietako langileentzat da, eta zerbitzu honetako profesionalak bi prestakuntza jaso zituzten, irakurzaletasuna sustatzeko lantegia, Intza Alkainen eskutik, eta *Seleccionar y recomendar en la biblioteca*, Villar Arellanok emana. 17 eta 21 liburutegik hartu zuten parte, hurrenez hurren.

batez beste, 20 haurrek hartu zuten parte. Gainera, urriko *Ipuinen maratoiak*, Literaktumen aurretik, lau saio eskaini zituen egun bakarrean, eta 104 lagunek hartu zuten parte.

Apirilean, **Haurrentzako Liburuaren Egunean** (hilaren 2an), **Europe Readsekin** lotutako jarduera bat egin zen Donostiako Udaletxean, Udalbataz Aretoan. **Mestiza** elkarteak bultzatu zuen irakurketa sustatzeko jarduera hori, Europako mailakoa. Jarduera bera -herrialde batetik bestera pasatzen baita- eta alkateak liburuan sinatu zuen ueña jasota geratu dira webgunean

Egun horretan, omenaldia egin zitzaion **Concha Chaos** liburuzainari, zeina liburuzaina ez ezik bibliofiloa baitzen, eta haur literaturako liburuak erosten baitzituen. Haurrentzako Liburutegi Nagusiari egin zion dohaintza 339 izenburu izan ziren, 595 ale, zeinek liburutegi horretako Dokumentazio Guneko bilduma hobetzen lagunduko baitute.


ARGITALPENAK

Argitalpenei dagokienez, **sareko orri-markatzailea** nabarmenduko dugu, urtero bezala. Urtero, euskal ilustratzaile bati enkargatzen zaio orri-markatzailea, gero urte osoan liburutegietan erabiltzeko eta liburutegietara etorriko diren guztiei opari emateko. 2019an, Yolanda Mosquera ilustratzailea hautatu zuten objektu hori sortzeko. Gainera, *Irakurlee* argitaratu zen, irakurketa-gida bat, familia osoarentzako gomendioak biltzen dituena.

Eduki digitalak sortzea, *Wikiliburutegiak* programaren funtsa, garatuz joan zen *Euskarazko haur literatura* euskarazko wikiproiektuarekin eta *Liburuzainak* wikiproiektuarekin. Metodologia aldatu egin zen, eta egun proiektua berrikusi beharra dago.

HAURRENTZAKO BESTE PROIEKTU BATZUK

Txikienen artean irakurketarako dinamizazioa lantzen jarraitu dugu. Haurrentzako programa hauetako batzuk izan dira *Liburu Baby Kluba* (0 eta 3 urte artekoentzat), *Ipuinaren ordua* (2 eta 4 urte artekoentzat), larunbatetako *Irakurketa kluba* (6 eta 8 urte artekoentzat, Galtzagorriekin elkarlanean), edo *Irakurketa digitaleko kluba* (9 eta 12 urte artekoentzat, ostiraletan). Saioetan,



People on the Move



Liburutegiaren Eguna, aurkezkena

“E” EGUNAK

Liburutegi-sarea komunitatearen parte da, eta jarduerak, berriz, gure zerbitzuaren zutabe bat. Mundua irakurleen mundu bihurtzeko utopiak bizi gaitu.

Liburutegien zerbitzuan hiru abagune ditugu seinalatuak:

Poesiaren Munduko Eguna, martxoaren 21ean, **Liburuaren Nazioarteko Eguna**, apirilaren 23an, eta **Liburutegiaren Eguna**, urriaren 24an.

Poesiaren Munduko Egunaerako, martxoaren 21ean, programa berri batek hartu zuen protagonismoa: **Poesialdia**. Martxoko aste horretan, halaber, DK Poesia Saria eman zen bigarren aldiz, **euskarazko poesia**-liburuentzat. **Gorka Salces Alcalde** izan zen saritua, *Iraganaren izterrak* lanagatik. Poesialdia programaren barruan, martxoaren 22an, San Jeronimo kaleko Ekitaldi Aretoan, **Idurre Eskisabel eta Dana kantaria** izan genituen *Goseak janak* emankizunean.

Liburuaren Nazioarteko Egunako jarduna apirilaren 23an ospatu zen, eta jarduerak hilaren 10ean hasi ziren, **Yoseba Peñak** eta **Katharine Winkler**ek aurkeztuta, biak ere Zilarrezko Euskadi sariaren irabazle 2019an, bata *Hariak* lanagatik (Susa) eta bestea *Cárdeno adorno* lanagatik (Periférica), euskaraz eta gaztelaniaz, hurrenez hurren. Geroago (maiatzaren 22an), bi autoreok hitzaldia eman zuten, irakurketa antzetzuekin tartekatuta, Victoria Eugeniako Klub Aretoan.

Bestalde, eguna oso animaturik iragan zen. Gipuzkoako liburu-denda eta liburuzainekin lankidetzan, Liburutegi Sareak standa jarri zuen Gipuzkoa Plazan, jarduera eta kontzertuen programa askotariko batez lagundurik. Besteak beste, Mary Shelleyren **Frankenstein** irakurri zen, euskaraz, argitaratu zeneko 200 urteak ospatzeko, eta Rafa Ruedak kontzertua eman zuen egunaren amaieran.

Sariei dagokienez, aipatzekoa da liburutegi-zerbitzuak **Zilarrezko**

Euskadi literatura sariak babesten dituela, bai eta bi urtez behin ematen diren **Donostia Hiria Kutxa Sariak** ere.

Bestalde, **Liburutegiaren Eguna** (urriaren 24an) aro digitaleko memoriari eskaini zitzaion. Bisita gidatua antolatu zen funts zaharrera, bi eratan -bat gaztelaniaz eta bestea euskaraz-, eta bideoa eman zen (euskaraz azpidatzita). Liburu-erakusketa bat ere egin zen, **literatura-bitxiz** osatua, zeinak oso harrera ona izan baitzuen Izenburua, **Maisu lanak**. Egun bakarra egin zuen Mandasko Dukearen Aretoan, Konstituzio Plazan, hots, Liburutegi Nagusi zaharrean.

Bestalde, San Telmo Museoa **lau hitzaldi** egin ziren, ondotik parte-hartzaileen eztabaida zutela. Moderatzailea Jon Bagüés izan zen, Eresbileko zuzendaria, eta hitzaldiak Espainiako zein nazioarteko pertsonak eman zituzten: **Douglas McCarthy**, European Foundation-ekoa, **Sophie Bertrand**, Frantziako Liburutegi Nazionalekoa, **Elena**



Sánchez, Espainiako Liburutegi Nazionalekoa, eta **Francisca Pulgar**, Eusko Jaurlearitzaren Euskadiko Irakurketa Publikorako Sarekoa.

BESTE JARDUERA BATZUK

Literaktum letren jaialdian, zeina urtearen hondarrean egin baitzen, hauek nabarmendu ziren:

- **Literatur afaria**,
Convent Garden-en, Dickensen *Gabon kanta bat* kontakizunaren inguruan.
- **Solasaldia Christina Rosenvinge** eta **Paula Bonet**ekin beren azken argitarapenei buruz, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan, zeina osorik bete baitzen.
- **Lur argitaletxeari buruzko erakusketa eta omenaldia Egunero hasten delakori**:

Lur argitaletxea aitzindari izan zen 60ko hamarkadaren hondarrean eta 70eko urteetan, eta hari buruzko erakusketak Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eleberriarri egindako omenaldia izan zuen ardatz, duela 50 urte kaleratu baitzen euskarazko literatura modernoko mugarrietako bat dena. Gainera, ospakizun horren inguruan, mahai ingurua egin zen.

Bestalde, **literatur solasaldi** edo **irakurketa-klubak** programazio finko garrantzitsuena izan ziren 2019an ere Liburutegien Sarean.

- Euskarazko solasaldian, Iñigo Aranbarrirekin, 18 lagun izaten dira saioko, batez beste.
- Gaztelaniazko solasaldiaz Amaia García arduratzen da, eta 33 lagunek hartzen dute parte.
- Ingelesezkko solasaldiaz, berriz, Slawa Grabowska, eta 15 lagun biltzen ditu.

- Frantsesezko solasaldia Miren Garmendiak gidatzen du, 25 lagunentzat.
- “Irakurketa erraza” saioko solasaldi berrian hamar lagunek hartzen dute parte batez beste, eta Alderdi Ederreko liburutegian bertan egiten da.

Azken solasaldi hori izan ezik, beste guztiak San Jeronimo kaleko ekitaldi-aretoan egiten dira.

Poesia eta Pentsamendua zikloa (ekainean) izan da orain arte programazioaren gakoa. 2019ko ekainaren 2an, hamabigarren poesia-errezitaldi musikatua egin zen, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan. Parte hartu zuten: Martin Etxeberria, Aintzane Galardi, Jon Gerediaga, Gorka Salces eta Antonia Vicens 2018ko Espainiako Poesia sari nazionalak. Jon Makusok biolina jo zuen.

Eta amaitzeko, San Telmoko *Nazioarteko XXX. Literatur Topaketa, Emakume idazleen mundu bat* ekitaldiaren barruan, Liburutegien Sareak hitzaldiak antolatu zituen azaroaren 6 eta 7an, Katharina Winkler-ekin eta Aleksandra Lum idazle poloniarrekin. Luisa Etxenike arduratu zen koordinazioaz. Jardunaldiok Liburutegien Sareak emakumeek idatzitako literaturaren alde egiten duen beste apustu bat da.



Christina Rosenvinge, Literaktum



**LIBURUTEGI
ZERBITZUA
ZENBAKIETAN
2019**

funtsak

GUZTIRA	573.561
Sarbide librea	475.547
Historiko katalogatua	98.014
EUSKARRIAREN ARABERA	
Liburuak	458.575
CD	35.826
CDROM	2.097
DVD	60.727
Bideo jokoak	1.528
Mapak	208
Material grafikoa	3.436
Partiturak	8.841
Aldikako argitalpenak	2.123
Ordenagailu eramangarriak	34
Ereader-ipad	94
Mahai jokuak	69
HIZKUNTZAREN ARABERA	
Euskeraz	108.568
Gaztelaniaz	409.047
Besterik	55.946
ALTAK	33.932
BAJAK	24.863
BILDUMAREN HAZKUNDEA	1,86 %
BILDUMAREN ERABERRITZEA	5,92 %

maileguak

GUZTIRA	456.787
Maileguak eguneko	1.725
EUSKARRIAREN ARABERA	
Helduentzako liburuak	203.206
Haurrentzako liburuak	127.619
CD	11.214
DVD helduak	63.600
DVD haurrak	27.681
CDROM	423
Aldizkariak	6.758
Mapak	7
Partiturak	2.463
Bideo jokoak	3.763
Ereader-ipad	145
Ordenagailu eramangarriak	6.161
Mahai jokuak	3.747
HIZKUNTZAREN ARABERA	
Euskeraz	64.285
Gaztelaniaz	297.305
Besterik	
E-LIBURUTEGIA	8.039
FUNTS HISTORIKOAK KONTSULTAK	682
HEMEROTEKAKO KONTSULTAK	5.563



bazkideak

GUZTIRA	88.938
Helduak	75.540
Haurrak	12.964
Besterik	434
Gizonezkoak	40.245
Emakumezkoak	48.275
BERRIAK	5.569
Helduak	3.484
Haurrak	1.923
Besterik	162
Gizonezkoak	2.441
Emakumezkoak	2.962
AKTIBOAK	27.577
Helduak	20.442
Haurrak	6.797
Besterik	338
Gizonezkoak	11.509
Emakumezkoak	15.746

bisitariak

GUZTIRA	834.477
EGUNEKO	3.277

kontsultak

INTERNET / CDROM	
KZ gunetan	54.916
Aretoan	39.864
WIFI	
OPAC	479.771
WEB	135.525
HEMEROTEKA DIGITALA	239.255
LIBURU DANTZA	3.386

jarduerak

GUZTIRA	1.697
ETORRITAKOAK	34.166
ERAKUSKETAK	9

azalera

M2	8.959
APALAK METRO-LINEALA	8.702
IRAKURTZEKO GUNEA	1.103



Solasadia, *Ana Merino*



Liburutegi Nagusia

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1874 (1999)

Funtsak	142.753
Sarbide libreko funtsak	66.876
Funts historiko sailkatua	75.877
Altak	6.614
Bajak	1.244
Maileguak	111.021
Maileguak eguneko	373
Kontsultak funts historikoan	682
Kontsultak hemerotekan	5.563
Bisitak	232.238
Bisitak eguneko	779
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	237
Jardueretara etorritakoak	5.034
Erakusketak	5

Liburutegi Nagusia Haur Saila

Haur Liburuaren Dokumentazio Gunea
Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1970 (1994)

Funtsak	47.655
Sarbide libreko funtsak	32.199
Funts historiko sailkatua	15.456
Altak	2.735
Bajak	1.274
Maileguak	29.088
Maileguak eguneko	112
Bisitak	29.421
Bisitak eguneko	113
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	109
Jardueretara etorritakoak	2.482

AIETE K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 2010

Funtsak	32.702
Altak	2.365
Bajak	859
Maileguak	43.234
Maileguak eguneko	148
Bisitak	59.147
Bisitak eguneko	202
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	111
Jardueretara etorritakoak	3.117

ALTZA K.E. Liburutegia

(Larratxo) Sorrera urtea 1987

Funtsak	17.551
Altak	852
Bajak	2.617
Maileguak	8.119
Maileguak eguneko	36
Bisitak	21.076
Bisitak eguneko	94
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	25
Jardueretara etorritakoak	183



Surf txokoa, Okendo



CASARES-TOMASENE K.E. Liburutegia

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1986 (2006)

Funtsak	40.130
Altak	2.369
Bajak	378
Maileguak	36.192
Maileguak eguneko	121
Bisitak	66.062
Bisitak eguneko	222
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	116
Jardueretara etorritakoak	1.376

EGIA K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 1997

Funtsak	29.937
Altak	1.744
Bajak	1.311
Maileguak	20.976
Maileguak eguneko	94
Bisitak	19.422
Bisitak eguneko	87
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	134
Jardueretara etorritakoak	1.851

ERNEST LLUCH K.E. Liburutegia

(Amara) Sorrera urtea 2001

Funtsak	39.088
Altak	2.553
Bajak	11.444
Maileguak	36.595
Maileguak eguneko	128
Bisitak	60.884
Bisitak eguneko	213
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	116
Jardueretara etorritakoak	2.053

INTXAURRONDO K.E. Liburutegia

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 2000 (2011)

Funtsak	46.156
Altak	2.585
Bajak	980
Maileguak	37.892
Maileguak eguneko	155
Bisitak	67.195
Bisitak eguneko	275
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	93
Jardueretara etorritakoak	1.810



Egunero hasten delako, Literaktum mahai-ingurua



LARROTXENE K.E. Liburutegia

(Intxaurreondo) Sorrera urtea 1988

Funtsak	13.634
Altak	786
Bajak	643
Maileguak	8.433
Maileguak eguneko	38
Bisitak	11.835
Bisitak eguneko	53
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	84
Jardueretara etorritakoak	1.885

LOIOLA K.E. Liburutegia

Sorrera urtea 1987

Funtsak	33.963
Altak	1.645
Bajak	758
Maileguak	17.876
Maileguak eguneko	80
Bisitak	22.002
Bisitak eguneko	98
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	76
Jardueretara etorritakoak	1.669

LUGARITZ K.E. Liburutegia

(Antiguo) Sorrera urtea 1993

Funtsak	33.849
Altak	1.787
Bajak	875
Maileguak	23.323
Maileguak eguneko	104
Bisitak	34.161
Bisitak eguneko	152
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	68
Jardueretara etorritakoak	1.520

OKENDO K.E. Liburutegia

(Gros) Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 1987 (2004)

Funtsak	42.070
Altak	2.751
Bajak	1.280
Maileguak	67.197
Maileguak eguneko	226
Bisitak	124.878
Bisitak eguneko	420
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	117
Jardueretara etorritakoak	3.164





URGULL Liburutegia

Sorrera urtea 1997

Funtsak	5.439
Altak	187
Bajak	99
Maileguak	378
Maileguak eguneko	5
Bisitak	3.479
Bisitak eguneko	45
Internet / CDROM kontsultak	54
Jarduera kopuruak	20
Jardueretara etorritakoak	324

EGUZKITEKA

Sorrera urtea 2017

Funtsak	2.248
Altak	535
Bajak	161
Maileguak	4.926
Maileguak eguneko	53
Bisitak	22.751
Bisitak eguneko	245
Jarduera kopuruak	155
Jardueretara etorritakoak	4.426

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO Liburutegia

Sorrera urtea 2006

Funtsak	20.408
Altak	1.285
Bajak	799
Maileguak	6.384
Maileguak eguneko	31
Bisitak	46.943
Bisitak eguneko	225
Internet / CDROM kontsultak	0
Jarduera kopuruak	212
Jardueretara etorritakoak	2.275

SAN TELMO MUSEOA Liburutegia

Sorrera urtea 2011

Funtsak	16.460
Altak	571
Bajak	98
Maileguak	1.085
Maileguak eguneko	6
Bisitak	2.793
Bisitak eguneko	14
Internet / CDROM kontsultak	360
Jarduera kopuruak	21
Jardueretara etorritakoak	936



Sahara, erakusketa



CRISTINA ENEAKO INGUREMEN BALIABIDEEN ETXEKO Liburutegia

Sorrera urtea 2002

Funtsak	2.660
Altak	71
Bajak	0
Maileguak	104
Bisitak	2.340
Bisitak eguneko	6
Internet / CDROM kontsultak	0

AMUNDARAIN MEDIATEKA

Sorrera urtea eta irekiera leku berrian 2006 (2018)

Funtsak	5.367
Altak	1.006
Bajak	43
Maileguak	3.923
Maileguak eguneko	163
Bisitak	7.850
Bisitak eguneko	35
Internet / CDROM kontsultak	1.395
Jarduera kopuruak	0
Jardueretara etorritakoak	0

ESKURA

GIZA ESKUBIDEEN ARLOKO BALIABIDE PEDAGOGIKOEN ZENTROA

Sorrera urtea 2019

Funtsak	1.491
Altak	1.491



Ordesa, Manuel Vilas



Donostiako kultur azpiegituren garapenak, kulturaren arlo guztietan, baita zuzen-zuzeneko arteetan ere, aukera zabalak eta askotarikoak ematen dizkio hiriari kultur garapenerako.

Arte eszenikoei dagokienez, emanaldian eta gertaera eszenikoaren garapenean lortutako kalitateak, bai eta formatuen eta kontzeptu eszenikoen aniztasunak ere, ikus-entzule askorengana iristeko bidea ematen dute, eta proposamen sorta zabalean sakontzeko, hasi klasizismotik (gaur egungo begiradatik betiere) eta proposamen abangoardiako eta arau-hausleagoetaraino. Ohitu egin gara, eta batzuetan ez gara ohartzen Donostiak dituen azpiegituren ugariak. Ugaritasun horrek, erdialdetik auzoetara (edota alderantziz) doan garapen horri esker, aukera handia ematen digu eduki eta formatuetan, eta horrek izugarri errazten du arte eszenikoetako lan publikoa eraginkorragoa izatea eta helburuak anbizio eta asmo handiagoz betetzea.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Victoria Eugenia Antzokia

erreferentziatzko antzokia da, eta gero eta erreferentziatzkoago urtetik urtera, hirian, probintzian eta are Espainiako estatuko antzerki-panoraman. Urtebetean asko egin daiteke. Historia egiten jarraitzen dugu **Voltaire & Rousseau. La disputa** eta gisa horretako ikuskizunekin. Bi filosofoek beren ideiak jartzen dituzte aurrez aurre, Josep María Flotats eta Pere Ponce aktoreen *tour de force* batean. Produkzio hori Centro Dramático Nacional-ek eta Josep María Flotatsek sinatua da. Espainiako eszenako beste nor handi batek, Juan Echanovek, **Rojo** ekarri zigan, John Logan dramaturgo eta gidoigilearen antzerki-arrakasta handiena, sei Tony sari irabazia baita testua (Obrarik Onenari ematen zaiona barne).

Sergio Peris-Menchetak ere ikuskizun bikaina ekarri zigan,

Lehman familiako hiru belaunaldiren historia kontatzen duena. Familia hori giltzarri da kapitalismo modernoaren eraikuntza eta nondik norakoa ulertzeko, eta **Lehman Trilogy** modu zorrotz eta ironikoan erakusten du hori.

Jose María Pouk Zizeron gorpuzten du **Viejo amigo Cicerón**en. Zizeronek hezur-mamitzen du bere sineste politikoen koherentziari are inguruabar kontrakoenetan ere eusten dienaren zintzotasun moralak.

Udan, proposamen-jaialdi bat, harribitxi eszenikoen sorta bat, kolore leherketa bat ikuskizunetan, Imanol Arias **El coronel no tiene quien le escriban**, edo Lolita **La fuerza del cariño**, edo Beatriz Carvajal **Volvió la noche**. Eta horra hor La Fura dels Baus edo The Hole edo Malandain Ballet izen handiak ere. Udako programarako, ikuskizun jostagarriak bilatzen dira, baina baita gai eta eduki interesgarriak eta esanguratsuak planteatzen dituztenak ere.

ANTZOKI ZAHARRA

Antzoki Zaharrak, Donostiako bigarren antzokia izaki, Victoria Eugenia Antzokikoaren antzeko programazioa du. José Sacristán, Ana Morgade, Santi Rodríguez, Jorge Blass izan ziren han udan, besteak beste, guztira ehun inguru izan baitziren. Antzoki Zaharraren programazioaren ezaugarri bi euskarazko antzerkia eta autore-antzerkia dira, **autore** hori **emakumea** da maiz, eta hartara ikusgai jartzen da emakumeek rol sortzaileetan eta zuzendari gisa egiten duten lana. Programazioak



Rojo



leku egin die emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunerantz bizitzako arlo guztietan egiten diren urratsei. Emakumeen historiak kontatzea, emakume oso garrantzitsuak ikusgai paratzea gauzak auzitan jartzeko edota, gutxienez, galderak egiteko. *Una habitación propia*, Clara Sanchisekin, edo *Deje su mensaje después de la señal*, Tanttaka Teatroaren eskutik.

Antzoki Zaharra Euskal Herrian den euskarazko antzerkiaren programazio egonkor eta erregular bakarraren zutabe nagusia da, eta badira zenbait urte horretaz arduratzen direla Donostia Kultura eta Euskararen Udal Departamentua. Kale Nagusiko agertokitik pasatzen dira euskarazko antzerkian dabilizan konpainia gehienak, hala nola Tartean, Txalo, Vaivén, Borobil, Tanttaka... Nabarmentzekoak, **Argiaren hautsa**, **Roman eta Julieta** edo **Utzi zure mezua seinalearen ondoren**, gaztelaniaz aipatu duguna. Urtero, martxoaren 27an, Munduko Antzerki Egunean, Donostia Antzerki Saria ematen zaio aurreko urtean helduentzat programaturiko euskarazko ikuskizunik onenari. 2019an, Vaivén Teatroaren **Sherezade eta tipularen azalak lanak** irabazi zuen.

GAZTESZENA

Gazteszenan, Zaldi urdina euskarazko antzezlanak aretoa bete zuen berriz ere Artedrama + Axut! * Dejabu Panpin Laborategiak sinatutako euskarazko fenomeno bat, Donostia Kulturak koproduzitua. Bestetik, Gazteszenak eszena garaikidearekin duen konpromisoa agerian geratzen da urtez urte. **Matarile** eta **Tizina** dira horren adierazle argiak. Zirkuan, **Romeo Circok** eta **Defraktok** bere marka utzi zuten Egiako aretoan.

Imanol Larzabal aretoak formatu txikian eta **Gazteszenak** abangoardian egiten duten lana nabarmentzekoak dira. Eskaintzen dituzten ikuskizunak gako dira Donostia Kulturaren jarduna jardun oso eta globalizat hartu ahal izateko. Estilo desberdinak, kontzeptu desberdinak eta gorabidean diren artistentzako aukera bat. Imanol Larzabalek Espainiako estatuan gorabidean diren konpainiak programatu zituen: **Nueve Teatro**, **Perigallo Teatro**, **Teatro del Temple**, besteak beste.

Ikuskizun handiei (edo ikuskizun herrikoiagoei) dagokienez, Victoria Eugenia Antzokitik pasatu ziren, esate baterako, **La Fura dels Bausen Carmina Burana** edo **The Hole Zero**, XXI. mendeko kabaret moderno baten adierazlea.

DANTZA

Dantzari dagokionez, berriz, bi lankidetzatza-ardatzi eusten diegu: **Kukai**, Espainiako Dantzaren Sari Nazionala, eta **Malandain Ballet**, zeinak 2019an **Marie Antoinette** eta **Sirènes** aurkeztu baitzituen, bigarrena ingurumenaren gai bati buruz. Malandain Ballet eta Kukai parte-hartzaile nagusiak dira urte osoan zehar antolatzen diren **prestakuntzarako eta dantzaren alderako sentsibilizaziorako jarduera koreografikoetan**: topaketak, eskolak, lantegiak, laborategiak eta abar. Eta Donostia Kulturak urte osoan zehar duen jarduera koreografikoa ikusgai jartzeko eta ezagutzera emateko, 2019an **Ballet T Egunak**en bigarren edizioa egin zen: Ikasleentzako emanaldiak, kale-emanaldiak, erakusketak, lantegiak... denen artean asteburu betea osatu zuten dantzaren inguruan.

Emanaldien artean, **Zero visibility**: gure espeziearen biziraupena da koreografia honen gai nagusia, non zazpi dantzari ari baitira antzerkitik hartutako elementu eszenografiko, poetiko eta multimediekin, diseinu minimalista batez... Ohiz kanpoko esperientzia, Christel Johannessen-ek zuzenduriko Zero Visibility Corp dantza garaikideko konpainia norvegiarraren eskutik. **Notre Dame de Paris** lanak, Victor Hugoren eleberrri ospetsuan



Carmina Burana, La Fura dels Baus



The Hole Zero

inspiratua noski, XV. mendeko Pariseko bazter triste eta ilunetara garamatza, eta han Quasimodo aurkituko dugu, amodioa eta heriotza batzen dituen historia honetako protagonista, zeina mundu guztiak ezagutzen baitu *Notre Dameko konkorduna* goitzenaz. Balletto di Siena 2011n sortu zen, proiektu handinahi bat garatzeko xedez: dantzari gazteei lan-mundura iristeko bidean laguntzea dagoeneko arte-munduan eskarmentu handia duten profesionalekin jardunez. Bere ibilbidean jaso dituen aipamen eta sari askotarikoek erreferentziatzeko dantza-konpainia bihurtu dute European, goraldean dena. Azpimarratzekoak Los Vivancos etorri izana, Verdiniren 25. Urteurrena, Taiat Dansa, Kubako Ballet Nazionala... Amaitzeko, aipatu beharrekoak dira Jesús Herrera eta bere konpainiaren **Hamlet. La danza del melancólico**, flamenko hutsean, eta Olga Pencet Espainiako Dantzako Sari Nazionalaren ikuskizun bikaina, flamenkoa hau ere, **La espina que quiso ser flor o la flor que soñó**

con ser bailaora. Bide berriak biak ere, gelditu gabe berritzen den flamenkoarentzat. Jesús Rubio Gamok **Gran bolero** aurkeztu zuen, pieza koreografiko aparta. Erresistentziaren neke-plazerei buruzko pieza bat da, atseginetik akidurarako iragaiteari buruzko dantza setatsua, partekatzen ditugun denbora eta espazioa, betea eta iheskorra, bihotz-pilpira eta sosegua ospatzeko dantza. **Gran Bolero** aukera ederra da zera gogoratzeko: noizbait erabaki genuela sinestea ezen dantzak eta musikak orotarik salbatuko gintuztela.

Ezin ahaztu Egia Kultur Etxeko **Gazteszena** aretoak dantza garaikidearen inguruan egiten duen lan itzela. Judith Argomaniz, Antonio Ruz, Mujika & Osa, Ana Vallés eta beste artista batzuk. Eta ikuskizunen artean, Lasalaren **Iu & Fetás**, Mujika & Osaren **Kenophobia** edo Matarileren **Los limones&la nieve**.

Amaitzeko, azpimarra dezagun, halaber, **Dantzaren Profesionalen**

Elkarteak dantza sustatzeko eta garatzeko egiten duen lana, zeinaren adierazlerik nabarmenena Dantzaren Hilabetea baita, eta, zehatzago, Dantzaren Gala, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan. Ez dugu ahaztu nahi Verdini, ez eta dantza urbanoak, tradizionalak edota flamenko hutsa interpretatu zuten konpainiak ere. Denen artean, urte koreografiko kolore-anitza eskaini ziguten.

HAURRAK ETA GAZTEAK

Haurrentzako programazioa.

Arte eszenikoek hitzezko eta gorputz bidezko adierazpena garatzen laguntzen dute, eta buru-azkartasuna eta amets eta hegan egiteko gaitasuna pizten. Onura dakarkiete, halaber, hizketari, dikzioari, kontzentrazioari, gogoetari eta sormenari. Ikus-entzuleria berriak sortzeak, arte eszenikoak etxeko txikiarentzat ere onak direla sinestea eraman gaitu antzerki- eta dantza-programazio egonkorak osatzera kultur etxe guztietan. Batzuk auzoari zuzenduak; beste batzuk, berriz, hiri osoari, hala nola udal antzokietan eta kultur etxeetan diseinatzen direnak; zehazki, Egia, Lugaritz eta Altza kultur etxeetan. Udan izan ezik, esan dezakegu asteburu guztietan dagoela programaturik ikuskizun bat gutxienez Donostian.

Eskolatik antzokira proiektu sendoa da gaur egun, eta hazi eta hazi egin da etengabe 2009an lehen edizioa egin zenetik.

Arte eszenikoak etorkizuneko ikus-entzuleei hurbiltzea ardatz estrategikoa da Donostia



© Juantxo Egaña

Utzi zure mezua seinalearen ondoren, Tanttaka Teatroa



© E. Moreno Esquitel

Garai Zekenak, Arriaga Teatroa

Kulturarentzat ikus-entzuleria berriak sortzeari dagokionez. Gazteenei arte eszenikoak maitatzen irakastea, zuzeneko arteak maitatzen irakastea, oso osagarri garrantzitsua iruditzen zaigu haien heziketa akademikoan eta pertsona gisa.

Programa hau 10 ediziotan martxan jarri eta gero, esan dezakegu bete-betean asmatu genuela hain prozesu aberasgarriari ekitean, ikusirik zer emaitza izan dituen eta zer-nolako balorazioak izan dituen urtez urte. Edizio bakoitza hazi egin da adin-tarte guztietan, bi urteko haurretatik hemezortzi dituztenetara.

Edizioren batean parte hartu duten ikastetxeek jarraitu egin dute ondorengoetan, eta, beraz, ondorioztatu dugu proiektuak sortu duen interesaren emaitza dela erakutsitako leialtasun hori.

2019ko edizioan, **8.543 haur eta gazte** izan dira programaturiko **6 ikuskizunen 45 emanaldietan**

(ikusizun bat adin-tarte bakoitzeko). **33 ikastetxek** hartu zuten parte, **127 taldek** guztira.

Ordu Gaztea 903 gaztek atera diote onura "ordu gaztea"ri, hau da, **3 euroren** truke ikuskizun batera joan direnek, zeinahi zelarik berezko prezioa; frogatu ondoren, betiere, 30 urtetik beherakoak zirela eta sarrera kasuan kasuko funtzioa hasi aurreko 30 minutuetan erosita. Ekintza positiboa gazte jendeari begira, adin horietakoei ikuskizunetarako irispidea eskaini nahi dena, arte eszenikoen alderako zaletasuna eta loturak sortuz joan daitezten.

DFERIA

dFERIA, arte eszenikoen feria, ikus-entzuleen eta kritikarien artean arrakasta handia lortuta amaitu zen, "oso sentsazio onekin". 2019an, **dFERIAren 25. edizioa** egin zen, **boterea leit motivtza** hartuta, eta 38 ikuskizunen

48 funtzio programatu ziren, 11 agertokitan. Guztira, 18.000 lagun baino gehiago izan ziren programaturiko emanaldietan, eta, batez beste, %85ekoa izan zen aretoen okupazioa. Akreditaturiko pertsonen dagokionez, 2019an 540 izan ziren profesional akreditatuak (hau da, aurreko urteko edizioan baino %4 gehiago). Diziplinaka, %37 antzerki-funtzioak izan ziren, %45 dantzakoak, eta %18 multidisziplinarioak Jatorriaren aldetik, funtzioen %41 Euskal Herriko produkzioak ziren, %31 Estatuko beste alde batzuetakoak, eta %28 atzeritarrak.

dFERIAk ikus-entzuleei eskaintzen dien antzerki eta dantza jaialdiarekin batera, jarduera profesional betea izan zen: bilerak, topaketak, erakusketak, harreman profesionalak, proiektu-aurrekezpenak, negozio-bilerak, lantegiak.

Salbuespen gisa, **25. urteurrena** ospatzeko, kaleko arteen erakusketa



bat programatu zen feria hasi aurreko larunbatean, bai eta hiriarri eskaintako ikuskizun bat: **Hamlet**, hain zuzen ere, Arriaga antzokiarekin batera produzitua.

DFERIA ABROAD

dFERIAk sortzaileei -kasu honetan, Euskal Herriko sortzaileei- beren lana indartzen laguntzeko eta bultzatzeko duen asmo baitezpadako honek tresna berri bat du 2017tik, **dFERIA ABROAD** deitu duguna, zeinaren helburua merkatu berriak irekitzea baita, hala European nola Amerikan.

Zer da dFERIA ABROAD? dFERIA ABROAD **Etxepare Institutu**arekin elkarlanean egindako proiektu bat da, zeinari esker, aukera baitugu dFERIAren sustatze-lana erregularizatzeko eta Donostiatik urrun dauden beste leku batzuetara luzatzeko eta hedarazteko, eta urteko beste hilabete batzuetara. Hartara, beste neurri bat ematen zaio feriarri, munduko beste ekitaldi eta jaialdiekiko lankidetzak dela bide, laguntza emanez konpainiei beren ikuskizunak



Txarriboda

aurkez ditzaten, ezagutuak izan daitezten eta ikus-entzule berriak eta muga berriak irits ditzaten. 2019an, proiektu honen bigarren edizioa egin zen, eta honako lankidetzak hauek izan genituen:

a) MAPAS, Hego Atlantikoko Arte Performatiboaren Merkatua, Tenerifen, Kanariar Uharteetan. Uztailean izan zen, eta gure parte-hartzailea: **Amour**, Marie de Jongh Taldea (teatro).

b) MID, Brasiliako (Brasil) Nazioarteko Dantza Mugimendua. Apirilean parte hartu zuen: **Jardín de invierno**, Cielo Raso Dantza.

c) DOM KULTURY 13 MUZ, Kontrapunkt Festival, Szczecin-en (Polonia). Maiatzean parte hartu zuen: **Oskara**, Kukai Dantza.



Marie Antoniette (Malandain Ballet)

EKOIZPENAK

Victoria Eugenia Antzokia

arte eszenikoaren arloko eragile dinamizatzailea da (antzerkia, dantza eta, gutxiago bada ere, zirkua), eta urtero, urratsez urrats, aktiboki hartzen du parte sektorea ehuntzen. Antzerkia ikuskizunen erakustoki bat baino gehiago da. Antzoki dinamikoa izan nahi du, kudeaketa-bide berriak urratuko dituen, erronka berriei ekingo diena eta erakuste hutsa baino harago iritsiko dena, konpromisoak hartuz eta modu desberdinean inplikaturaz proiektuetan, modu beteagoan. Gastuak partekatuz ez ezik, ikuskizunaren garapenean eta geroko bizitzan parte hartuz. Horregatik, koproduzitzeko asmoa dugu, hein batean bada ere; laguntzeko, berresteko, bultzatzeko asmoa, hots, proiektuaren parte izateko. Produzioen kostu handiek eta ondorengo banaketaren zailak bat egitera eta arriskuak hartzera behartzen gaituzte. Sortzeko arriskuak hartzera, alegia, lasaitasun handiagoz eta baliabide gehiagoz, zertarako eta emaitza artistiko onak eta ustiatze-aldi luzeagoak lortzeko.

Victoria Eugenia Antzokiak honako ikuskizun hauek koproduzitu ditu 2019an:

Marie Antoinette, Malandain Ballet Biarritz.

BALLET T proiektuaren baitako lankidetzak Malandain Ballet Biarritz Koreografia Gunearekin, eta Versaillesko Opera Real-ekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Music Hall Antwerpen-ekin, Saint-Etienneko Operarekin eta Reims-eko Operarekin batera ekoitzia. Koreografia: Thierry Malandain



Musika: Joseph Haydn eta Christoph Willibald Gluck

Harri orri ar / El patio de mi casa

Pez Limbo

Antzerkigintza berriak
proiektuaren barruan hautaturiko
testua, Bilboko Arriaga

Antzokiak, Gasteizko Principal
Antzokiak eta Victoria Eugenia
Antzokiak ekoitzia (ANTZ3RKIZ),
Pez Limboren lankidetzarekin.

Eszena-zuzendaria:

María Goiricelaya

Autorea: María Goiricelaya

Zaldi urdina

Artedrama + Axut!
+ Dejabu Panpin Laborategia
Eszena-zuzendaria: Ximun Fuchs
Autoreak: Unai Iturriaga
e Igor Elortza

Utzi zure mezua seinalearen ondoren / Deje su mensaje después de la señal

Tanttaka Teatroa

Eszena-zuzendaria:

María Goiricelaya

Autorea: Arantza Portabales



SENSESIBILIZAZIOA

Prestakuntza-jarduerak eta arte eszenikoetan sentsibilizatzeko jarduerak, horra gure Unitatean modu berezian zaintzen dugun ardatza, urtean 6.000 lagun baino gehiago mugiarazten dituen topaketa, lantegi, *master class*, truke eta abarren bitartez.

DRAMATURGIA BERRIAK

Dramaturgia berriak Donostia Europako 2016ko Kultur hiriburuaren ondarea da, eta Bilboko Arriaga Antzokiarekin eta Gasteizko Principal Antzokiarekin batera darama aurrera Antzerki Unitateak. Programaren helburua sortzaileen eta dramaturgoen sare bat sortzea da, zertarako eta, ohiko bakar-lana eta hain ohiko ez den talde-lana konbinatuta, material dramatikoaren harrobia osa dezan, antzerki-konpainientzat eta sorkuntza eszenikoarentzat erreferente izango dena. Orobat, ekinbide honen helburua antzerki-testu berriak sortzea da; testua, partitura gisa ulerturik, zuzendari bati ematen zaiona eszenara dezan. Hautaturiko pertsonak, gehienez ere zortzi, obra dramatiko bat garatu beharko dute lau hilabetean, arte eszenikoetako profesionalen gidaritzapean: Patxo Telleria eta Mireia Gabilondo.

KIMU

KIMU ere Donostia Europako 2016ko Kultur Hiriburuaren ondarea da, eta Antzerki Unitateak Euskal Kultur Elkartearekin batera darama aurrera. Helburua haurrentzako autoheziketa-plan bat eratzea da antzerkiaren munduan. Hautaturiko pertsonak, gehienez ere lau, diseinaturiko autoheziketa-plana garatu beharko dute zortzi hilabetean, plan horregatik eta beren CVagatik hautatuak izan ondoren proiektuan parte hartzeko. Partaide bakoitzak gaian espezialista den norbaiten laguntza izango du, aita pontekoa izango balu bezala.

SAREKO LANA

Sareko lana beste ardatz bat da Antzerki eta Dantza Unitatean. Programa asko, edo proiektu edo ekitaldi asko, erakunde publiko zein pribatuekin lankidetzan egiten dira; hainbat erakunde edo errealitatetako kudeatzaile, artista eta sortzaileekin lankidetzan. Batasunak indarra dakar, eta hortik dator urtez urte aurkezten ditugun programen sendotasuna. Erregularitasuna eta iraunkortasuna dira epe ertainean emaitza sendoak lortzeko bermea.



El patio de mi casa



Lanak Emanaldiak Ikus-entzuleak Ordu Gaztea

Antzerkia

NEGUKO DENBORALDIA	GUZTIRA	133	228	46.098	169
Antzerki profesionala (euskaraz)		15	25	7.274	29
Antzerki profesionala (gazteleraz)		32	55	15.639	121
Haurrentzako antzerkia (euskaraz)		19	21	2.722	
Haurrentzako antzerkia (gazteleraz)		1	1	96	
Klub Aretoa (gazteleraz)		6	17	986	10
Klub Aretoa (euskaraz)		1	4	160	9
Antzerki amateurra (euskaraz)		18	21	3.010	
Antzerki amateurra (gazteleraz)		18	18	1.674	
Eskolatik Antzokira		6	45	8.543	
Eskolentzako Antzerki saioak*		1	4	957	
Kale antzerkia (euskaraz)		7	7	2.125	
Kale antzerkia (gazteleraz)		2	2	547	
Kale antzerkia (testurik gabe)		7	8	2.365	
UDAKO DENBORALDIA	GUZTIRA	19	86	22.962	456
Antzerki profesionala (euskaraz)		2	7	2.750	2
Antzerki profesionala (gazteleraz)		15	63	19.075	454
Klub Aretoa (euskaraz)		2	16	1.137	19

Dantza

GUZTIRA	45	69	16.170	103
Dantza profesionala	42	64	15.805	103
Klub Aretoa	3	5	365	0

Musikalak

GUZTIRA	3	17	8.278	175
---------	---	----	-------	-----

Zirkua

GUZTIRA	2	2	227	0
---------	---	---	-----	---

Jaialdiak

GUZTIRA	83	118	17.776	0
dFeria	48	65	13.189	0
Poltsiko Antzerkia	17	33	3.037	0
Gazteen Antzerki Topaketa	18	20	1.550	0

Jarduerak Egunak Parte-hartzaileak

Beste jarduerak

TOTAL	56	186	6.503
DANTZA	42	64	15.805
ANTZERKIA	10	24	431



Victoria Eugenia

Antzokiko musika-programazioak

Donostiako eskaintzaren proposamenik interesgarri eta sendoenetako batzuk bildu zituen 2019an. Horren adibide dira, besteak beste, izen hauek: **Yo La Tengo, Echo & The Bunnymen, Deacon Blue, Ismael Serrano, Lisa Stanfield, Miguel Poveda, Ralph Towner, Eñaut Elorrieta, Olatz Salvador, Ute Lemper, Morgan.** Horrez gainera, oso nabarmentzekoa da programazio hori, ahal izan zen neurrian, bertako eragile, agentzia eta elkarteekin batera gauzatu zela.

Antzoki Zaharrak, berri, **bost musika-emankizun** izan zituen; oso anitzak denak ere, hala nola **Curtis Harding, Rafa Berrio** edo **Dorian Woodenak**.

Donostia Kulturako Musika Departamenduak programatzen du **Kursaal Eszenaren Herri Musika** saila. 2019an, **8 emankizun** izan dira **Kursaaleko Auditorioan**. Jendeak oso ondo hartu zituen **Izaro, Loreena MacKennit, Beirut, Vetusta Morla (2), Ludovico Einaudi, Omara Portuondo** eta **Ruper Ordorika**.

2019an ere, ekainaren 21a, Musikaren Europar Eguna, aitzakia polita izan zen **Adarra Saria** emateko. Urtero, sari horren bidez, Euskal Musikaren arloan jardun duen edo diharduen artista baten ibilbidea eta lana nabarmentzen dira. Aitortza hau **Berri Txarrak** taldeari egin zitzaion, eta hain zuzen ere taldearen agurreko birarekin batera tokatu zen, non egundoko ikusmina sortu baitzuen emanaldi guztietan.

Bestalde, azpimarratzea komeni da bertako musika-erakundeekin izandako harremanak oso onak izan zirela; honako hauekin, besteak beste: Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Donostia Musika, Francisco Escudero Kontserbatorioa, Udalaren Musika eta Dantza Eskola. Horri esker, sinergiak ezar daitezke, eta musika-arlorako ongari gertatuko diren lankidetzak.



Ute Lemper



Curtis Harding

© J.A. Areta Goñi (JUXE)



Berri Txarrak



© J.A. Areta Goñi (JUXE)

Yo La Tengo

Guztira, **54 talde** aritu ziren (55 kontzertu eman zituztenak) Musika Unitateak sustatuta bere aretoetan (**31.575 ikusle**), horietatik 14 euskal musikari egokitu zitzaizkion. Horrez gainera, Heineken Jazzaldia, izan genuen, zeinaren programazioa ere Departamentu honi baitagokio, eta 2019an 54. edizioa egin zuen, arrakasta handiz egin ere, hala ikus-entzuleen nola kritikaren aldetik. **168.000** entzule baino gehiago izan ziren **93** kontzertu baino gehiagotan, uztailaren 24tik 28era bitarte.

- 54** kontzertu horietatik:
- 28** kontzertu Victoria Eugenia Antzokian (Areta Nagusian), 17 gaztelaniaz eta 11 euskaraz.
- 14** Victoria Eugenia Antzokian (Klub Aretoa), 12 gaztelaniaz

- eta 2 euskaraz.
- 5** Antzoki Zaharrean, 4 gaztelaniaz eta 1 euskaraz.
- 7** Kursaal Eszenaren programazioaren barruan (Auditorioa), 5 gaztelaniaz eta 2 euskaraz.

EUSKAL MUSIKAREN 16 KONTZERTU

Haur eta gazteei zuzendutako programazioan, euskara izan zen komunikazio-hizkuntza; horrez gainera, programazioaren kalitateari eusteko, Euskaditik kanpoko eragileez ere baliatu behar izan zen. Musika Departamentuan euskarari buruzko araudiaren esanetara jokatzen da beti.

BERDINTASUNAREN ETA INTEGRATZIOAREN ALDE

Programaturiko **18** kontzertutan, emakume bat edo batzuk izan ziren protagonistak. Gainera, Heineken Jazzaldian, **18** kontzertutan behinik behin, emakumeak izan ziren buru.

TOKIKOAREN ALDE

Sail edo Zerbitzu honek programaturiko **28** kontzertutan, bertako artistek jardun zuten. Horrez gainera, Jazzaldian diren zenbait atalek, definizioz, bertako artisten presentzia eskatzen dute: **10** talde zuzeneko hautespen-prozesu batetik datoz; beste **5**, aurreko urteko jarduera diskografikotik hautatuak dira, eta beste hiru, berriz, Musikenek bere ikasleen artean hautatuak. Gainera, beste kontzertu batzuetan, interes artistikoaren beraren eraginez, beti izaten dira Jaialdian parte hartzen duten Euskal Herriko artistak.

Gure erkidegoko sustatzaile pribatuei, bestalde, lehenetsuna eman zitzaizen hitzarmenak egiteko edoemanaldiak kontratatzeke. Esandako **54** kontzertuetatik **38**tan, bertako enpresek parte hartu zuten hitzarmenean edo kontratazioan.

Hitzarmenak eta lankidetzak akordioak egin ziren bertako musika-erakundeekin; besteak beste, Musikene, EGO, Euskadiko Orkestra, Francisco Escudero Kontserbatorioa eta Udalaren Musika eta Dantza Eskolarekin.

Aretoa	Kontzertuak	Ikus-entzuleak
GUZTIRA	55	31.575
Victoria Eugenia Antzokia	28	16.117
Klub Aretoa	14	2.369
Antzoki Zaharra	5	1.408
Kursaal Auditorioa	8	11.681

* **54 talde** aritu ziren, eta horietako batek, *Vetusta Morlak*, 2 kontzertu eskaini zituen.



Ikus-entzunezkoen programazioak erakargarri handienetako bat dira donostiarren aisialdirako; dagoeneko ondo finkatutako edukiak dituzte, bai eta eduki berriak ere, elkarteen edo eragile pribatuen ekimenaren ondorioz.

Donostia Kulturaren programarik beteranoena **Nosferatu** da, zeinak dagoeneko bere lekua egina baitu Tabakaleraren programazio-mahaian. 2019an, **Agnès Vardari** eskainitako aldiaren ondoren, **Rainer Werner Fassbinder** zinegile alemanaren atzera begirako oso eta asmo handikoari ekin dio.


DK-k 2019an diruz lagundutako Zinemaldien artean, **Dock of the Bay** dokumental musikalen zinemaldiaren **XII. edizioa** egin da; bai eta **Nazioartekio Itsaspeko 43. Zinema Zikloa** eta film laburrei eskainitako **Donoskino III** ere.

Bang Bang Zinema Antzoki Zaharretik bereizi ezin den harribitxi bat da, jendeak beti-beti betetzen baitu aretoa, zine mitikoenaren aldeko esperientzia kolektiboaren bila, giro eta parte-hartzerik onenean.

FICA jaialdia ere, lotura estukoa zenbait kirolekin, bigarren urtez etorri da, Zinea eta Atletismoa goiburutzat hartuta, eta **SAIL IN** lehen aldiz iritsi da Donostiara, begia nabigazioaren munduan ipinita. Bestalde, sendotuago daude Zineari eta Mendiari eskainitako **Menditour** saioak. Eta **Korner, Kultura & Futbol festibala** delakoan, berriz, zineak leku nabarmena izan zuen bigarren edizioan ere, bi film handi eskaini baitziren.



Agnès Varda, Nosferatu zikloa



Sail in Tour

Antzoki Zaharrak hirugarren aldiz hartu du **Beste begiradak** lehiaketaren amaierako gala, zenbait kolektiboren zine amateurrari eskainia, bereziki gazteenei. Etorkizuneko ikus-entzule eta sortzaileekiko lan hori egiten da, halaber, **Euskara Zine Aretoetara** programan ere. Tinkorekin itundutako programa

bat da, eta milaka ikasle jartzen ditu pantaila handiaren aurrean ikasturte osoan zehar.

Helburu gisa edota beren mezua hedatzeko asmoz ikus-entzunezkoak erabili duten beste kolektibo izaera sozialagoko batzuei ere lagundu zaie: **Atzegi, Bideak Zabalduz** ekinbidea, **Manos k**



Fassbinder, Nosferatu zikloa



rien eta Emakumeen Etxea

(VII. Jardunaldiak Emakumeek egindako Zinemaz: Zinegile argentinarak). **Zinegoak** zinemaldiak Donostiaraino luzatu zituen besoak Ehgam eta Gehituren bitartez, eta azken elkarte horrek omenaldi-erakusketa antolatu zion **Almodóvarri** Donostiako Zinemaldian, San Jeronimo kaleko gure aretoan.

Kresala zineklubak ere bere ohiko saria eman zuen urte hondarrean, film batekin batera. Eta gure aretoak paregabeak dira, halaber, euskal produkzio garrantzitsuen *première*etarako: **Elkano, lehen mundu bira** animaziozkoa, ETBren **Ihesaldia** minisaila, **Ez, eskerrik asko!**, **Gladys leihoa** eta **La marcha de San Sebastián** film laburra.

Beste programazio batzuei ere lagundu zaie, hala nola **Zinema Hondartzani** Aste Nagusian, eta euskarazko filmen kultur banaketarako **Filmazpit** programaren jarraipenari: horiek osatu dute gure Zine Arloaren lan-urtea.



Rafiki, Zinegoak



Zine eta Kultura Askeko Zinemaldia



Marianne, Dock of the bay

	Egunak	Saioak	Ikusleak euskaraz	Ikusleak gazteleraz	Ikusle guztiak
GUZTIRA	128	183	19.481	25.324	44.805
Nosferatu	38	38	640	2.958	3.598
Beldurrezko eta Fantasiarazko Astea	8	37	2.711	7.316	10.027
Giza Eskubideen Zinemaldia	12	29	4.941	5.093	10.034
Dock of the Bay	2	6	0	1.480	1.480
Bang Bang	5	5	0	2.500	2.500
Tinko	33	35	9.145	0	9.145
Beste saio berezi batzuk	30	33	2.044	5.977	8.021



Errege Magoak Miramar Jauregian

Festak atal berezia da Donostian. Hortaz, hona hemen urteroko memoria, bai gaiak eta bai lanak behar dituzten xarmaz eta berezitasunaz jantzirik.


Segidan Udaletxean egin zitzaien harrera, berriz, 15:30ak eta 17:30ak bitartean izan zen, eta, atsedenaldi labur baten ondotik, hiriaren erdialdeko kaleetan barrena ibili ziren, 18:00etan hasitako desfilean.

Desfilea amaitu ondoren, Rezola eta Villa Sacramentoko gerontologia-zentroak bisitatu zituzten.

Casares Kultur Etxeko plazan elkartu ziren Erregeak Altzako auzoko hurrekin.

ERREGE MAGOAK 2019

Sortaldeko **Errege Magoek** Miramar Jauregira eta hango lorategietara bisita egitea eskatu zuten. Jauregiko balkoi batetik, 2019ko urtarrilaren 5ean, hara agertutako haur guztiak agurtu zituzten, goizeko 11etan, batez ere Antiguako auzotik etorritakoak. Ondoren, aurreko urtean egin zuten bezala, Erregeek hiriko auzo batzuk bisitatu zituzten; oraingoan, Egia, Bidebieta, Intxaurren, Martutene eta Amarako auzoak bisitatzeko gogoia adierazi zuten. Errege Postariak auzoetan ematen zitzaizkien gutun guztiak jaso zituzten beren zorro handietan.






Haur danborrada

HAUR DANBORRADA

2019ko urtarrilaren 18an, ostiralarekin, aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokian **Haur Danborrada**.

Urtarrilaren 20an, eguerdiko 12etan, desfilea Alderdi Ederretik abiatu, eta erdialdeko kaleetan barrena ibili zen. Hura itxiz, karroza, gure hiriko gizarte zibilaren XIX. mendeko ordezkari bat

zeramala. Azken urteotan agertuz joan diren pertsonaiei, irudi berri bat gehitu zitzaien: *notarioa*.



Ikastetxe eta auzoetan egindako haur danborradak kontuan hartuta, 8.249 haurrek hartu zuten parte.



HELDUEN DANBORRADAK

8.000 lagun inguruk mukuru bete zuten Konstituzio Plaza, San Sebastian egunari hasiera ematen dion **bandera-jasotzean** izateko.

112 lagunek ordezkatu zituzten hiriko auzoetako danborradak, Kresala Dantza Taldearekin batera, oso ekitaldi jendetsuan, zeina 00:00etan hasi baitzen.

Bandera-jasotzea ere zenbait auzotan egin zen, eta jende asko bildu zuen halaber.

Bandera-jaisteak ere mukuru bete zuen Konstituzio plaza, eta hiriko auzoetako danborradetatik etorritako 87 lagunek hartu zuten parte.



EUROPA SARIA

Europar Kontseiluak **Europa Saria** eman dio Donostiari **2019**an, *Europa eraikitzearen balioak hedatzen egindako lanagatik*. Sari hori Europar Kontseiluak hiri bati ematen dion saririk garrantzitsuen da, eta Europako 47 estatuetakoko hiri bati ematen zaio. Europaren ideala sustatzen bereziki ekintzaile agertu diren hiriak saritzeko sortu zen. Sari horretarako hautagai izateko, hiriak honako hauek jasoak behar ditu izan aurrez:

- 1. Europar Diploma (1989an emana)**
- 2. Ohorezko Bandera (1990ean emana)**
- 3. Ohorezko Plaka (2009an emana)**

Sari-banaketa Donostiako Udaletxean izan zen, irailaren 19an.

Ekitaldiaren aurretik, belaunaldi arteko danborrada bat, mistoa eta zenbait danborradetako ordezkariak osaturik, Parte Zaharreko kaleetan barrena ibili

zen, eta Udaletxeko terrazan jarri ziren Europar Batzordeko kideak eta ekitaldira gonbidatuak.

Une hunkigarria izan zen, San Sebastianen martxa joz amaitu zena, eta ondoren erdialdeko kaleetan ibili ziren, gure hiriak jasotako saria iragarritz.



DONOSTIAKO KALDEREROAK

Kaldereroen konpartsa tradizionala osatzen duten 19 tribuak Parte Zaharreko kaleetan ibili ziren otsailaren 2an, kanpamendua Konstituzio Plazan jarri eta gero.


la auzo guztiek dute beren konpartsa, **inauteriak** badatozela iragartzeko: Aiete, Altza, Amara, Antigua, Erdialdea, Egia, Gros, Herrera, Intxaurrondo, Loiola eta Parte Zaharra.

ERREGINA:
Asier Garraialde

DAMAK:
IZASKUN LARRUSKAIN, MIREN SAGARZAZU
(Hondarribiko Alarde Mistoko Jaizkibel konpainiako kideak)



19 tribu



% 57 emakumeak

Parte Zaharreko kaldereroak



400 parte-hartzaile

Auzoetako kaldereroak



4.414 parte-hartzaile



16 konpartsa



Kaldereroak

INUDE ETA ARTZAINAK

Zenbait auzotan, **inude eta artzainen** konpartsak irten ziren.



otsailak 3

Parte Zaharra
Kresala Elkartea

Gros
Groseko Artzain eta Iñudeak "Artainu"

Amara Berri eta Loiolako Erribera
Ikasbide Guraso Elkartea



martxoak 2

Antigua
Antiguotarrak Dantza Taldea



Inudeak eta artzainak



INAUTERIAK

Otsailaren 28an, ostegunarekin, Momo jainkosa iritsi zen hirira, eta orduan hasi ziren inauteriak. Programazio nagusiak martxoaren 4ra arte iraun zuen.

Egiako *Denok Taldea* konpartsako kideek egin zuten inauterietako irudi ezagunena Maider Lópezek Momo jainkosarena egin zuen, eta Ana Gil, Judith Sánchez eta Mikel Nuñezek haren segizioko kideena

Auzoetan ere egin ziren **inauteriak**, hala nola Altza, Bidebieta, Intxaurren eta Loiolako Erriberan, non desfileak eta beste zenbait jarduera programatu baitziren; besteak beste, Altzako Piñata Igandea, zeinean 254 taldek hartu baitzuten parte.

Bestalde, Loiolako Erriberak lehen aldiz izan zuen inauterietako desfilea. Martxoaren 9an, hain zuzen ere, eta 16 konpartsak hartu zuten parte. Eraitza espero zena izan zen: auzoak buru-belarri hartu zuten parte ospakizunean, eta eskatu zuten desfile hori hurrengo urteetan ere egin dadila.



Inauteriko konpartsa



SAN JUAN BEZPERA

2019an, San Juan bezpera igandea tokatzen zenez, goizean hasi zen festa, lizarra Konstituzio Plazan ipintzearekin, behinola egiten zen bezala: Sei gizonen osatutako kuadrilla batek zuhaitza jaso zuen, horretarako enberrari lotutako lau soka erabilita. Zuhaitza Saguestik ekarri zuten, idiek tiratutako gurdi batean, Eskola, Gero Axular, Kresala eta Goizaldi taldeetako dantzariekin batera, zeinek zenbait dantza egin baitzituzten ibilbidean.

Arratsaldean, 19:00etan, alkateak eta zinegotziek agintarien soka-dantzan jardun zuten Konstituzio Plazaren erdian ipinitako lizarraren inguruan, Goizaldi

Dantza Taldea eta txistularien udal banda lagun zituztela.

Hiriko auzo batzuek ere ospatu zuten jai hori. Honako auzo hauetan izan zuten jaien programa.



San Juan bezperaren ospakizuna auzoetan

Aiete	Herrera	Oleta
Amara	Igeldo	Parte Zaharra
Amara Zaharra (2)	Intxaurren	Sagues
Antigua (2)	Martutene	Txomin
Bidebieta	Morlans	



ASTE NAGUSIA

2019an, Donostiako Aste Nagusiak martxoaren 14an ekin zion bideari, Vigon, **Iberian - Festival Awards National Winner** saria jaso baitzuen **Best Festivity** modalitatean. Lehen aldiz eman zen sari hori, musika erakargarri eta komunikazio-iturri izaten duten kultur eta herri ekitaldi jendetsu onenentzat sortua.

Jaien programazioa abuztuaren 10ean hasi zen, larunbatarekin, eta **491** jarduerak osatu zuten, adin eta gustu guztientzakoak; eta abuztuaren 17an amaitu zen, hurrengo larunbatean, Macacoren kontzertu jendetsu batekin, Saguesen.

Kultura, musika, kirol eta jai-giroko jarduerak programatu ziren, kontuan izanik gisa honetako irizpideak: berdintasuna, ingurumenaren eta elikagaien iraunkortasuna, irisgarritasuna, berdinanagako eta desberdinanagako errespetua, euskara komunikazio-hizkuntza gisa sustatzea, elkartasuna, osasuna eta horiek gure erkidegoan sustatzea, eta hiri-espazioen zaintza.

Real Sociadadeko futbol eta belar gaineko hockeyko emakume-taldeetako jokalaririk batzuek kantatu zuten *Artillero*, Eskola-Gurutziaga abesbatzarekin batera, eta halaxe hasi zen jaia. Ekitaldia amaitutakoan, 2019ko Aste Nagusiko ekitaldi arrakastatsuenetako bat hasi zen: **Gazte Nagusi Holi Fest** delakoa, Boulevardean.

Beste urte batez, Antigua, Amara eta Gros auzoetan sekulako harrera egin zieten zenbait jarduerari, eta horregatik ditugu auzook ondo sendotutako jaigunetzat.

Loiolako Erribera lehen aldiz **konpartsak** Amaran egin ohi duen **ibilbidean** sartzeak ere oso harrera ona izan zuen

Orobat, **Irungo erraldoien konpartsa** berrituaren bisita, abuztuaren 15ean, oso arrakastatsua gertatu zen. Irungo *La colla de Falcons de Vilafranca* konpartsa eta Donostiako zortzi erraldoiak hiriko erdialdeko kaleetan barrena ibili ziren goiz eta arratsalde,

eta dantza eta altuerako irudien erakusketa bitxia eskaini zuten, oso ikusgarria.

83.500 lagun izan ziren **Saguesko kontzertuetan**, asteko ekitaldirik deigarriena. Nabarmenezkoa jarduera parte-hartzaile guztiek (gastronomia-lehiaketak, kirola, lantegiak...) parte-hartze handia izaten dutela urtero.

Programazioan irisgarritasuna eta festen gozamina errazteko sartu ziren berrikuntzen artean, bi egun jarri ziren erabateko isiltasunekoak Paseo Berriko Ferietan (hartara, autismo-arazoak zituzten pertsonen jostagarriez gozatu ahal izan zuten), eta, lehen aldiz, musika ez-sexista programatu zen jaigune guztiko feria eta kasetetan.

Emankizun **piromusikal** oso txalotu batek, **RICASA** valentziar pirotekniak eskainitakoak, eman zion amaia, oso modu arranditsuan eman ere, Aste Nagusiaren 2019ko edizioari.

Aste Nagusia
(Abuztuaren 10etik 17ra)

Ikusleen zenbatespena
1.287.275 pertsona

Agertokiak
30

Jarduerak
+ de 490

Aste Nagusiko Sariak

Herri-kirolak

Igeldoko Harria: irabazlea, Jokin Eizmendi

Urrezko Kopa: irabazlea, Iker Vicente

Aste Nagusiko XII. Marmitako Saria

Bikote irabazlea: Alberto Zubelzu, Carlos Arechaga

Bertako produktuak erabiliz egindako Gazteentzako VIII. Lehiaketa Gastronomikoa

Bikote irabazlea: Ane Otaegi, Nerea Rey

Aste Nagusiko II. Lehiaketa, legatza saltsa berdean

Bikote irabazlea: Irene Asensio, Elena Navarro

Aste Nagusiko III. Paella Lehiaketa

Bikote irabazlea: Baudilio Castrillo, Rodrigo Castrillo

Aste Nagusiko III. Lehiaketa, arkume-menestra

Bikote irabazlea: José Manuel Irigoyen, Tomás Nuñez



SU FESTEN NAZIOARTEKO 56. LEHIAKETA JAIALDIA

Zazpi enpresa piroteknikok

(lau espainiar eta hiru atzerritar) hartu zuten parte aste osoa iraun zuen lehiaketan.

Aste Nagusiko Su Artifizialen V. Argazki Lehiaketa

Arantxa Cortajarenaren **Fuegos entrelazados** argazkiak irabazi zuen, lehiaketara aurkeztutako 119 argazkien artean hautatuta. Horixe izango da su-festen nazioarteko lehiaketaren 57. edizioaren kartel iragarleko irudia.

Su Festen Nazioarteko
56. Lehiaketa Jaialdia
(Del 11 al 17 de agosto)

Ikusleen zenbatespena
665.000



Urrezko Maskorra:
Scarsella Fireworks



Zilarrezko Maskorra:
Pirotecnia Vulcano



Brontzezko Maskorra:
Hermanos Caballer Pirotecnicos



Gazteriaren Saria: Hermanos
Caballer Pirotecnicos



Gazteriaren Saria:
Hermanos Caballer Pirotecnicos



Hasiera ikusgarrienari
emandako saria:
Scarsella Fireworks



Parte hartu zuten
pirotekniak

Valecea
(Araba)

Ciels en Fête
(Frantzia)

Scarsella Fireworks
(Italia)

Vulcano
(Madril)

Gironina
(Valentzia)

IP Innovative
(Alemania)

Hermanos Caballer Pirotécnicos S.L.
(Castelló)



Euskal jaiak: dantza sueltoko lehiaketa

EUSKAL JAIK

Abuztuaren 29an hasi ziren, ostegunarekin, **Kontxako Banderetarako** gizonzkoen eta emakumeen sailkapen-estropadekin, eta 8an amaitu ziren, igandean, Trinitate Plazan egindako **herri-sardinada**rekin.

Bi egun horien artean, gure kulturarekin zerikusia zuten 72 jarduerak osatutako programa bat, era guztietako jendearentzat: kirola, gastronomia, folklorea, kultura...

Jaietako hasiera ematen dien **Esku dantza** irailako lehen larunbatean izan ohi da, baina abuztuaren 30era aurreratu eta abuztuaren 31ko ospakizunetan sartu zen, Euskal Jaien programan.

Egun horretako oroitzen-ekitaldietan sekulako jendetza izan zen, bai tropen desfilean eta Parte Zaharreko zenbait puntutan egin ziren eszenaratzeetan, batez ere **Bretxaren hartzea** eta **armada aliatua hirian sartzea** eszenifikatu zirenean, eta bai kandela pizteko jarduera intimoagoan, abuztuaren 31ko gaueko desfilean bertan.

Programaturiko jardueren artean, **Harria maitasun istorioa** ikuskizuna nabarmenduko dugu, harri-jasotzeari buruzko bakarriketa, Iñaki Perurenak idatzi eta interpretatua, Sagardo Eguna eta Donostia Bertsotan bertso-saioa.

Irailaren 7an, larunbatearekin, antzinako marinel-giroa antzeztu zen Donostiako kaian, **Habanerak** izenburuko musika-emankizun batekin, non habanerak izan baitziren protagonista, bai eta ikus-entzuleek oso ezaguna zuten errepertorioa ere. Eguraldiak ez zuen lagundu, eta euriak ikuskizuna bertan behera etetera behartu zuen.



DONOSTIAKO ESTROPADAK

Bi banderak, emakumeena eta gizonezkoena, parte-hartze baldintza berdinetan egin ziren: sailkapenekoa, abuztuaren 29an. Eta lau partaideko bi txanda hurrengo bi igandeetan, irailaren 1ean eta 8an. Ziaboga bakarrera jokatu ziren, emakumeena 1,5 itsas miliako luzerakoa, eta gizonezkoena 3 itsas milakoa.

Banderak ematea *Ciudad de San Sebastián* katamaranetik egin zen, portu barruan.

Laugarren aldiz jarraian, ADEGIK **Premio Adegí Nueva Cultura** saria eman zion gipuzkoar trainerurik onenari, bai emakumeetan eta bai gizonezkoetan.

Antolatzaileek erabaki zuten 2019ko denboraldian AXT eta Euskotren ligetan erabilitako semaforo-sistema epaile-taldearen esku jartzea, hartara zehatzago neurtzeko traineruen denborak eta itsas epaileak bandera jaistearen eta lehorreko kronometroak martxan jartzearen arteko tartea ekiditeko.

Donostiako estropadak (abuztuaren 29an eta irailaren 1 eta 8an)

Ikusleen zenbatespena 35.000 lagun igande bakoitzean 10.000 lagun sailkapen-estropadan

Kontxako XI. Bandera (emakumeentzat)

Traineru parte-hartzaileak: 20

Sailkatuak:
Orio - Babyauto
Gu-Arraun
Hibaika jamones Ancin
Zumaia Salegi Jatetxea
Hondarribia Bertako Igogailuak
San Juan Iberdrola
Club de remo náutico de Riveira

Horiekin batera, Kai Arriba klubaren "Donostiara" trainerua ere aritu zen, Donostiaren ordezkari.

Irabazlea:
Orio - Babyauto

Kontxako Bandera (gizonezkoentzat)

Traineru parte-hartzaileak: 23

Clasificadas:
Ondarroa-Cikautxo
Orio-Babyauto
Santurtzi-Iberdrola
GO fit Hondarribia
Kaiku Ugaren
Bermeo-Urdaibai-Echebaster-
Avia-Campos-Enagas
Zierbena bahias de Bizkaia

Horiekin batera, Kai Arriba klubaren "Donostiara" trainerua ere aritu zen, Donostiaren ordezkari.

Irabazlea:
GO fit Hondarribia



Donostiako estropadak: Orio - Babyauto talde irabazlea



Talo postua Santo Tomaseko ferian

SANTO TOMAS FERIA

Abenduaren 21ean, larunbata, ohiko **Santo Tomas Feria** egin zen, eta hiria azoka handi bat bihurtu zen egun horretan, txistorra protagonista zelarik. Postuetan, fruta eta barazkiak, gaztak, hestekiak, kontserbak, eztia, eskulanak... Guztira, **195 postu**, jaiaren eremu guztian banatuta. **Txistorra-, ezti-, barazki- eta fruta-, eta**

txorimalo-lehiaketak, eta gainera **Baserritar Jantzien III. Lehiaketa:** horiek osatu zuten era guztietako jendearentzat egindako programa, non ez baitzen falta izan herri-kirola, abere-erakusketak, haurrentzako lantegiak eta erromeria bat Boulevardean, jai-egunari buru emateko.

Ezin ahaztu azokako protagonista nagusia: Ximona urdemea, zeina, bere 350 kiloak aldean, festaren erdian egon baitzen Konstituzio Plazan egun osoan.

Beste urte batez, ikusgai jarri zen emakumeen kirola, **I. Pala Txapelketa**, **IV. Esku-pilota Txapelketa** eta aizkolariaren **Urrezko IV. Kopa** jokatu baitziren. Denak, emakumeen artean.

Hamar auzok hartu zuten parte azokan, zenbait jarduera antolatuz: Amara Berri, Amara Zaharra, Antigua, Gros, Ibaeta, Ipar Intxaurren, Hego Intxaurren, Loiola eta Morlans.

Eguerdian sortu zen galerna ustekabeak distira kendu zion festari arratsaldean, eta badiatik sartutako haizeak kasetak hondatu zituen, zenbaitek postuak bildu eta alde egin behar izan zuten arratsalde-hasieran. Hala eta guztiz ere, feriak aurrera jarraitu zuen, eta jarduera guztiak egin ziren.

Aurreko edizioan ezarritako neurria, hots, txistorra saltzeko postuetan alkoholik saltzea debekatzearena (DBH edota Batxillergoko ikasketak egiten diren ikastetxeei esleitutakoetan) normaltasun osoz onartu zuen ferian izandako jendeak.

Ikusleen zenbatespena
80.000
pertsona

Urdemea
"Ximona"



Jatorria: **Leitza**
Pisua: **350 kg.**

195
postu





Olentzero desfilea

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Olentzero eta Mari Domingi menditik jaitsi ziren abenduaren 24an, Udaletxera hurbildu ziren eta gutunak entregatu ahal izan zizkieten neska-mutiko guztiak agurtzeko.

Harrera Udaletxeko Udalbatza Aretoan egin zen, 16:00 eta 18:00 artean, eta lehen

aldiz, zeinu-interprete bat izan zen bertan.

Bien bitartean, **Eskola** eta **Gero Axular** dantza-taldeek zenbait jarduera egin zituzten Udaletxe aurreko terrazan (baserritar jantziaren zapia behar bezala ipintzeko lantegia, marrazki-lantegia, ogi eta gaileren lantegia, dantza tradizionalak...)

2019an, ez ziren bakarrik etorri, baizik eta *mendiko eta*

basoetako izakiek lagundu zieten desfilean, zeina 18:30etan hasi baitzen: Basandere, Basajaun, herensugea, jentilak, iratxoak, ñañoak... Basomutilek eta baserritarrek ere hartu zuten parte.

Lehen aldiz, desfilean **ez zen izan animaliarik**.

Olentzero
(abenduak 24)





DONOSTIAKO AUZOETAKO JAIK

Festak unitateak kudeatzen ditu jaiak egiteko behar diren baimen eta udal zerbitzuak; gainera, azpiegitura eskueran jartzen eta muntaketak koordinatzen ditu, batzorde antolatzaileei eginkizunak errazteko asmoz. Bada, halaber, subentzioen atal berezi bat ekitaldi hauetarako, 133.725,19 €-koa.

Jaien izena	Egunak
ANTIGUAKO JAIK	URTARRILAREN 11N / 27AN
IBAETAKO JAIK	OTSAILAK 16, 22, 23, 24 / MARTXOAK 1
TXANPONTXO JAIK - BIDEBIETA	MAIATZA, 9-13
MORLANSEKO JAIK	MAIATZA, 17-19
LARRATXOKO JAIK	EKAINA, 6-10
AMARA BERRIKO FESTAK	EKAINA, 14-16 23
ANTIGUAKO SAN JUAN JAIK	EKAINA, 13-23
OLETAKO SAN JUAN JAIK	EKAINA, 20-25
HERRERAKO JAIK	EKAINA, 14-23
SAN JUAN JAIK - INTXAURRONDO	EKAINA, 20, 23
INTXAUR JAIK - INTXAURRONDO	EKAINA, 29,30
ALTZAKO SAN MARTZIAL JAIK	EKAINA, 22-24 / 28-30 / UZTAILA 1-2
IGELDOKO SAN PEDRO JAIK	EKAINA, 23, 28, 29, 30 UZTAILA, 1, 2
KARMENGO JAIK - KAIA	UZTAILA, 11-16
AÑORGAKO FESTAK	UZTAILA, 6-16
AMARA BERRIKO KARMENGO JAIK	UZTAILA, 12-14
GROSEKO ZIPOTZ JAIK	UZTAILA, 18-21
ZUBIETAKO JAIK	UZTAILA, 24-31
AMARAKO JAIK	UZTAILA,
LOIOLAKO SAN IGNAZIO JAIK	UZTAILA, 30, 31 / ABUZTUA, 1, 2
AÑORGA TXIKIKO JAIK	IRAILA, 6, 7



FIESTAS DE TXOMIN -ENEA	IRAILA, 6-8
INTXAURRONGO ZAHARREKO JAIK	IRAILA, 5-8
PORRONTXO JAIK - EGIA	IRAILA, 7-15
FIESTAS DE JOLASTOKIETA	IRAILA, 11-15
FIESTAS DE RIBERAS DE LOIOLA	IRAILA, 13-15
AIETEKO JAIK	IRAILA, 6-8 / 12-16, 21
MARTUTENENKO JAIK	URRIA, 11-13
AMARA BERRIKO JAI HERRIKOIAK	URRIA, 10-13

BESTE JARDUERA BATZUK

Festak unitatetik, **behar ziren baimen eta zerbitzuak** kudeatu ziren hainbat kolektibo eta elkartek proposatutako jarduerak kalean egin ahal izateko, eta hartarako behar ziren azpiegiturak eskueran jarri eta muntaketak koordinatu ziren.

Etxe erregionalen jaiak: 7

Beste lankidetzak batzuk: 49

Ospatu ziren jarduerak batzuk:

- Minbiziaren kontrako lasterketa
- Casal de Catalunya - calçoten denboraldia
- Liburu zahar eta berrien azokak
- Donosti CUP
- Gipuzkoako marinel zaharrei omenaldia
- Txakoli eguna
- Zipristin - Tamayo Pintura Lehiaketa
- Europa Saria

- XXII Rally histórico Vasco-Navarro
- Sagardo Apurua
- Arte Topaketak
- Ulm-eko (Alemania) bandaren kontzertua, Pamlonesen bandaren 100 100 urteak ospatzeko egindako jaialdian

SENIDETZEAK

Marugame:

Urteroko garaikur-trukea egin zen eskolarteko futbol-txapelketetarako. Marugame hiriko Industria eta Kultura zuzendariak urrian Olaraingo Adiskidetasunaren Lorategira egindako bisita koordinatu zen.

ESKERRAK BABESLEEI

Beste urte batez, eskerrak eman nahi dizkiegu honako marka hauei, berak gabe zenbait jarduerak egin ezinik geratuko baikin:

Amstel, Coca Cola, Euskaltel, El Diario Vasco, Kutxabank, AFADE, FCC, Eroski, Supermercados BM, Insalus, Nestle, EKP, Frigo, Super Amara, ADEGUI.



EL DIARIO VASCO





5 **4. Heineken Jazzaldia** orain artekoen osatuenetariko bat izan zelako sentipenez itxi genuen, oso kalitate artistiko handikoa izan zelako, komunikabideek ia aho batez aitortu zuten, eta jendeak kartsu erantzun zuelako; baina hori ohikoa da, egia esan.

Arteari dagokionez, 54, Heineken Jazzaldia neurritz gainera izan zen. Kontzertu guztiek ikus-entzuleen abegi ona jaso zuten, bai eta kritikarena ere, oro har. Ez da erraza hau edo bestea nabarmentzea, baina, podioa jarriko bagenu, bertan egon zitezkeen **Maria Schneider, Atomic** eta **John Zorn**, bere *Bagatelles Marathonekin*.

Trinitate Plazan kontzertu gogoangarriak izan ziren: Maria Schneider harrigarria da konpositore, moldatzaile eta zuzendari gisa. Bere obraren ñabardura guztiak interpretatzeko eta indarra exekutatzeko gai den orkestra bat behar du. Orkestra sendoa eta sotila aldi berean. Ensemble Denada da orkestra hori, sekulako instrumentista norvegiarrek osatua.

54. Heineken Jazzaldiko podio irudimenezko horretan leudeke saxofoiaren bi beterano ospetsu ere, **Houston Person** eta **Charles McPherson**. Zenbat sumatuko dugun horiek ordezkatzan duten belaunaldiaren falta, egongo ez direnean. Baladak jotzeko duten era paregabea da. Jakituria eta dotorezia darie musikari horiei, eta ikus-entzulea berehala ohartzen da horretaz.

Diana Krall eta **Silvia Pérez Cruz**, **Toquinho** eta **Javier Colina**arekin

batera, apustu zurrak ziren, eta ez zuten inola ere huts egin.

Kursaaleko Auditorioak **John Zorn**en kontzertu bikoitza hartu zuen beste behin ere. Haren *Bagatelles Marathon* denbora askoan izango dugu gogoan. Zornen musika-unibertso zabal eta konplexua ia hiru orduko bi kontzertutan jasorik, hemeretzi musikaririk parte hartzen zutelarik, hamalau

Silvia Pérez Cruz-Toquinho-Javier Colina,
Trinitate Plaza



© Lolo Vasco



HJren 54. edizioko kartela.



taldetan banatuta. Gainera, jazza garatzeko eta transmititzeko egin duen lanaren aitortza gisa, musikariak 2019ko *Donostiako Jazzaldia* saria jaso zuen.

Atomic, berez, talde berritzailea, ernea eta musika-ideiaz betea da. Horrelako boskote bat **Trondheim Jazz Orkestrarekin** elkartuz gero, zeina lehen mailako zazpi musikari norvegiarrek osatzen baitute, erraz ulertzen da Kurasaaleko Auditorioko kontzertua antologikoa izan zela.

54. Heineken Jazzaldiaren alineazio ideala kartelburu handiek osatzen dute, jendetza handiak erakarri baitzituzten beren izenari eta karrari esker. Inork ez zuen huts egin, eta denek jarraitzen dute gorantz beren ibilbidean: **Jamie Cullum**, **Joe Jackson** eta **Joan Baezen** emanaldi hunkigarri bat, mukuru beteriko Zurriolako hondartzan, azkenaurreko kontzertua baitzen *Fare Thee Well* agurreko biran, mitoa txalotzeko azken aukeretako bat.

Oso interesgarria, halaber, japoniar zikloa. Sekulako ustekabea izan zen ikus-entzuleentzat, gehienek ez baitzuten ezagutzen Japonian egiten den jazzaren kalitate handia eta musikarien bikaintasuna. **Chihiro Yamanaka** eta **Ai Kuwabara** piano-jotzaileen emanaldiak egundokoak izan ziren, eta **Rei** gitarra-jotzaile gazteak ikus-entzuleak bereganatu zituen bere lotsagabekeria eta indar eszenikoa zirela medio.

Victoria Eugenia Antzokiak era askotako kontzertuak hartu zituen, eguerdian eta arratsaldean. Japoniar musika, **Mopparen** eta **Unspeakable Garbage** haren talde berriaren rockarekin

batera, edo **Martiriok** eta **Chano Dominguezek** Ignacio Villari (*Bola de Nieve*) egin zioten omenaldia.

Euskal taldeei dagokienez, nabarmentzeko alderdi bat da gero eta protagonismo handiagoa dutela emakumezko artistek, hala kantitatez nola kalitatez. Bai jazzeko taldeetan (Reunion Big Band, Lurpekariak, Juan José Cabillas with Strings, The Fuck & Risketeers...) eta bai rockaren bidetikoetan (Belako, Nøen) zein bakarkako proiektuetan (Ainhoa Larrañaga, Sara Zozaya). Edizio honetan parte hartu duten hogeita hamarretik gora euskal bakarlari eta taldeak oso maila altuan aritu dira.

Beste agertokietan ere ez zen izan atsedunik. Jazza nonahi eta noiznahi. Tabakalerako Kutxa Kultur Klubean, Klubean, Nautocool-en, Xarma jatetxean, El Perdón-en, FNAC gunean... hura zen gelditu ezina.



Joan Baez: Fare Thee Well... Tour 2019



Jamie Cullum, Heineken Agertoki Berdea



Txikijazza, familientzako jaialdia, behin betiko sendotu ez ezik, fenomeno bihurtu zen bosgarren edizioan. Jarduera gehiago, kontzertu gehiago, jende gehiago. Haurrak gozatzen, gurasoak pozik. Jazzaren zaleen harrobia. Berrogeita hamarren bat neskato eta mutiko, beren musika-bokazioa sendotzen jazzeko piezak joz Txikijazz Big Band-ean. Ikus-entzule haurrek Broken Brothers Band eta Dan Barrett-i entzun zieten. Instrumentuen lantegiak egin zituzten gai birziklagarriak erabiliz, eta klakearen hasimasiak ezagutu zituzten. Hortik, zerbait geratuko zaie, ziur.

Aipamen berezia merezi izan zuten edizio honetan ikus-entzuleak. Saria ere sortu behar litzateke haien leialtasunaren eta egoten jakitearen ordainetan. Eguraldi ezin hobea zegoela, lehen egunean bezala? Bada, han bildu zen jendetza, jokabide ezin egokiagoz denak ere. Eguraldi txarra zegoela? Bada, han iraun zuten egonarriz, antolatzaileek banatutako pontxo iragazgaitzetan, musikariak beren onena ematera bultzatzen. Egia da 2019an euria eta haizea gogotik izan zirela, eragozpen asko sortuz eta ikus-entzuleen kopuruan markak haustea galaraziz, hasierako ekitaldiko **Jazz Band Ball**-ak horixe pentsarazi baitzigun. Gauzak hala, azkenean zenbaturiko **168.000 ikus-entzuleak** adierazle ezin hobea dira Heineken Jazzaldiak gertaera ezaguna eta parte-hartzailea izaten jarraitzen duela ikusteko.

Aipamen berezia merezi du Jazzaldiko taldeak ere. Eszenaburu gazte eta eskarmentu handikoen talde bat (emakumeak gehienak), langile suharrak ondoan zituztela, eguraldi txarrak eragindako eragozpenei aurre egiteko gaitasuna frogatu zutenak.

IKUS-ENTZULEAK GUZTIRA	168.000
ORDAINDUTAKO KONTZERTUETAKO IKUS-ENTZULEAK	14.220
DOAKO KONTZERTUETAKO IKUS-ENTZULEAK	153.780

Agertokiak	Ikus-entzuleak
Trinitate Plaza	6.855
Kursaaleko Auditorioa	4.115
Victoria Eugenia Antzokia	3.250
San Telmo Museoa	880
Doako kontzertuak (Frigo agertokia, Agertoki Berdea, Heineken Terraza, Coca Cola, Konstituzio Plaza eta Nauticool)	152.900

Heineken Jazzaldiak arrakasta handia izan zuen ikus-entzuleen aldetik 54. edizioan. Txikijazzak, berriz, osasun ona erakutsi du zazpi edizioetan, eta gero eta haur gehiago ari da biltzen.


GIZARTE OIHARTZUNA

Heineken Jazzaldiak plataforma egokia izaten jarraitzen du Euskal Herriko artista gazteen parte-hartzea sustatzeko, hartara hemengo jazz generoaren jarraipena bermatuz eta gure musikari amateurren profesionalizazioaren alde

apustu eginez. Bertako taldeen hautapen-prozesuaren ondoren, hamar taldek hartu zuten parte Jazzaldian. Euskadin bizi diren gazteak dira, baina zortzi autonomia erkidegotatik etorriak. Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian ari dira prestatzen, eta alde horretatik, Heineken Jazzaldiak eskaintzen dien proposamena oso garrantzitsua da haien ibilbide profesionalerako. Ondorengo eranskinean adierazten da, baina esan beharra dago gure kasuan egoitzak, taldeen naziotasuna identifikatzeko irizpide gisa, ez duela egoki islatzen musikarien jatorrien askotarikoa. Kasurik gehienetan Donostia Kulturako langile gisa kontratatzen dira;



NØGEN, Heineken Agertoki Berdea



© Lolo Vasco



© Lolo Vasco

Belako

Heineken Agertoki Berdeko publikoa

izan ere, ikasleak izaki, ez dago beste modurik agertokiko segurtasuna bermatzeko, bide horretatik ez bada. Beraz, kontratu guztietan, ageri den egoitza eta helbidea Donostiakoa da. Horregatik, irizpide horren berri behar bezala emateko, kontratuak egiterakoan, esaten zaie jaioterria adieraz dezatela.

Ikus-entzuleei dagokienez: Programa askotarikoa eta anitza eskaintzeak, Jazzetik harago eta musika-estilo asko hartuz, era askotako ikus-entzuleengana iristeko bidea ematen du. Jakina, Donostiako zenbait lekutan programatzen diren doako kontzertuen ugaria erabakigarria

gertatzen da ikus-entzule berriak erakartzeko orduan. Bestalde, jazz-adituek aukera dute bestela ezin entzungo lituzketen artista asko zuzenean entzuteko, ordaindutako kontzertuen bidez.

Txikijazzari esker, ahal diren ikus-entzule mota guztietara iristen gara, eta hartara Jaialdiaren jarraipena bermatzen dugu zaleen belaualdi berriak erakarrita. Antolatzen diren jarduera guztien artean, Txikijazz Big Band-a nabarmentzen da. 15 urtetik beherako hurrek osatzen dute, denak ere musika-ikasleak, eta abagune horretan Jazz munduko lanik ezagunenaren sorta hautatu bat jotzen dutenak.

Etxera begira jarrita, hiriko gunee asko erabili ahal daitezke Jaialdiari esker, hala nola Zurriolako hondartza edo Nautikoko pasabidea, eta hori dela-eta bide berriak ireki dira beste erabilera batzuetarako. Orobat, era askotako erakundeen arteko sinergiak sendotzeko bidea ematen du: hotelak, azokak, Hipodromoa, kafetegi eta tabernen sarea, hiriko saltokiak...

Jaialdiak, bestalde, **inpaktu ekonomikoa** izaten du beti hirian, ez bakarrik dagozkion esparruetan (argi-soinuen teknikariak, eszenaburuak, muntatzaileak...), baita beste sail batzuetan ere: ostatuak, jatetxeak, garraioak...



Gainera, Heineken Jazzaldiak **Erronka Garbia** agiria jaso zuen 2019an, Jaialdiari ekitaldi iraunkorraren izaera aitortzen diona, eta IHOBEk (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Ingurugiroaren Kudeaketarako Elkarre Publikoak) emana.

Heineken Jazzaldiak antolatutako jarduera guztiek betetzen dute indarrean dagoen **araudia Gizon eta Emakumeen berdintasunari dagokionez** (4/2005 legea; 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Gizon eta Emakumeen Berdintasun Eragingarrirako; eta Donostiako Udalaren III. Berdintasun Plana 2014-2018). Praktikan, horrek esan nahi du langileen % 50 baino gehiago emakumeak direla. **Atal giltzarriak, hala nola agertokien errejidoretza eta kontzertuen produkzioa, besteak beste, emakumeen esanetara daude.** Edizio honetan, gainera, hamabost talde izan dira emakumeen lidertzapean.

Orobat, jarduera guztiak egiten dira **Euskararen Normalizatorako 10/82 Oinarrizko Legearen baitan**, bai eta Donostiako Udalak indarrean duen Euskara Erabiltzeko Normalizazio Planarenean ere, eta Donostia Kulturak indarrean duen Euskararen Erabileraren Normalizazio Planarenean.

ENKARGUAK / ESTREINALDIAK

Sendotu egin dira beste erregio eta herrialdeekiko lankidetzak.

Oraingo honetan, **Fundación Japón**ekiko **akordioari** esker, Rei, Chihiro Yamanaka Ai Akiwara, Eri Yamamoto musikari maila handikoak ezagutu ahal izan ditugu. Azken aipatuaren kasuan, gainera, gure hirian egingo duen egonaldia baliatuko du European lehen aldiz aurkezteko *Goshu Ondo* pieza, Easo Abesbatzarekin batera. Jazzeko hirukotearentzako eta abesbatzarentzako konposizioa da, japoniar harmonietan oinarritua eta jazzarekin bat egina. Piano-jotzaile japoniar honek hamar urtetik gora egin du bizitzen Estatu Batuetan, baina beti jakin du eusten jatorriaren funtsari bere musikan.

GENERO TRADIZIONALAK BERRESKURATZEA

2019an, gainera, emanaldi batek agerian utzi du gure **musika- eta folklore-tradizioko generoak berreskuratzeko** saioa. **Lurpekariak** taldea 2015ean sortu zen zenbait urtetan ikasten eta esperimendatzen jardun ondoren, eta historiaren ikuspegi lineala irauli eta kantu tradizionalen inprobisazio librea eskaintzen digu. Taldearen emanaldiak agerian jarri ditu sekretu berriak Euskal Herriko, Afrikako eta New Orleanseko arbasoen arteko solasean, eta oraingoan inprobisazio-osagarria gehitu dio horri: Sustrai Colinaren bertsoak.



© Lolo Vasco

Neneh Cherry



2019ko kartela - Fantasiarazko eta Beldurrezko Zinemaren astea

2019an, Asteak urteurren biribila ospatu zuen. **Hogeita hamar edizio egin ditu zinemaldi honek**, bada zerbaite, eta dagoeneko ondo errotuta dago Espainian eta nazioartean, paregabeko nortasuna du, josteta eta errigorea konbinatzen baititu film eta jardueren programazioan.

Urteurrena ospatzeko, herritarrei oro har zuzenduriko jarduera gehiago izan ziren, hala nola kale-ikuskizuna, eta erakusketa gehiago, batzuk Donostia Kulturak produzituak, hala nola **30argazki30** eta **Paul Naschy**ri eskainitakoa, oihartzun handia izan zuena.

Sail ofizialean, gertaera historikoa jazo zen, euskal produkzioiek ireki

eta itxi baitzuten, **El hoyok** eta **Ventajas de viajar en trenek**, hurrenez hurren, urteak fantasiaren arloan emandako ale interesgarrienetako bi. Sortzaile eta zinegileen mugarri bat, zeinak hein batean hau bezalako zinemaldi bati esker hezi baitziren.

Folklore beldurgarria izan zen edizio honetako atzera begirako historikoaren *leitmotiva*, eta *Hermeneute* argitaletxearekin batera kaleratutako liburu folk-horroreari buruzko batek osatu zuen, zeina erreferentzia bilakatuko baita ezberrik gabe.

Beñat Oleak, Roland Topor-ek eta Giger-en omenezko erakusketa kolektibo batek osatu zuten erakusketa artistikoen sorta Donostiako zenbait lekutan.

Errealitate birtualaren saila izan zen berriz ere adin guztietako jendearentzako erakarpen-gunea.

Astearen aurreko hilabeteetan, proiektio bereziak eman ziren: **Napardeath** euskal filmaren estreinaldia eta Zine Akademiarekiko lankidetzaren **Superlópez** filmean.

Ibiltarien sailean, Beñat Olearen erakusketa Irungo CBA-n ikusi ahal izan zen, eta Oihartzunen eta Hondarribian 2019ko film labur onenen proiektio bana egin ziren.

Gainera, **Fant Bilbao** zinemaldiak, 25. urteurrenean, Astearen laguntza izan zuen **Mil gritos en la noche**ko argazkiak eta **Mary Shelley: la muerte del monstruo** komikiaren originalak erakusteko.

Azkenik, aipatzekoa da beste erakunde batzuekin batera (Larrotxene, Film Comission Gipuzkoa eta Gaztea) **sorkuntzari laguntzeko** egindako ekinbidea, **Oihua!** izeneko, euskarazko beldurrezko film labur baten errodajea bultzatzeko.





Udaleko Giza Eskubideen Sailarekin batera antolatutako zinemaldi honen **17. edizio**ak eztabaida, pentsamendua eta konpromisoa sortu zituen berriz ere, zinegileen proposamenak, haien historiak, Zinemaldira gonbidatutako pertsona adituak eta ikus-entzuleak berak zirela medio.

Emakumeen ahalduntzea, feminismoa eta politika, sexu-autodeterminaziorako eskubidea edo indarkeria sexista izan ziren ikuspuntu batzuk emakumeen oraingo eta etorkizuneko borrokek markaturiko agenda globalean. 2019an, gainera, ohorezko saria **Annemarie Jacir** zine-zuzendari palestinarrek jaso zuen.


Hiru euskal produkzio estreinatu izanak -**Hilos de sororidad**, **Paseko txoriak** eta **Soinujolearen semea**- agerian jartzen du nola zinemaldia gure zinearen leiho gero eta irekiagoa den, eta nola gure zinea aberastuz doan gizarte-gaien bidean.

Zinemaldiak pedagogia-lana eginez jarraitu zuen 2019an ere, gida didaktikoak eskaini baitziren ikasleentzat programaturiko film guztiak ikasgeletan lantzeko. Eta ez dira ahaztu behar zenbait kolektibok zinerako irispidea izan dezaten egindako aurrerabideak ere (audio-deskribapena, azpidatzi egokituak, emanaldia Martutenen...).

Orobat, bigarren aldiz segidan, ikus-entzunezkoen sail ireki bat izan zen **errealitate birtualaren formatukoa**, eta lan haietako

askok zenbait erakunderen lankidetzaz zuzena izan zuten. Hiriko auzoetako kultur etxeetan egin ziren proiektioek ere izan zuten kolektiboen inplikazioa. Bide horretan, **Calcuta ondoanek Marmara** lantegia sustatu zuen, eta **SOS Arrazakeriak**, berriz, **React** gazte-ekinbidea.

Amaitzeko, 2019an, beste jarduera paralelo batzuen artean, erakusketa hauek izan ziren: Isabel Muñoz argazkilararen **Mujeres del Congo ; El éxodo Rohingya; UN: People on the Move;** eta **Arte eta Giza Eskubideen Haur eta Gazteen XV. Edizioa.**



Zinemaldiaren 17. edizioko kartela



Annemarie Jacir



2019a garrantzitsua izan zen dFERIArentzat: **25. urteurrena bete zuen**, eta **edizioak programa berezia izan zuen**, ondorio bereziki ona izan zuena jaialdiaren azken datuei dagokienez.

Izan ere, dFERIAren edizio hau arrakasta handiz itxi zen, arte-maila handiari esker, arte eszenikoen sektorearen ezinbesteko inplikazioari esker, eta ikus-entzuleen erantzun onari esker.

Programa **38 ikuskizunen 48 funtziok** osatu zuten, zazpi agertokitan: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Kluba, Antzoki Zaharra-Fundación SGAE Gunea, Gazteszena (Egia K.E.), Intxaurren K.E., Kutxa Kultur

Kluba, Convent Gardeneko kriptak, eta gainera **kale-antzerkia**.

Aurkeztutako ikuskizunen kalitatea nabarmena izan zen ezbairik gabe, eta gainera **Euskal Herriko antzerkiaren eta dantza**ren oso irudi ona eman zen ikus-entzule, kazetari eta profesionalen aurrean. Aipatzekoa, halaber, dFERIA izan zirela nazioartean izena lortu duten zenbait ikuskizun eta artista, eta hartara duela urte batzuk planteaturiko xedeak bete direla, hots, programazio berria, kalitatezkoa, autoreena eta arte-arloei dagokienez orekatua lortzea.

Eta programa horri esker, aurrez aurreratu denez, dFERIA hurbildu ziren ikus-entzuleen eta profesionalen kopuruak gora egin zuen berriz ere.

Ikus-entzuleak 13.189 izan ziren (aurreko urtean baino %57 gehiago, orduan 8.399 izan baitziren). Kopuru horretan, esan bezala, aldeko eragina izan zuen 25. urteurrena izateak eta programa zabalagoa eta agertoki gehiago izateak.

Bestalde, **akreditatuen** kopuruak %4 egin zuen gora 2018koarekin alderatuta. Guztira, 2019an 540 profesional akreditatu ziren. Horietatik, 184 programatzaileak ziren, 73 banatzaileak, 145 ekoiztetxe eta konpainien ordezkariak, 24 kazetari eta kritikariak, eta beste 114 bestelako akreditatuak. Parte-hartzea handia izan zuten Jaialdian. Jaialdia erreferentziagune izan zen egun horietan industriarentzat.

Denen artean -ikus-entzuleak, administrazioak, prentsa-eszenaratu egin zen dFERIAren garrantzia, sorkuntzaren eta dantza eta antzerkia ikusgai jartzearen aldeko lanean.

PROGRAMAZIOA

Programaturiko 48 funtzioetatik, **estreinaldiak** (lanen %63) **orokorrak** izan ziren batzuk: *Roman y Julieta* (Borobil), *Out of the blue II* (LaRutan) eta *Sharing Home* (Denis Santacana). Eta **Euskal Herrian**, berriz, *Shojo* (Mey Ling Bisogno), *The Place* (Alesio Natale), *El Otro* (Clemence Juglet), *Una investigación pornográfica* (Líate), *Los años rápidos* (Chariny producciones), *Espejismo* (El espejo negro), *Bending the walls*, *Beyond* (Lava),



dFeria kartela



Retrópica (Mari Paula)



Madame señorita: Question (Paula Valluerca)

La leyenda del Devengari (Metidos en obras), *Retrópica* (Mari Paula), *Vientos que nos barrerán* (Spectare), *Madame Señorita Question* (Paula Valluerca), *Un Poyo Rojo* (Un poyo rojo) *Cambiando el paso* (Cía. Cristina Gómez), *Rey Lear* (Atalaya).

Estatuan, berriz, hauek izan ziren estreinaldiak: *The more you dance the more you get* (Evie Demetriou) eta *An encounter* (Jordi L.Vidal).

Europen: *Yo no estoy loca* (Teatro Petra) eta *Promesa de fin de año* (La maldita vanidad).

dFERIAren edizio honetan, bi ikuskizun euskaraz izan ziren:

Roman eta Julieta, Borobilena, eta *Madame Señorita: Question*, Paula Valluerca (ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz).

Diziplinaka, %37 antzerki-funtzioak izan ziren, %45 dantzakoak, eta %18 multidisziplinarioak. Jatorriaren aldetik, funtzioen %41 Euskal Herriko produkzioak ziren, %31 Estatuko beste alde batzuetakoak, eta %28 atzerritarak.

EDIZIO HONETAKO BERRITASUNAK

Urteurrena zela-eta, zenbait berritasun izan ziren:

- **KALE ARTEan, kale-antzerkiko jaialdi berri** bat, **6.500 ikus-entzule** baino gehiago izan zituena, antolatzaileen kalkuluak nabarmen gaindituz.
- **3 ikuskizun**, aurreko asteburuan programatuak, dastatzen hasteko: *Los Cuernos de don Friolera*, *Sharing Home* eta *Macbeth*.

• Akreditazio, gonbit eta *ticketing* sistema berriak, ikus-entzuleak %25 emendatzea ekarri zutenak.

• **Topaketak nahieran:** zerbitzu berri bat, zeinaren bidez bideratzaile profesional batzuek eskatzen zitzaizkien bilerak, negozio-aurkezpenak eta beste dinamika batzuk antolatu baitzituzten, ferian akreditaturiko profesionalak elkarrekin harremanetan jartzeko.

INDUSTRIA

Zenbait profesional, atzerritik etorriak, interesaturik agertu ziren euskal produkzioak programatzeko, eta beren herrialdeetako etorkizuneko planak azaldu zituzten.

Negozio-gurpilek profesionalen arteko harremanak sustatzen eta elkar ezagutzen laguntzen dute, eta ikuskizunen edo proiektu berrien sustapenean laguntzen. Hori dela-eta, lan garrantzitsuztat daukate lankidetzarako eta merkataritzarako aukera gehiago eskaintzea.



Espejismo (El Espejo Negro)



Alde horretatik, akreditaturiko pertsonen zerbitzura jarritako bi bideratzaileen lana oso garrantzitsua izan zen parteen arteko bitartekari gisa eta eragileen arteko topaketak eta bilerak bideratzeko. Izan ere, dFERIA haziz doa pixkanaka; gero eta profesional berri gehiago agertzen dira, eta beharrezkoak dira haien arteko bitartekaritza-lana eta laguntza.

Batetik, dFERIAN akreditaturiko programatzaileak zenbait herrialdeetatik zetozen: Espainia, Argentina, Belgika, Brasil, Txina, Kroazia, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Ekuador, Frantzia, Alemania, Britainia Handia, Mexiko, Polonia, Nikaragua, Portugal, Eslovenia, Errusia, Uruguai eta Dominikar Errepublika.

Jarduera profesionaletan,

parte hartze handia izan zen; 5.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte.

- **Euskadiko Antzoki Sarea**
50 lagun
- **Onda Ceroren zuzeneko emanaldia**
20 lagun
- **Ongi etorri ofiziala**
250 lagun
- **948 Merkatuaren aurkezpena**
250 lagun
- **Larutan-en estreinaldia**
250 lagun

- **Euskadiko Antzoki Sarearen Topaketa**
55 lagun
- **Radio Euskadiren zuzeneko emanaldia**
20 lagun
- **Eusko Jaurlaritzarekiko bilera**
25 lagun
- **Redelae-ren bilera**
15 lagun
- **Patxo Telleria (Tartean Teatro)**
10 lagun
- **Red Española-ren bilera (Antzerkia)**
6 lagun
- **COFAEren bilera (etorkizunari buruzko eztabaida)**
5 lagun
- **Encompañías-en bilera**
10 lagun
- **Redelae-ren aurkezpena**
70 lagun
- **Arteen Akademiaren bilera**
30 lagun
- **“Proyecto Magallanes”-en aurkezpena**
10 lagun
- **Red Espaloñaren bilera (inklusioa)**
5 lagun
- **“Proyecto Pyrenart”-en aurkezpena**
10 lagun
- **Eskenaren autobusa**
450 lagun
- **Topaketak nahieran**
500 lagun
- **Eguneko topagunea**
1.500 lagun
- **Gaueko topagunea**
900 lagun
- **Pro bideratzaileak (Pepa eta Iva)**
500 lagun
- **dFERIAko prentsaurrekoetan izandakoak**
400 lagun

dFERIA ABROAD

dFERIA Abroad Etxepare Institutuarekin

elkarlanean egindako proiektu bat da, zeinari esker aukera baitugu dFERIAren sustatze-lana erregularizatzeko eta Donostiatik urrun dauden beste leku batzuetara luzatzeko eta hedarazteko, eta urteko beste hilabete batzuetara. Hartara, beste neurri bat ematen zaio feriari, munduko beste ekitaldi eta jaialdiekiko lankidetzak dela bide, laguntza emanaz konpainiei beren ikuskizunak aurkez ditzaten, ezagutuak izan daitezten eta ikus-entzule berriak eta muga berriak irits ditzaten.

2019an, proiektu honen bigarren edizioa egin zen, eta honako lankidetzak hauek izan genituen:

a) **MAPAS**, Hego Atlantikoko Arte Performatiboen Merkatua, Tenerifen, Kanariar Uharteetan. Uztailean izan zen, eta gure parte-hartzailea: **Amour**, Marie de Jongh Taldea (teatro).

b) **MID**, Brasiliako (Brasil) Nazioarteko Dantza Mugimendua. Apirilean parte hartu zuen: **Jardín de invierno**, Cielo Raso Dantza.

c) **DOM KULTURY 13 MUZ**, Kontrapunkt Festival, Szczecin-en (Polonia). Maiatzean parte hartu zuen: **Oskara**, Kukai Dantza.

2020rako, dFERIA ABROADen hirugarren edizioan, MAPASera iristea espero da, Hego Atlantikoko Arte Performatiboen Merkatua, Tenerifen, Kanariar Uharteetan.



Out of the blue II (La Rutan)



LANKIDETZAK

Azkenik, eskertzekoa da azken urteotan dFERIA babesten duten eta babestu duten erakundeen lankidetzak. Haien laguntzarik gabe, dFERIA ez litzateke gaur egun dena.

Honako hauek dira: **INAEM, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia**; eta beste honako hauen lankidetzak berezia ere bai: **KUTXA, Fundación SGAE, Etxepare Institutua, Nafarroako Gobernua, OARA** (Office Artistique de la Région Aquitaine), **COFAE** (Estatuko Arte Eszenikoen Ferien Koordinatzailea) **IBERESCENA** (Arte Eszeniko iberoamerikarrentzako laguntzen funtsa), eta **AC/E** (Acción Cultural Española, espainiar kultura nazioartekotzeko programaren bitartez, bisitarien modalitatean, zeinari esker hamasei profesional atzerritar etorri izan baitira edizio honetara).

Baina, batez ere, nabarmentzekoa da euskal antzerki eta dantza konpainien inplikazioa, oro har, eta **Eskenarena** (Euskal Anzerki eta Dantza Enpresen Elkarte) eta **EABena** (Euskal Aktoreen Batasuna) bereziki, bai eta **Artez aldizkaria**rena ere.

Horiek guztiek ekarri dituzte beren ideiak edizio hau definitzeko, ahal duten guztian lagundu dute, eta Feriarekin konprometitzen jarraitzen dute baita ekonomikoki ere.



Piedra (A cielo raso)



Erritu (Kukai)



Los sueños de Don Friolera



Literaktumek ikus-entzule asko erakartzea lortu zuen azken edizioan, **4.200 lagun**, eta goraldiari eutsi zion. Jaialdiak urratsak eginez jarraitzen du letren inguruko jaialdien artean erreferentziako hitzordu bihurtzeko helburuaren atzetik.

2019an, jaialdiaren ardatz nagusia **literaturaren eta feminismoaren arteko harremanak** izan ziren, eta emakumeak izan ziren gonbidaturiko autore gehienak. **Cristina Morales (Espainiako Narratiba Saria** jaso du berriki), **Karmele Jaio, Elvira Sastre, Eider Rodriguez, María Sánchez, Laura Freixas, Mariasun Landa, Christina Rosenvinge, Paula Bonet, Espido Freire, Lucía Baskaran, Marta Sanz, Arantxa Urretabizkaia** (azken Anton Abbadia sariduna) izan ziren, besteak beste, solasaldietan.

Gai hori dela eta, edizioaren beste datu esanguratsu bat izan da jendeak aretoak bete zituela zenbait ekitalditan, eta batez ere emakumeak eta gazteak izan zirela.

Azken edizioak, gainera, izan zituen beste protagonista handi batzuk ere, hala nola **Bernardo Atxaga**, zeinak bere azken eleberria izango omen dena aurkeztu baitzuen, *Etxeak eta hilobiak*, noiz eta Espainiako **Letren Sari Nazionala** eman zioten egunean bertan.

Ramon Saizarbitoria donostiarrak, eta zehazki *Egunero hasten delako* eleberria argitaratu zeneko 50. urteurrenak, beren leku berezia izan zuten. Iratxe Retolazak, Itxaro Bordak eta Lourdes Oñederrak lan hori aztertu zuten zuzeneko irratsaio batean, DK Irratiaren Bestalde programan alegia, zeina Klub Aretoan egin baitzen, Maite

Larburuk eta Harkaitz Canok Ion Olanorekin batera elkarrizketa poetiko-musikalean jardun aurretik.

Adam Zagajewskik ere, **2017ko Letren Asturiasko Printzesa Saria**k, parte hartu zuen programan, eta **Ramón Andrés** idazle eta saiogilearekin batera, bere obraz jardun zuen, abiapuntutzat hartuta gaur egun poesiak duen lekuaz eta europar proiektuaren etorkizunaz.

Angel Errok eta **Iñigo Astizek**, bestalde, poesian edo prosan pentsatzearen antzak eta aldeak jorratu zituzten UPV-EHUK antolaturiko *Pentsatu!* Jardunaldietan, zeinak aurten ere Literaktumen programan sartu baitira. Unibertsitatearen eta Literaktumen artean antolatutako beste jarduera batzuk pentsamendua eta feminismoari buruzko mikro-eztabaidak izan ziren, Kutxa Kultur gunean.

Txikienek ere badute beren lekua jaialdian. *Literaktum Txikia* 16 urtetik beherakoentzako programa da, eta agenda betea du: antzerkia, ipuin-kontalariak, musika eta lantegiak, non ikus-entzule asko izan baitziren denetan ere. Atal hori haziz doa urtetik urtera, hala ikus-entzuleen nola asmoen aldetik.

Eta, amaitzeko, Literaktumek literatura-afari arrakastatsua eskaini zuen, oraingoan Charles Dickens en omenez.

2019a urte ederra izan zen Literaktumentzat, eta Donostia Kultura ez zen bakarrik izan arrakastan. Gipuzkoako Aldundiko Kultura Departamentuak, Euskadiko Filmategiak, Gipuzkoako Liburuzainen Elkarteak, Etxepare Institutuak, Poloniako Kultura

Institutuak eta Feministaldiak bat egin zuten harekin letren artearen ospakizun honetan.

Laburbilduz, **Literaktumek** literaturaren jai handia utzi zuen atzean, Donostia ia bi astez *hitzen hiria* bihurtu baitzuen. Jaialdiak zenbait podcast utzi dizkigu jardueraz; hementxe daude ikusgai: <https://irratia.donostiakultura.eus/es/>.



María Sánchez



D Kluba programak **Donostiako auzoetako musika-eskaintza** dinamizatzeko helburua du, **bertako taldeen parte-hartzea** sustatuz bereziki. Helburua hiria erreferente bihurtzea da, non talde berriak aurkitu, artista ospetsuak hartu eta non bertako talentua modu naturalean hazi ahalko baita. **Lankidetz**a du oinarri (administrazio publikoaren eta erakunde pribatuen artean), musika-**ekitaldi komertzialak ez bezalako ekitaldi alternatiboak** programatzeko eta **bertakoa aintzat hartzeko** xedez (hala musika-taldeei dagokienez nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarleen lanari dagokionez).

2019an, **20.878 ikus-entzule** izan ziren 30 kontzertutan, zeinak tabernetan, aire librean eta kultur etxeetako agertokietan egin baitziren, batez ere **Intxaurren Kultur Etxeko** aretoan. Kultur Etxea gero eta erreferentzia sendoagoa da bere aretoari, edukierari eta erabiltzeko erosotasunari esker, jende asko erakartzeko gaitasuna duten taldeek eskaintza osatzeko bidea ematen baitute. 2019ko adibide gisa, **Gatibuk** (hirutan), **León Benaventek** eta **Nikki Hillek sarrerak agortu zituzten** alde aurretiko salmentetan. Orobat, nabarmentzekoa da **8. Revlution Jamrock Reggae Festival**ek utzitako aho-zapore gozoa. Lehen aldiz antolatu zen gure Kultur Etxean, beste jaialdi batzuen bidea hartuta: **Urban Femme**, **IX. Musigakela Weekend** edo **XIV. Donostikluba festibala**. **Donostikluba festibala**.

DKlubak, musika-eskaintza emateaz gainera, balioa duten beste proposamen batzuk sortzen ditu,

hala nola **sorkuntza-egonaldiak**, 2019an **Willis Drummond** edo **Nina Coyote y Chico Tornadok** gauzatuak, **Intxaurren K. E.**an horiek ere. Taldeok beren azken diskoak aurkezteko kontzertuan prestatzeko erabili zituzten egonaldiok. Programa horrek badu ezagutza transmititzearan adarra ere: **Lauizeta ikastolak** topaketak eta lantegiak egin zituen bi taldeekin.

DKlubako aire libreko agertokiei dagokienez, udako hitzorduen artean arrastoa utzi duenetako bat **Musikaren eguna** da, Fnac-ekin batera antolatua. Ekainaren 22an, Loiola kalea musikaz bete zen eguerditik arratsera arte, zazpi kontzertu izan baitziren. Nabarmenenak, talde hauenak: **Noa & The Helldrinkers**, **Joseba Irazoki eta lagunak** y **Koko Jeans & The Tonic**. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera.

Bestalde, **Musikagela Festek** Easo plazan bigarren edizioa egin zuen (lehen Loiolako Erriberako Oroimenaren lorategian egin zen). Kokaleku berriari esker, jende asko hurbildu zen bertako **zazpi taldeen eta bi bakarlarie**n kontzertuetara, Musikagela zerbitzutik denak ere, bai eta **The Sick Boys** Bartzelonako bandarenera ere. Jardunaldiak ezin modu hobean eman zion amaia ikasturteari.


Baina, Dklubak aire libreko musika-agendaren alde egindako apustuen artean, **Glad is the Day** izan da, ezbairik gabe, urteko izarra. Ekinbidea 2016ko Hiriburutzatik dator, eta sendotuz jarraitzen du: **10.000**

lagun izan ziren abuztuaren 4ko kontzertuetan. Dinamikak laguntzaile bat gehiago izan zuen, **Keler** (besteak, **Le Bukovski**, **Dabadaba** eta **Kutxa Kultur** dira). Bosgarren edizio honetan, 16 talde eta Dj izan ziren, azokatxoak, haurrentzako lantegiak eta janari-eta edari-postuak. Familiaek eta adin guztietako jendeak hartu zuten gozatua egun eder eta jai-girokoan, **Potato** eta **The Limboos** taldeen musikaz lagunduta, edota **Bellaca** eta **Khaled**en saioez.

Ezbairik gabe, Cristina Enea parkeko hitzordua ondo finkatuta dago Donostiako udako egutegian.



Glad is the day





IBILBIDEA

Olatu Talka Jaialdia^{ren} hamargarren edizioa azkena izan zen. **60.000 lagunek** hartu zuten parte, inoiz baino gehiagok, eta halaxe esan zuen agur jaialdiak, Donostia urteotan mobilizatu eta gero.

Jaialdia 2010ean hasi zen, 2016an Europako Kultura Hiriburutza lortzeko proiektuari bultza egiteko asmoz. Kultur Hiriburutza amaitu ondoren, Olatu Talkak aurrera jarraitu zuen azken unera arte, hasierako helburuen atzetik betiere, eta "Hiria egitea" goiburuari leial.

Jaialdiaren helburu nagusia **herritarren parte-hartzea bultzatzea** izan zen, eta kultur eragile aktibo bihurtzea. Horretarako, jaialdiaren berezitasun nagusia programazioa herritarrek herritarrentzat eratzea izan zen, **era guztietako jarduera eta dinamikei** bide emanez.

Urtez urte, Olatu Talka, **2.000 eragile**ren lanari esker, gai izan zen **200 jardueratik** gorako agenda bat osatzeko. Parte hartzen zuten kultur eragile eta elkarteek beren jarduerak egiteko era berriak ezagutu ahal izan zituzten.

AZKEN OLATU TALKA

2019an, Olatu Talkak agur esan zuen **azkenekoz, eta edizio horretako helburu nagusietako bat** hamar urteko lanaz osatutako ibilbidea aldarrikatzea izan zen. Horretarako, edizio horretan aurreko edizioetan jardundako zenbait eragilerek batera lan egin zen, eta, berriz ere, jardueren **deszentralizazioa** funtsezkoa izan zen. Landutako gaien artean, **ingurunearen zaintzari** buruzko kontzientziazioa eta **gure itsasoan osasuna** nabarmendu ziren, **gizarte-gaiak** ahaztu gabe.

Ingurunearekiko konpromisoa izan zen azken jaialdiaren ardatz nagusietako bat. Zehazki, **gure itsasoan osasuna**; izan ere, Olatu Talka gertatu zen unean hondartza-denboraldia ireki zen. Gaia presente egon zen hainbat dinamikan: ibilbideak, arte-instalazioak, bigarren eskuko azokak, *Itsas Zaborra out*, Gure itsasoan osasunaren alde, *Ondarreggae*, eta naturarekin zerikusia zuten hitzaldi eta ibilaldiak, besteak beste.

Kultur aniztasunak ere bere lekua izan zuen jaialdian. Ongi Etorri Eskolarak antolaturiko topaketak kulturen arteko ezagutza eta migrazioaren gaia jorratu zituen, *Gure oinek mundua mugitzen dute* goiburutzat hartuta. Bestalde, Caritasek *Hiria eraikitzen* jarduera garatu zuen, eta gizarte-bazterketaren kontrako ekintzak burutu zituen.

Beren lekua izan zuten beste gizarte-gai batzuk izan ziren, besteak beste, *Kalean bizi* atalaren barruan egindako jarduerak, zeina programaren ardatz nagusietako bat baitzen (gune irekietan egindako dinamikek osatua). Besteak beste, Alderdi Ederren aurkeztutako *Book Box*, *Oikocredit* edo *Cycling without age* ekinbideak. *Irudigileak* ekimenak ere -emakume ilustratzaileen lanen erakusketa, Egiako pasabidean ikusgai jarria (hiriko puntu kritikoetako batean)- oihartzun handia eta arrakasta izan zituen jaialdian.

Bestalde, jende gehien erakarri zuten jarduerak hauek izan ziren: *Kontxa Gaumarket*, sortzaileentzako plataforma, 80 postu bi egunetan, eta *Kontzertour*, 50 musika-emanaldi.

Boga! amaierako ekitaldiak, itsasoan barrentzen zela ematen zuen agertoki batean, eman zion buru etapa oso positibo bati. Han esan zigun betiko agur Olatu Talkak.



Bogal



Otsailaren 7tik 24ra bitarte egin zen **Poltsiko Antzerkia**, eta 28. ediziora iritsi zen 2019an. Programak **25** gune/agertoki izan zituen hirian zehar, eta ia hiru hamarkada bete dituen jaialdi honek 33 emanaldi eskaini zituen (bi-lau eguneko, Donostiako zenbait lekutan).

Poltsiko Antzerkia zubi ezin hobea da formatu txikiko antzerkira hurbiltzeko, eta arrakasta handia izaten du urtero ikus-entzuleen kopuruaren aldetik. Azken edizioan, hain zuzen, **3.000 lagunetik** gora izan ziren. Guztira, **17 konpainia** eskaini zituzten umorezko lanak, drama eta musika; batzuk talde-lanak izan ziren, eta beste batzuk bakarkakoak.

Beste urte batzuetan bezala, oraingoan ere euskal sorkuntzak leku nabarmena hartu zuen, eta 17 funtzio euskaraz izan ziren. Generoari dagokionez, hamar ikuskizunetan emakumeak izan ziren protagonista, zazpitan bietarik, eta 16tan gizonezkoak.

Amaierako jaietan, zeinean 250 lagun bildu baitziren, topaketa-gunea eskaini zen aktore eta ikus-entzuleentzat; oso esperientzia polita eta jostagarria.

Edizio honetan, gainera, ikus-entzuleen parte-hartzea eta interesa sare sozialen bidez nabarmendu ziren, interakzio asko izan baitziren Twitter, Instagram eta Facebook-en.



Riki López



Fabiolo Connection



2019ko kartela



Korner, Kultura & Futbol Festibalak sendotu egin zuen bere proposamena 2019ko bigarren edizioaren ondoren, non **2.000 lagun** izan baitziren, sortutako interesaren adierazgarri. Urrats garrantzitsua Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak bultzaturiko programa honentzat, zeinak kulturaren eta futbolaren arteko loturak arakutzen baititu zenbait ikuspegi eta arlotatik.

Realaren eta Athletic-en arteko derbiak, gizonezkoenak zein emakumezkoenak, eta egun emakumeen futbolarik duen goraldia izan ziren bigarren edizioko ardatz nagusiak. Hiriko zenbait lekutan egin zen, otsailaren 4tik 10era bitarte, eta **Bertso Derbia** ekinbide arrakastatsua izan zuen sarrera gisa, zeinaren XII. edizioa egin baitzen otsailaren 3an Antzoki Zaharrean.

Korner-eko jardueretan kultura, futbol eta kazetaritzako pertsona nabarmenak izan ziren: Luis Arconada, José Ángel Iribar, Vero Boquete, Nahikari García, Aintzane Encinas, Olga Viza, Michael Robinson, Martín Caparrós,

Karlos Argiñano, Eneko Atxa, Andoni Egaña, Jon Maya, Koldo Almandoz, Gari, Ana Malagón edo Kukai Dantza konpainiak, zeinak **Kirol legez / Fair Play** lana estreinatu baitzuen, futbolaren eta kulturaren arteko loturak eta kirol erregean diren gizarte-eztabaidak jarri zituzten agerian.

Nabarmenezkoak, halaber, **Emakumeek ere jokatu egiten dute** kale-erakusketaz gozatu zuten 1.500 lagunak. Erakusketa horrek emakumeen futbolaren historia jarri zuen ikusgai, hasi XIX. mendearen amaierako britainiar aitzindarietatik eta egungo leherketaraino, edota jaialdiko webean ikus daitezkeen bideoen 1.200 ikustaldiak.

Izan ere, **korner.eus-en aukera egon da programaren osagai eta dinamika gehiagoz gozatzeko**, 19 bideo igo baitziren webera, eduki berriekekin eta jaialdian gertaturikoaren laburpen batzuekin.

Orobat, edizio honetan hiru kontakizun berri eman ziren argitara: Martín Caparrósek **Cogerse las gashinas** idatzi zuen, eta Aritz Gorrotxategi eta Galder

Reguerak, berriz, **Urdin-Gorri** Inprimatutako kontakizunetatik, 4.000 ale banatu ziren Anoetako estadioan, jaialdiko jardueren egoitzetan eta Donostia Kulturaren kultur etheen sarean. Orobat, kontakizun digitalak zintzilikatu ziren **korner.eusen**, non online irakur baitaitezke.

Korner

KULTURA & FUTBOL FESTIBALA



Nahikari García



Luis Miguel Arconada



José Ángel Iribar



Ekaingo kobazuloen aurkikuntzaren 50. urteurrena ospatzeko gala, Aranzadiren esku. Victoria Eugenia Antzokia.

2019an, Donostia Kulturako Produzio Unitateak **887 ekoizpen** egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal zentroan eta beste gunetan batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpenotan sartzen dira Antzerki FERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Olatu Talka jaialdia, Heineken Jazzaldia eta Fantasiak eta Beldurrezko Zinemaren Astea, bai eta beste erakunde batzuekin izandako beste lankidetzak batzuk ere, zeinen artean honako hauek nabarmenduko baititugu:

- **Euskaltzaindiaren Mendeurreneko** jardunaldiak
- **Ekaingo kobazuloen 50. urteurrena**
- **Donostia International Physics Centeren** kongresua
- **Teledonostiren 25. Urteurreneko** gala
- **Star Wars** sagaren azken emaitzaren europar **aurrestreinaldia**.

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2019an beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen-zerbitzuak.

- **Kursaal Eszenako** kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).
- **Musika Hamabostaldiko** kontzertuak, Kursaal Auditorioan, Victoria Eugenia Antzokian, San Telmo Museoan eta beste gunetan ireki batzuetan.
- Produkzio Koordinazioa, **Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarekin** batera, Victoria Eugenia Antzokian.
- Gabonetako Kontzertua (**El Diario Vasco**).
- **Kursaal Auditorioaren** XX. urteurreneko gala.

Azkenik, nabarmendu behar da **Pauso Berriak** hitzarmena berritu zela Gureak Fundazioarekin eta Atzegirekin. Programa horrek

gutxiagotasun intelektuala duten pertsonen gure inguruko enpresa eta erakundeetan lan egiteko bidea ematea du helburu.



Star Wars: el ascenso de Skywalker pelikulararen estreinaldia Victoria Eugenia Antzokian



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura